

42

EZGAITASUNA ETA LAN MERKATUA: EAE-KO EGOERA

HEZIKETA ENPLEGUA GAITASUNAK

lanerako koadernoak

PRESTATZAILEA

cidec

EKIMENAREN BABESLEA

EUSKO JAURLARITZA

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

DIRULAGUNTZA

EUROPAKO
GIZARTE
FONDOA



FONDO
SOCIAL
EUROPEO

42

**EZGAITASUNA ETA LAN MERKATUA:
EAE-KO EGOERA**

LANERAKO KOADERNOAK HEZIKETA • ENPLEGUA • GAITASUNAK

EKIMENAREN BABESLEA: EUSKO JAURLARITZA - JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
DIRU-LAGUNTZAILEA: EUROPAKO GIZARTE FONDOA

ARGITARATUTAKO ALEAK

1. EDUCACIÓN Y TRABAJO PRODUCTIVO
2. CAMBIO TECNOLÓGICO Y REPERCUSIONES EN EL EMPLEO
3. PREVER Y FORMAR
4. ANÁLISIS PREVISIONAL DE LOS EMPLEOS DEL COMERCIO MINORISTA EN DONOSTIA
5. EXPERIENCIAS DE FORMACIÓN CONTINUA PARA DIRIGENTES DE PYMES
6. LAS CUALIFICACIONES PROFESIONALES ANTE EL MERCADO ÚNICO
7. LAS MUJERES Y EL MERCADO DE TRABAJO EUROPEO
8. PARO DE LARGA DURACIÓN EN EUROPA: ESTRATEGIAS Y ACCIONES
9. INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO EN FORMACIÓN CONTINUA
10. FORMACIÓN DE FORMADORES: RETOS Y AVANCES
11. GUÍA 1 FORMACIÓN PARA LA PYME: COMPETENCIAS GENÉRICAS DE LOS FORMADORES Y ORGANIZADORES DE PROGRAMAS DE FORMACIÓN PARA PEQUEÑAS EMPRESAS
12. NUEVO CONTEXTO SOCIOECONÓMICO Y ESTRATEGIAS DE DESARROLLO LOCAL
13. CRECIMIENTO, COMPETITIVIDAD Y EMPLEO. ESTRATEGIAS EN LA UNIÓN EUROPEA. RETOS Y PERSPECTIVAS PARA EL PAÍS VASCO
14. MANUAL PARA LA ELABORACIÓN DE PROYECTOS DE DESARROLLO ECONÓMICO LOCAL Y EMPLEO
15. GUÍA 2 FORMACIÓN PARA LA CREACIÓN DE PYMES. COMPETENCIAS DE LOS FORMADORES PARA PROMOVER EL ESPÍRITU E INICIATIVA EMPRESARIAL Y LOS PROYECTOS DE CREACIÓN DE EMPRESA
16. ANÁLISIS Y EVOLUCIÓN DE LOS EMPLEOS DEL TERCIARIO DE OFICINA
17. ANÁLISIS Y EVOLUCIÓN DE LOS EMPLEOS DE LA INDUSTRIA METALMECÁNICA
18. FLEXIBILIDAD Y DISTRIBUCIÓN DEL TRABAJO
19. NUEVOS YACIMIENTOS DE EMPLEO
20. LA FORMACIÓN EN CENTROS DE TRABAJO
21. LA CALIDAD DE LA FORMACIÓN
22. TELETRABAJO. IMPACTO DE LAS NUEVAS TECNOLOGÍAS EN LA ORGANIZACIÓN DEL TRABAJO
23. ORIENTACIÓN Y ASESORAMIENTO PROFESIONAL
24. PERFILES Y COMPETENCIAS PROFESIONALES EN EL SECTOR DE LA CONSTRUCCIÓN
25. LOS JUEGOS DE SIMULACIÓN, UNA HERRAMIENTA PARA LA FORMACIÓN
26. INSERCIÓN A TRAVÉS DE LA FORMACIÓN. INSTRUMENTOS PARA INNOVAR LOS PROCESOS DE FORMACIÓN-INSERCIÓN
27. COMPETENCIAS PROFESIONALES. ENFOQUES Y MODELOS A DEBATE
28. ORGANIZACIÓN Y DISEÑO DE LOS PROCESOS DE EVALUACIÓN
29. ESTRATEGIAS REGIONALES Y TERRITORIALES. EL PAPEL DE LAS AGENCIAS DE DESARROLLO
30. VALORIZAR EL CAPITAL HUMANO: RETO CLAVE PARA LA SOCIEDAD DEL CONOCIMIENTO
31. GESTIÓN DEL CONOCIMIENTO Y CAPITAL INTELECTUAL
32. REORGANIZACIÓN DEL TIEMPO DE TRABAJO. MEDIDAS Y EFECTOS
33. NUEVAS TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y LA COMUNICACIÓN VERSUS CREACIÓN DE EMPLEO
34. PERTSONA ETA ERAKUNDEETAN JAKINTZAREN KULTURA ERAIKIZ
35. ERAKUNDEETAN ZEHARKAKO GAITASUNAK KUDEATZEKO GIDALIBURUA
36. BIZITZAN ZEHARREKO IKASKETA
37. ENPLEGUAREN ARLOAN GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNA HEDATZEKO ORIENTAZIOAK
38. DEMOGRAFIAREN BILAKAERA ETA MIGRAZIO-FLUXUAK: LAN-MERKATUKO ERAGINAK
39. HIRUGARREN SEKTOREA IKUSPEGI KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA
40. ENPLEGU GUNE BERRIAK XXI. MENDEAN
41. LANPOSTUAN IKASTEKO GIDA-LIBURUA

42. ALEA

EZGAITASUNA ETA LAN MERKATUA: EAE-KO EGOERA

CIDEC. Centro de Investigación y Documentación sobre problemas de la Economía, el Empleo y las Cualificaciones Profesionales

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Txingurri pasealekua, 28-30, Lurra eraikina 3.solairua K.P. 20017 Donostia-San Sebastián

Tel.f.a 943 42 52 57 Faxa: 943 42 93 31 • E-mail.: info@cidec.net • Web: www.cidec.net

Imprimategia: Michelena Artes Gráficas S.L.

D.L.: SS-104-91

I.S.S.N.: 1135-0989

Salneurria: 25 €

**EZGAITASUNA ETA LAN MERKATUA:
EAE-KO EGOERA**

AURKIBIDEA

	Or.
HITZAURREA	8
AURKEZPENA	10
AITZINSOLASA	12
1. BIZTANLERIA ETA EZGAITASUNA	19
1.1. Ezgaitasuna duen biztanleriaren ezaugarriak	20
1.1.1. Demografia-ezaugarriak	20
1.1.2. Familiaren osaera	21
1.1.3. Ezgaitasun mota eta maila	22
1.1.4. Ezgaitasunaren jatorria	24
2. GAITASUNA	27
2.1. Gizarte-zerbitzuak	28
2.1.1. Prestakuntzarako programak	28
2.2. Hezkuntza-sistema	28
2.2.1. Hezkuntza eta profesionalen dibertsifikatzea	28
2.2.2. Pertsona ezgaituen titulazioa	30
2.3. Enpleguaren arloa	32
2.3.1. Prestakuntza eta eskaria	32
3. EGINKIZUNAK BETETZEA	35
3.1. Gizarte-zerbitzuak	36
3.1.1. Eginkizuna betetzea pertsona ezgaituarekiko	36
3.1.2. Eginkizunak betetzea zaintzaile nagusien gaitasunarekiko	38
3.2. Diru-sarrera pertsonalak	40
3.3. Hezkuntza-sistema	41
3.3.1. Laguntza teknikoak eta hezkuntzan laguntzeko espezialistak	41
3.4. Enpleguaren arloa	42
3.4.1. Enplegurako informazioa eta orientazioa	42
3.4.2. Lanaren arloko bitartekaritza espezializatua	43
3.4.3. Laneko eta familiako erantzukizunaren kontziliazioa	44
3.4.4. Lanposturako egokitzapenak eta laguntza teknikoak	44
4. EKOSISTEMAREN FUNTZIONAMENDUA	47
4.1. Gizarte-zerbitzuen sistema eta etxebizitza	49
4.1.1. Kudeaketaren kalitatea eta bizi-kalitatea	49
4.1.2. Bizitegia	50
4.1.3. Jarduera okupazionala	52
4.1.4. Komunitateko bizitza	52

4.2. Lan-eremua	57
4.2.1.Lan-jarduera	57
4.2.2.Langabezia	59
4.2.3.Lan-jarduna	62
4.2.4.Enplegu-zentro bereziak	63
4.2.5.Telelana	66
4.2.6.Ezgaitasuna duten pertsonentzako legedi espezifikoa	67
4.2.7.Politika publikoak eta enpleguaren sustapena	70
5. MAKROSISTEMA	74
5.1. Sinesmen-sistema	75
5.2. Aurrea hartzea	78
5.3. Ikerketa	80
5.4. Sentiberatzea	82
5.5. Irigarritasun unibertsala: denontzako diseinua	83
6. LAN-MERKATU ARRUNTERA TXERTATZEKO PLANAREN ERRONKAK ETA LORPENAK . .	86
6.1. Gauzatze-burutze maila	88
6.1.1.Ikerketa	88
6.1.2.Sentiberatzea	89
6.1.3.Lanerako informazioa eta orientazioa	90
6.1.4.Lanbide hezkuntza	91
6.1.5.Enplegurako sustapena	96
6.1.6.Herri-administrazioak	97
6.1.7.Laneko harremanak	101
6.2. Emaidza nagusiak eta betetzeko dauden erronkak	103
BIBLIOGRAFIA	106

TAULAK

	Or.
1. Ezgaitasunaren kontzeptuak	13
2. FNSko definizioak	16
3. Aurkibidearen osaera	18
4. Pertsona ezgaituak adinaren arabera	21
5. Ezgaitasunaren nagusitasuna sexuaren eta adinaren arabera	21
6. Ezgaitasunaren nagusitasuna sexuaren eta adinaren arabera	22
7. Ezgaitasunaren mota sexuaren eta adinaren arabera	23
8. Minusbaliotasun maila sexuaren eta adinaren arabera	24
9. Minusbaliotasun maila ezgaitasunaren arabera	24
10. Ezgaitasuna agertzen den adina	25
11. Urritasun atxikien kopurua ezgaitasun nagusiaren arabera	25
12. Biztanleria ezgaituak lortutako prestakuntza maila eta biztanleria orokorrarena sexuaren eta adinaren arabera	31
13. Lortutako hezkuntza, ezgaitasun motaren arabera	31
14. Ezgaitasuna duten pertsonak, ezgaitasunaren eta ikasketaren arabera	33
15. Mendetasunari buruzko Legearen terminologia	39
16. Independentzia ekonomikoaren maila, diru-sarreraren arabera	41
17. Independentzia ekonomikoa sexuaren eta adinaren arabera	41
18. Lan egokitua ezgaitasunaren arabera	45
19. Laguntza teknikoaren erabilera ezgaitasunaren arabera	45
20. Lanean erabilitako laguntza teknikoaren motak	46
21. Jarduera-tasak sexu eta adinaren arabera	58
22. Jarduera-tasak sexuaren eta ezgaitasun motaren arabera	58
23. Jarduera-tasak sexuaren eta minusbaliotasun mailaren arabera	59
24. Soldatapeko enplegu modalitatea sexu eta adinaren arabera	59
25. Langabezian daudenak, laneko esperientzia, sexua eta adinaren arabera	60
26. Langabezian daudenak, lanbide eta laneko eskarmentuaren arabera	61
27. Langabezian dauden ezgaituen ikasketak	61
28. Okupazio-koefizienteak sexu, adin eta lurraldearen arabera	62
29. Okupazio-koefizienteak sexu, eta ezgaitasun motaren arabera	63
30. Okupazio-koefizienteak sexuaren eta minusbaliotasun mailaren arabera	63
31. EZBak lurralde historikoen eta sortzen duten lanpostuen arabera	64
32. Administrazioaren eta zentroen arteko ordainketa eta sarrerak (euroak milakoetan)	66
33. Espainian ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke ematen diren pizgarriak	70
34. EAEn ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke ematen diren pizgarriak	72

35. Orientazio-zerbitzuaren erabiltzaile diren pertsona ezgaituak, adinaren arabera	90
36. Orientazio-zerbitzuak 2004-2006	91
37. Pertsona ezgaituak prestakuntza-zerbitzuetan	92
38. Ezgaitu parte-hartzaileen banaketa prestakuntza ezaugarrien eta ikastaroaren hasiera urtearen arabera	92
39. Ezgaitu parte-hartzaileen banaketa irteera profilarren (areak) eta sexuaren arabera	93
40. Ezgaitasuna duten ikasle integratuak, mailaka. 2005-2006 ikasturtea	95
41. Ezgaitasuna duten ikasle integratuak, tipologiaren arabera. 2005-2006 ikasturtea	95
42. Ezgaitasuna duten ikasle integratu gabeak. 2005-2006 ikasturtea	96
43. Behin betiko kontrataziorako diru-laguntzak 2005. Atalka diruz lagundutako langileak (euroak milakoetan)	96
44. Behin betiko kontrataziorako diru-laguntza programak 2006 (euroak milakoetan)	97
45. Lan-eskaintza publikoak - Eusko Jaurlaritza	98
46. Osakidetzaren lan-eskaintza publikoa 2006	99
47. Ezgaitasuna duten langileak eta laneko arriskuei aurrea hartzea	100
48. Zigor-espedienteak MGL Legea aplikatzearen ondorioz 2004-2006	102

GRAFIKOAK

1. Eredu ekologikoa	15
2. Esku hartzeko ildoak	17
3. Eredu ekologikoan eta OMEaren 2001eko FNSn oinarritutako esku-hartzeen antolamendua	16

HITZAURREA

Lan-merkatuan asko dira, ezgaitasuna dutelarik, gainontzeko langileen lan-baldintza berdinetan lana egiten dutenak. Badira, halaber, lan-merkatu babestuan ari direnak, dela enplegu-zentro berezietan dela indar gutxiago duten lan-enklabeetan eta enplegu laguntzadunetan. Eta badira beste ezgaitu batzuk, asko direnak gainera, langabezian daudenak edota inolako lan-jardunik egiten ez dutenak, askotan enplegua lortzeko irisgarritasunik ez dutelako edo lan egiteko inolako itxaropenik ez dutelako.

Koaderno honetan, pertsona horiek guztiek lan-merkatuan bizi duten egoera azaldu nahi dugu, eta horretarako bi elementu elkartuz jokatu dugu. Alde batetik, Euskadin pertsona ezgaituei eta lan-merkatuari buruz dagoen informaziorik eguneratuena erabili dugu; zehaztasun handiko informazioa ezgaitasun motei dagokienez, arlo honetan ohikoa ez den zehaztasunekoa, alegia. Horregatik bakar-bakarrik esan daiteke informazio horrek egiten duen ekarpena oso interesgarria dela. Bestetik, informazio hori ezgaitasunaren egoera azaltzen duten ardatz berberekin konjugatzen eta ordenatzen da; hala, Koadernoaren egiturak Osasunaren Mundu Erakundeak definitzen duen ezgaitasunaren kontzeptua islatuko du eta arreta berezia jarriko du ingurunean, horixe baita hain zuzen ere Herri-administrazioen xederik garrantzitsuena.

Gizarteak oro har eta herri-administrazioek bereziki hobeto hausnartu eta kontuan izan beharko luketen kontzeptu bat da ezgaitasuna osasun-egoerako zein gizarte-inguruneko baldintza-multzo batez osatzen dela. Ezgaitasuna, beraz, egoera bat da eta, ondorioz, ezgaitasuna dakarten egoerez hitz egin behar da, hala nola, lan-merkatura iristea galarazten edota eragozten dutenez, eta ez bakarrik mugikortasuna errazteko izan daitezkeen alderdi fisikoei dagokienez, baita komunikazioari dagokionez ere. Hau da, onartu beharra dago ezgaitasuna bazterketa-prozesu bat dela eta hor esku hartu behar dugula eta erantzukizunak geureganatu.

EAEko pertsona ezgaituak lan-merkatu arruntera gehitzeko planak jada aurreikusten zituen ingurunearen garrantzia eta Administrazioaren zeregina. Plan horren arabera, Administrazioari dagokio, alde batetik, lege eta arauak jagotea, eta bestetik, berari dagokio gizarte agenteei erraztasunak ematea, horiek beren eginkizuna lan-merkatuaren irisgarritasuna errazteko zereginera bideratzen dutenean. Horri begira, Administrazioak hitzarmen kolektiboak erabil ditzake edota negoziazio kolektiboak, esate baterako, ekimen positiborako neurriak ezartzeko edota laneko eta familiako bizitzak bateragarriak izateko.

Eusko Jaurlaritzak aitzindaria izateko asmoa du, oraindik lan-merkatura sartu ez diren edota lan-baldintza prekarioetan sartu diren pertsona ezgaituei irisgarritasuna errazteko lanean. Beste erakunde batzuen (euskal administrazioak eta gizarte-ekimeneko erakundeak) ekimenei ere lagundu nahi die formula berritzaileak aurkitzeko zereginen. Eusko Jaurlaritzak, halaber, ezgaitasuna dutenak gizarteratzeko testuingurua sortu behar du, asmoan nahastuta dauden agente guztiak sentsibilizatuz eta ezgaitasuna duten pertsonak gizarteko arlo guztietan enplegura gehitzeko erronkak eta aukerak jakitera emanez.

Koaderno hau ildo horretan doa, eta horrekin errealitate poliedrikoa hobeto partekatu eta ikuskatu nahi da, betiere kontuan izanik ikuspegi horrek, alde batetik, inguruneari begiratzen lagundu behar duela, eta bestetik, lan-merkaturako irisgarritasuna pertsona guztien eskubidea dela eta hori, lehenago edo geroago, gizartearen onurarako izango dela.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroa

Jesús MONREAL ZIA
Eusko Jaurlaritzaren
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko
Enplegu eta Prestakuntza zuzendaria

AURKEZPENA

Ezgaitasuna hitz bat baino ez da. Baina hitz horren atzean zirkunstantzia desberdin eta premiatusun-egoera neurtu ezinak ezkututzen dira. Iritzi hori kontuan izatea funtsezkoa gertatzen da, lan-merkatua benetako berdintasuna lortzen lagunduko duen palanka izan dadin. Ezgaitasuna konplexutasun handiko kontua da, baita bere kontzeptuari dagokionez ere; desberdintasun handiak daude ezgaitasunari buruzko testuetan, hala nola, Minusbaliatuak gizarteratzeko Legeak egiten dituen aipamenetan, 'Ezgaitasun, ezintasun eta osasun-egoerari buruzko inkesta'n, Eurostaten zehaztapenetan, Enpleguaren Institutu Nazionalaren definizioetan, biztanleria aktiboari buruzko inkestako emaitzetan, eta holakoetan.

CIDECek ahalegin bereziak egiten ditu beti kontzeptuetan, eta ez anbizio teorikoen eraginez, baizik eta uste dugulako errealitate bat osatzen duten faktoreak eta horiek elkarrekin dituzten harremanak ezagutzeak diagnostikatzeko eta esku hartzeko modeloa sortzen eta garatzen laguntzen duelako.

Diagnostikoa eta esku hartzea dira, beraz, lan hau egituratzeko erabili ditugun bi ardatzak. Lana, izatez, sendoa da kuantitatiboki, eta kualitatiboki azken boladan garatu diren kontzeptuak jarraitu ditugu, eskuratu ahal izan dugun datu-kopuru ikaragarria ordenatzeko moduari dagokionez. Gure lana gidatu duen ezgaitasunari buruzko kontzeptu jakinaren oinarrian Osasunaren Mundu Erakundearen Funtzionamendu, Urritasun eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapena dago, horretan adierazten baita pertsonaren funtzionamendua —ingurunearekin interaktuatzea— eta ezgaitasuna —jarduteko mugak— osasun-egoeraren eta testuinguruko faktoreen artean gertatzen den prozesu konplexu, interaktibo eta ebolutiboaren emaitza direla.

Lan-merkatuak edozein integratze- edo baztertze-prozesutan funtsezkoak diren hainbat faktore biltzen ditu, baita ezgaitasun-egoerara eramaten duen prozesuan parte hartzen dutenak ere. Laneko istripuek, askotan, ezgaitasuna dakarren urritasunezko osasun-egoera eragiten dute. Testuinguruko beste faktore batzuek, ordea, ezgaitasun-egoera hori mantentzen laguntzen dute, hala nola, lan-merkatuak irisgarritasunik eza, dela laguntza teknikorik bideratzen ez delako, dela ezgaituari laguntzeko pertsonarik eta garraiorik ez dagoelako, edota lanpostuaren desegokitasunagatik, aurreiritziengatik, eta abarregatik.

Ezgaitasuna duten pertsonen buruzko informazioa kontzeptu-garapenean oinarritutako ikuspegiaz egituratu da; funtsezko ildo bakoitzaren barruan doaz, beraz, esku-hartzearen arlo klasikoak: etxebizitza, gizarte gaiak, hezkuntza eta lana.

Lehen kapituluan, Biztanleria eta Ezgaitasuna, hurbilpen kuantitatiboa egiten da ezgaitasunera. Ondoren, ezgaitasuna duten pertsonen gauzak egiteko gaitasuna azaltzen da. Eginkizunak betetzeari buruzkoan, pertsonak benetako ingurunean beren eginkizunak nola betetzen dituzten aztertzen da, eta aldi berean, ezgaituak laguntzarako baliabiderik gabe lan-merkatuan funtzionatzeko izango lituzkeen zailtasunak identifikatu nahi dira. Ekosistemako Funtzionamendua kapituluak ingurunea eta horretan txertatzeko irisgarritasuna aztertzen ditu, baliabideei eta gizarteko, hezkuntzako eta, batez ere laneko parte-hartze mailari begira. Azkenik, Makrosistemaren kapituluak aurreko lerroetan eragina duten balio, jarrera eta sineskerak aztertzen ditu.

Amaitzeko, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari eskerrak eman beharrean gaude eskaini digun lankidetzagatik, kopuruen eremuan bere bi iturri erabili ditugulako funtsezko erreferentziatzat: 'Ezgaitasuna duten pertsonen laneko egoerari buruzko azterlana' eta 'Ezgaitasuna duten pertsonak laneratzeko planaren ebaluazioa'. Kontuan izan dugu, halaber, Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Sailaren 'Ezgaitasuna dutenen premiak eta irisgarritasunaren ikerketa', horrek informazioa osatzen laguntzeaz gain, Koadernoaren egitura ezgaitasunari buruzko kontzeptu-ereduaren arabera bideratzen lagundu digulako.

Donostia-San Sebastián, 2008ko azaroa

Juan José DE ANDRÉS GILS
CIDECeko presidentea

Aitzinsolasa

AITZINSOLASA

Ale honetan aurkezten dugun Lan Koadernoan Euskal Autonomia Erkidegoan ezgaitasunari buruz eskura dagoen informaziorik eguneratuena erkatu dugu ezgaitasunaren arloko esku-hartze eredu moderno batekin. Erkatze-lan horren ondorioz sortu da ezgaitasuna duten pertsonen premiei ekiteko eta horientzat dauden baliabideetara iristeko plan estrategikoa.

Lan honetan erabili dugun ikuspegiak, alde batetik, ezgaitasunaren egoera argitzen duten ardatzen inguruan oinarritutako diagnostikoa egitera eraman gaitu, eta bestetik, esku-hartze eredu baterako ildoak zehaztera, betiere esku-hartze hori prozesu bat balitz bezala ikusita, hau da, etengabe jarduteko aukera ematen duen prozesu bat balitz bezala ikusita, azken batean, ezgaituaren egoera hain gaitasun-gabea izan ez dadin.

Ardatz horiek osatzen dituzten adierazleak, batez ere, EAEn ezgaitasuna duten pertsonen egoera errealari buruz duela gutxi egin den azterlanari esker garatu dira, baita ere Laneratzeko 2003-2004 plana gauzatzeak ekarri dituen aurrerapen nagusien laburpenari eta Eusko Jaurlaritzak egin dituen hainbat eta hainbat ikerlanei esker.

Koaderno honen edukia egituratzen duen aurkibideak ezgaitasuna duten pertsonen premiei aurre egiteko moduak bildu ditu, betiere diagnostikoaren eta esku-hartzearen eredian oinarriturik. Bistakoa da, eredu hori ezgaitasunaren kontzeptu jakin batean oinarriturik egituratu behar dela. Ezgaitasuna, izatez, arazo konplexua da definitzeko eta, esandakoaren eredu gisa, bere kontzeptuari buruz dagoen batasun teoriko urriaren adibide batzuk ekarriko ditugu:

Erkatze-lan horren ondorioz sortu da ezgaitasuna duten pertsonen premiei ekiteko eta horientzat dauden baliabideetara iristeko plan estrategikoa

1. taula. Ezgaitasunaren kontzeptuak

Minusbaliatuak gizarte-ratzeari buruzko Legea	“Minusbaliatu”tzat jotzen da hezkuntzan, lanean eta gizartean integratzeko aukerak gutxituta dituen pertsona, bere gaitasun fisiko, psikiko edo zentzuzkoan duen urritasunen baten ondorioz, eta urritasun hori, berezkoa izan edo ez, betiko dela aurreikusten denean.
Urritasuna, ezgaitasuna eta osasun-egoerari buruzko inkesta	Pertsona bat ezgaitutzat jotzen da bere jarduteko gaitasuna modu larrian mugatzen dion urritasunen bat duena. Inkesta honetan, ezgaitasuna da, hori duen pertsonak jarduteko gaitasuna larriki mugatuta edukitzea, mugatze horren jatorria urritasunen batean datzanean. Inkestak, halaber, bestelako ezgaitasun batzuk ere jasotzen ditu, adibidez, jatorria garbi-garbi urritasunean ez dutenak, hala nola, adinarekin zerikusi duten prozesu degeneratiboen ondoriozkoak.

Eurostat	Pertsona ez gaitua da honako galderari baietz erantzuten diona: Osasun, gaixotasun edo ezintasun mental edo fisikoren bat izaten duzu kronikoki?
Ezgaitasuna duten pertsonen buruzko Base estatala	Ezgaitasuna duten pertsonen buruzko Base estatalean urritasunaz ematen den kontzeptua Funtzionamenduaren, ezgaitasunaren eta osasunaren nazioarteko sailkapena egokitzeko ahalegina da. Sailkapen horri erantzun bat eman nahi izan zitzaien minusbaliotasun maila onartzeko egindako balorazio-espedituetan agertzen diren datuak erabiliz.
Enplegurako Institutu Nazionala	Ezgaitasuna duten pertsonen nola beste edozein langilek bezala lan-eskatzaileria gisa erregistratzen jo dezakete hala minusbaliotasun erregistroan sar daitezke, baina azken bide horretarako minusbaliotasunaren ziurtagiria aurkeztu behar dute.
Gizarte Segurantzza	Gizarte Segurantzza, ezgaitasuna edukitzeak edo ez hiru aldundietako bateko Orientatze eta Ebaluatze Zerbitzuek egindako balorazioaren ziurtagiriaz egoera zuritu beharra eskatzen du.
Jarduneko biztanleriaren inkesta	JBIn jasotzen denez, ezgaitasuna da eguneroko eginkizunetarako mugatuta egotea; muga horrek eragina duenean eginbeharreko jarduerak burutzeko denboran edota kalitatean.

Iturria: bertan egina, Alfonso Alba, Fernando Morenoren *Discapacidad y Mercado de Trabajo* lanean oinarrituta, Gente Interactiva S.L. Madrid 2004.

Lanerako Koaderno honetan, ezgaitasunaren kontzeptuak eta horren diagnostikorako eta esku-hartzeko ereduak Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) 2001eko Funtzionamendu, Urritasun eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapena dute eredutzat, betiere Eredu Ekologikoarekin (Datlan eta Arartekoa, 2003) bat etorri ordenatuta. Honetan proposatzen dugun ereduak, halaber, Bizi Kalitatea kontzeptuarekin egiten du bat, hain zuzen ere, bai indibiduo bezala bai bere ingurukoekin harremanetan dagoen izaki bezala, pertsonarengan oinarritzen den jarrera-aldaketarako lagundu duen kontzeptuarekin. Aldaketa horren atal batek defizit batean oinarritzetik hobetze-estrategiara joatea eragin du. Koaderno honen mamia osatzen duen ezgaitasunaren kontzeptua hobetze-estrategian ere oinarritzen da eta koherentea da, hortaz, Bizi Kalitatearen kontzeptuarekin.

Bestalde, Eredu Ekologikoak adierazten duenez, lau sistemek eragiten dute edozein pertsonarengan, baina sistema horiek bata bestearen barruan daudenez, eragin konplexuak dituzte elkarrengan eta be-

Eredu Ekologikoak adierazten duenez, lau sistemek eragiten dute edozein pertsonarengan, baina sistema horiek bata bestearen barruan daudenez, eragin konplexuak dituzte elkarrengan eta bereiziak dira pertsona bakoitzarengan

1. grafikoa. Eredu Ekologikoa



reiziak dira pertsona bakoitzarengan; horregatik pertsona bakoitzak ezaugarri bereziak dauzka.

Orain arte, Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) Urritasun, Ezgaitasun eta Minusbaliotasunen Nazioarteko Sailkapena da ezgaitasunaren eredurik hedatuena eta instituzio eta erakunde askoren gida. Sailkapen horren laburpenean ikus daitekeenez hiru maila daude ezgaitasunaren arloan:

- Lehen maila: urritasunarena, edozein organori dagokion funtzioaren galerak edo anomaliak eragindakoa. Adibidez, beso baten faltak, ikusmen txarrak, gorrieriak, eta abarrek eragindakoak.
- Bigarren maila: pertsona batengan gaixotasunak eragindako urritasunak sartzen dira. Adibidez, leku batetik bestera joateko ezintasuna, hitz egiteko edo ulertzeko zailtasunak, eta abar.
- Hirugarren maila: honetan minusbaliotasunak sartzen dira, hots, gaixotasun baten eraginez gizarteko harremanetan sortzen diren arazoak. Gaixotasunak pertsonari bere ingurukoekin izango dituen harremanetara ekarriko dizkion desabantailak.

Koaderno hau taxutzen lagunduko digun sailkapenak, hau da, OMEren 2001eko Funtzionamendu, Urritasun eta Osasunaren (FNS) Nazioarteko Sailkapenak, aurreko sailkapenera hainbat ekarpen egiteko aukera ematen digu, besteak beste, funtzionamendua eta ezgaitasuna osasun-baldintzen eta testuinguruko faktoreen arteko prozesu konplexuaren, interaktiboaren eta bilakaerakoaren ondorio direla onartzea. Prozesu hori da, eta ez horren pertsona jabea, sailkapenaren xedea. FNSn agertzen den “funtzionamendu” hitzak interakzioaren alderdi positiboak adierazten ditu; “ezgaitasun” hitzak, ordea, alderdi negatiboak. Hala, aurreko sailkapenean “ezgaitasun” hitzak adierazi nahi zuenari FNSn “jardueraren muga” deitzen zaio.

FNSn agertzen den “funtzionamendu” hitzak interakzioaren alderdi positiboak adierazten ditu; “ezgaitasun” hitzak, ordea, alderdi negatiboak. Hala, aurreko sailkapenean “ezgaitasun” hitzak adierazi nahi zuenari FNSn “jardueraren muga” deitzen zaio

2. taula. FNSko definizioak


Gorputzaren funtzioak	Gorputzaren funtzioak dira gorputz-sistema osoko funtzio fisiologikoak (psikologikoak barne hartuz). Urritasunak funtzioetan edo gorputzaren egituran gertatzen diren arazoak dira, hala nola desbiazioren bat edo galdera garrantzitsuren bat.
Gorputzaren egiturak	Gorputzaren egitura gorputzaren anatomiako atalak dira, hala nola, organoak, gorputz-adarrak eta bere osagaiak. Urritasunak funtzioetan edo gorputzaren egiturako ataletan sortzen diren arazoak dira, adibidez, desbiazio nabarmenen bat edo galeraren bat.
Jarduerak eta parte-hartzeak	Jarduera pertsona batek eginkizun eta ekintza bat egitea da. Parte-hartzea bizitzako egoera baten barruan sartzea da. Jarduteko mugak pertsona batek jarduera egiteko/gauzatzeko izan ditzakeen zailtasunak dira. Parte-hartzeko eragozpenak bizitzako egoeretan murgiltzerakoan pertsona batek izan ditzakeen arazoak dira.
Inguruko faktoreak	Inguruko faktoreak pertsonak beren bizitzan izango dituen inguru fisiko eta soziala, eta jarrerak dira.

Iturria: Organización Mundial de la Salud. CIF. Clasificación internacional del funcionamiento, de la discapacidad y de la salud. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak argitaratua. Gizarte Gaietako Idazkaritza Nagusia. Migrazio eta Gizarte Zerbitzuen Institutua. Madril, 2001.

FNSkin eta Eredu Ekologikoarekin egituratu dira koaderno honen lehen atala osatzen duten esku-hartzeak eta diagnostikoa. Esku-hartzeen antolamendua 3. grafikoko eskeman, ondoko orrialdean, ikus daiteke.


Kontzeptu eta eredu horretan oinarriturik, bost ildo zehaztu dira diagnostikoa egiteko eta esku-hartzeak antolatzeko, eta horiek dira, aldi berean, lanaren ildo nagusia egituratuko dutenak.

3. grafikoa. Esku hartzeko ildoak



Gaitasunak pertsonen inguru uniformearen eginkizunak gauzatzeko duten gaitasunari buruzko adierazleak erakusten ditu edota, beste era batera esanda, gauzak egiteko duten ahalmena edo gaitasuna. Jarduerak, ordea, pertsonen inguru errealean eginkizunak gauzatzeko duten gaitasunari buruzko adierazleak erakusten ditu

2. grafikoa. Eredu Ekologikoan eta OMERen 2001eko FNSn oinarritutako esku-hartzen antolamendua



Iturria: Martínez Ortega, Jorgek Datlan eta Arartekoan (2003) egindako lanean oinarriturik: *La integración laboral de las personas con discapacidad en la CAPV*. Eusko Jaurlaritzak. Gasteiz.

Biztanleria eta Ezgaitasuna. Ezgaitasunera egiten den hurbilpena da. Horretarako, ezgaitasun egoeran dauden biztanleen datuak erabiltzen dira edota, gutxienez, kalifikazio hori emateko eskuduntza duen organoak egoera horretan daudela onartu dituen herritarrenak, hala nola EAEko hiru lurralde historikoetako foru aldundietako orientazio eta ebaluazio zerbitzuak.

Gaitasuna. Pertsonak inguru uniformeetan eginkizunak gauzatzeko duten gaitasunari buruzko adierazleak erakusten ditu edota, beste era batera esanda, gauzak egiteko duten ahalmena edo gaitasuna.

Jarduera. Pertsonak inguru errealean eginkizunak gauzatzeko duten gaitasunari buruzko adierazleak erakusten du. Gaitasunarekin alderatuz gero, eginkizunak inguru uniformeetan eta inguru errealean egitearen artean dauden desberdintasunak ikusten dira, hau da, “egiteko ahalmen”aren eta “egiten den”aren artean daudenak. Adierazle hau erabilgarria da oso, pertsonak laguntza-baliabiderik gabe izango lukeen funtzionamendu-mugaren maila jakiteko.

Ekosistemako funtzionamenduen inguruaren panoramika eskaintzen du, baliabide eta gizarte, lan eta hezkuntzako parte-hartze mailari dagokienez.

Funtzionamendua Ekosisteman. Inguruaren panoramika eskaintzen du, baliabide eta gizarte, lan eta hezkuntzako parte-hartze mailari dagokienez. Puntu honetan funtsezkoa da pertsonak bere inguruarekin aritzeko duen erraztasuna.

Makrosistema. Aurreko ildo guztietan eragiten duten balio, jarraera eta sinesmenez osatutako egitura sozial handia da.

Jada adierazi dugunez, ildo horietan oinarrituz osatu dugu koaderno honetako lehen atalaren aurkibide nagusia. Horri atxiki dizkiogu, hala-ber, esku hartzeko arlo klasikoak: etxebizitza, gizarte-gaiak, hezkuntza eta lana. Jakina, jarraibide hau ez da bete-betea, adierazle gehiagoz osatu baitaiteke zerrenda, eta esku-hartze arlo gehiago barne-bilduz. Alta, lan honek eskema-matrize batean nahi du oinarritu, eredu konzeptual batez baliatu eta lan-munduaren alderdia sakondu, etorkizunearan garatu ahal izan daitezkeen lanetarako oinarri bat eratzeke.

Makrosistema, aurreko ildo guztietan eragiten duten balio, jarraera eta sinesmenez osatutako egitura sozial handia da

3. taula. Aurkibidearen osaera

	Gizarte-gaiak / Etxebizitza	Hezkuntza	Lana
Gaitasuna	Trebetasun-prestakuntzarako programak	Hezkuntza eta profesionalen dibertsifikatzea Ezgaituen titulazioak	Prestakuntza eta lan-eskaera
Jarduera	Jarduera Jarduerak pertsona ezgaituari begira Jarduerak zaintzaile nagusien gaitasunari begira	Laguntza teknikoak eta hezkuntzan laguntzeko espezialistak	Lanerako informazioa eta orientazioa Lan arloko bitartekaritza espezializatua Laneko eta familiako erantzukizunak bateratzea Lanposturako doikuntzak eta laguntza teknikoak.
Funtzionamendua ekosisteman	Kudeaketaren kalitatea eta bizitzaren kalitatea Ostatatzea Lan jarduera Komunitatean bizitzea		Enpleguaren promozioa Lan jarduera Langabezia Okupazioa Enplegu-zentro bereziak Telelana Ezgaituentzako legeria berezia Politika publikoak
Makrosistema	Sinesmen-sistema Aurrea hartzea Ikertzea Sentiberatzea Irigarritasun unibertsala: denontzako diseinua		

1. Biztanleria eta Ezgaitasuna

1. BIZTANLERIA ETA EZGAITASUNA

Kapitulu honen xedea ez da ezgaitasunaren kontzeptua azaltzea, egoera horrek duen pisuaren benetako irudia ematea baizik; eta horretarako, eskura dauzkagun informazio-iturri eta kontzeptuen mugen barruan mugituko gara.

Irudi hori emateko, ezgaitutzat joko dugu %33ko edo gehiagoko minusbaliotasun maila onartua izanik potentzialki jardunerako adinean dagoena, hau da, 16 eta 64 urte bitartekoa dena. Aurreraxeago hezkuntza-sistemari buruz hitz egiten dugunean, analisia gazteagoengana ere luzatu beharko dugula ikusiko da.

Minusbaliotasun maila aztertzerakoan kontuan izan behar da minusbaliotasuna, azken finean, jatorria osasunean duen ezgaitasunaren eta hori duenak gizarteratzeko dauzkan arazo sozialen batuketaren emaitza edo batura dela. Aurkezpena egiterakoan adierazi dugu lan honen bidez ondorioztatu dugun definizioak aurretik eman direnak gainditzen dituela, baita minusbaliotasunaz eman ohi den definizioa ere. Alabaina, operatibotasunari begira, aukeratu beharra dago azterketa honen xedeko egoera zein definizioak mugatzen duen argien. Eta asmo horren atzetik, definiziorik “ofizial”ena aukeratu da, hau da, eskubideak ematen dituen eta estatistika konparatiboa ustiatzeko aukera ematen duena: minusbaliotasun maila %33tik gorakoa dutelarik, aldundien orientazio eta ebaluazio zerbitzuetan izena emandakoak direnak. Minusbaliotasun maila hori lan hau taxutu aurretik zegoen sailkapenak definituta dago; maila hori lehendik zehaztuta aurkitzea da, beraz, aurrean aipatu dugun informazio-iturrien eta kontzeptuen mugetako bat.

1.1. EZGAITASUNA DUEN BIZTANLERIAREN EZAUGARRIAK

Hona ekarri dugun biztanleriaren ezaugarriak jada aipatu dugun ezgaitasuna duen euskal biztanleriari buruzko azterlanean oinarritzen dira; lan horretako alderdirik garrantzitsuenak jaso ditugu.

1.1.1. Demografia-ezaugarriak

Biztanleria hori 51.840 lagun inguruk osatzen dute, hau da, aipatu dugun adin-tarte horretako euskal biztanleen %3,4. Kopuru horretatik 31.612 gizonezkoak dira eta 20.228 emakumeak.

Minusbaliotasun maila aztertzerakoan kontuan izan behar da minusbaliotasuna, azken finean, jatorria osasunean duen ezgaitasunaren eta hori duenak gizarteratzeko dauzkan arazo sozialen batuketaren emaitza edo batura dela

Gizon eta emakumeen arteko diferentzia hori, gainera, areagotu egiten da adinean aurrera egin ahala. Gizonezkoak baino emakumezko ezgaitu gehiago egotearen arrazoi izan daiteke, alde batetik, gizonak laneko ezbeharretarako arrisku handiagoa izatea, eta bestetik, ohiz emakumeek gizarteko baliabideetara iristeko aukera gutxiago izatea eta, ondorioz, gizonezkoek baino istripu eta ezbeharretarako arrisku gutxiago izatea.

4. taula. Pertsona ezgaituak adinaren arabera

	Pertsona ezgaituak	Ehuneko bertikalak
16-24 urte	2.160	4,2
25-34 urte	7.314	14,1
35-49 urte	18.170	35,0
50-64 urte	24.197	46,7
Guztira	51.840	100,0

Iturria: EAEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

Adinari dagokionez, EAEn ezgaitasuna duen biztanleriaren ezau-garria da populazio zaharkitua izatea; adin potentzialki aktiboan dauden pertsonen %46,7 50 urtetik gorakoak dira.

Ezgaitasuna, izatez, adinari lotuta dago. Bizitzaren zikloak aurre-ra egin ahala, geroz eta istripu eta gaixotasun gehiago ematen dira, eta osasunak ere oro har behera egiten du. Faktore horiek guztiak erabakigarriak gertatzen dira ezgaitasunaren datuak jasotzerakoan.

5. taula. Ezgaitasunaren nagusitasuna sexuaren eta adinaren arabera

	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira
16-24 urte	1,6	0,8	1,2
25-34 urte	2,5	2,0	2,2
35-49 urte	4,3	2,9	3,6
50-64 urte	7,2	4,3	5,8
Guztira	4,4	2,9	3,6

Iturria: EAEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

1.1.2. Familiaren osaera

Ezgaitasuna duen biztanleriaren bi heren seme-alabak dituzten edo ez dituzten familia-nukleoetan bizi dira. Horiez gain, badira gu-

Gizon eta emakumeen arteko diferentzia hori, gainera, areagotu egiten da adinean aurrera egin ahala. Gizonezkoak baino emakumezko ezgaitu gehiago egotearen arrazoi izan daiteke, alde batetik, gizonak laneko ezbeharretarako arrisku handiagoa izatea, eta bestetik, ohiz emakumeek gizarteko baliabideetara iristeko aukera gutxiago izatea

raso bakarrek nukleoak eta belaunaldi bat edo nukleo bat baino gehiagoz eratutako familiak; gainontzekoak guztira %14 inguru dira (gehienak bakarrik bizi direnak). Instituzioen babesari atxikitakoak %2,7 dira.

Egoera horiek guztiak biztanleria orokorrarekin alderatzen badiugu, ikusiko dugu ezgaitasuna duten pertsonen familia-eredua gaur egun hedatuen dagoen eredutik urrun daudela: bikote batez eratutako familiak, alegia. Bizitza independentea egiteko baliabiderik eza eta gaitasunak murriztuta edukitzea dira, hein handi batean eta lehen begiratu batean, pertsona ezgaitu askok familiarik ez eratzearen arrazoia.

1.1.3. Ezgaitasun mota eta maila

Ezgaitasun fisikoa agertzen da estatistiketan EAEko ezgaituen erdia baino gehiagorentzat. Datu horrek zerikusi handia dauka ezgaitasun-egoera gehienak gertatuak izatearekin, hots, jaiotzekoak ez izatearekin. Egoera hori biztanleriak oro har duen heziketa eta laneko prestakuntza maila bertuko pertsonen bizitzan zehar gerta daiteke. Neurri txikiago batean bada ere, beste horrenbeste esan daiteke zentzumenekoak deitzen zaien ezgaitasunekin ere: entzumen eta ikusmena.

6. taula. Ezgaitasunaren nagusitasuna sexuaren eta adinaren arabera

	16-24	25-34	35-49	50-64	Guztira
Adimen-ezgaitas.	4,2	6,8	6,5	3,8	5,5
Buruko gaixotas.	2,8	3,9	6,7	5,0	5,1
Ikusmen-ezgaitas.	1,1	1,2	2,7	5,3	2,9
Entzumen-ezgaitas.	0,4	1,4	2,0	4,4	2,4
Ezgaitasun fisikoa	3,7	9,0	17,9	39,2	20,4
Guztira	12,3	22,3	35,8	57,8	36,3

Iturria: EAE ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

Nagusitasuna areagotu egiten da adinak aurrera egin ahala, eta hori ezgaitasunaren ezaugarri orokorra da. Hori horrela gertatzen da, lehenago esan bezala, adin, osasuna gutxitze eta urritasuna elkarrekin lotuta doazelako. Adimen-ezgaitasuna dela esan daiteke arau hori betetzen ez duena, baita buruko gaixotasuna ere neurri apalagoan bada ere. Adimen-ezgaitasuna ia beti jaiotzekoak izateak urritasun hori ia gehienbat gazteengan agertzea eragiten du eta horien laneko, presta-

Bizitza independentea egiteko baliabiderik eza eta gaitasunak murriztuta edukitzea dira, hein handi batean eta lehen begiratu batean, pertsona ezgaitu askok familiarik ez eratzearen arrazoia

kuntzako eta esperientziako profila gainontzeko ezgaituenaz bestelakoa izatea. Bestalde, adimen-ezgaitasuna duten pertsonen bizi-itxaropena geroz eta handiagoa izateak premia berriak sortu ditu, eta horiek erronka berria dira era horretako pertsonentzat bideratzen diren baliabideak egokitzeko.

Ezberdintasun hori askoz ere nabarmenagoa gertatzen da bi adin-talde nagusienak alderatzen baditugu: 35 urtetik beherakoak eta 35 urtetik gorakoak. Hala, gazteenetan adimen-ezgaitasun nagusia gazte ezgaituen herena bada (%31,3), 35 urtetik gorakoetan, %11,5 da. Buruko gaixotasunak, bestalde, %18,8 dira 35 urtetik beherakoetan eta %13 adin horretatik gorakoetan.

Horren kontra, ezgaitasun fisikoak gorakada nabarmena erakusten du adinean aurrera egin ahala, eta hori da 50 urtetik gorako ezgaituen %67,9en ezgaitasun nagusia.

Adimen-ezgaitasuna ia beti jaiotzakoa izateak urritasun hori ia gehienbat gazteengan agertzea eragiten du eta horien laneko, prestakuntzako eta esperientziako profila gainontzeko ezgaituenaz bestelakoa izatea

7. taula. Ezgaitasun mota sexuaren eta adinaren arabera

	Sexua		Adina						
	Gizon.	Emak.	16-24	25-34	35-49	50-64	16-34	35-64	Guztira
Adimen-ezgaitas.	13,9	17,0	34,2	30,4	18,1	6,5	31,3	11,5	15,1
Buruko gaixotas.	14,2	13,9	22,9	17,6	18,7	8,7	18,8	13,0	14,1
Ikusmen-ezgaitas.	7,2	9,4	9,1	5,5	7,5	9,2	6,3	8,5	8,1
Entzumen-ezgaitas.	6,4	7,0	3,5	6,1	5,7	7,7	5,5	6,8	6,6
Ezgaitasun fisikoa	58,4	52,7	30,4	40,4	50,0	67,9	38,1	60,2	56,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEen ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006

Minusbaliotasun mailari dagokionez, Ezgaitasun, Urritasun eta Minusbaliatasunen Nazioarteko Sailkapenean definitzen denaren arabera, bi alderdiren batuketaz lortzen da: batetik pertsonak berak daukan ezgaitasuna; bestetik, faktore osagarri sozialak, hala nola, familiako eta laneko egoera, heziketa, kultura eta abar, horiek ere oztopo direlako ezgaituaren gizarteratze-bidean.

Minusbaliotasun mailaren continuumean —koaderno honetan 33tik 100 bitartera mugatu dugu—, pertsona ezgaituen gehiengoak %65etik beherako minusbaliotasuna dauka; laurden batek, ordea, %65 eta %74 bitartekoa; eta %16,5 dira bakarrik %75etik gorako minusbaliotasuna dutenak.

8. taula. Minusbaliotasun maila sexuaren eta adinaren arabera

	Sexua		Adina				
	Gizon.	Emak.	16-25	26-35	36-45	46-65	Total
%33-64	56,8	55,4	42,2	46,6	54,2	62,0	56,3
%65-74	27,0	27,7	29,5	34,2	27,8	24,6	27,3
%74tik gora	16,2	16,9	28,2	19,3	18,1	13,4	16,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEen ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

Sexuaren arabera ez da alde nabarmenik ikusten, baina bai, ordea, adinari begira, zeren jada adierazi denez ezgaitasunaren jatorriko urritasunak zirikusi handia dauka adinarekin.

Minusbaliotasun mailarik handienak adimen-ezgaitasuna eta buruko gaixotasuna dutenetan gertatzen da. Ikusmen-ezgaitasunak ere proportzio handiak erakusten ditu, %64tik gorako minusbaliotasun maila duten pertsonak, alegia.

9. taula. Minusbaliotasun maila ezgaitasunaren arabera

	%33-64	%65-74	%74tik gora	Guztira
Adimen-ezgaitas.	36,3	29,4	34,2	100,0
Buruko gaixotas.	29,1	63,5	7,3	100,0
Ikusmen-ezgaitas.	53,9	15,9	30,2	100,0
Entzumen-ezgaitas.	80,8	15,5	3,7	100,0
Ezgaitasun fisikoa	65,9	20,6	13,5	100,0
Guztira	56,3	27,3	16,5	100,0

Iturria: EAEen ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

1.1.4. Ezgaitasunaren jatorria

Kasuen %74an ezgaitasuna jauzitakoa da. Hori, lehen ere esan dugu, estu-estu lotuta dago ezgaitasun fisikoak daukan nagusitasunarekin. Kasu gehienetan 25 urtetik gora agertzen da. Datu hori, enpleguari buruzko egoera zehazten dugunean ikusiko dugunez, berebizikoa da, pertsona horiek ohiz badutelako laneko eskarmentu bat eta prestakuntza maila bat gainontzeko biztanleriaren parekoa.

Minusbaliotasun mailarik handienak adimen-ezgaitasuna eta buruko gaixotasuna dutenetan gertatzen da. Ikusmen-ezgaitasunak ere proportzio handiak erakusten ditu: %64tik gorako minusbaliotasun maila

Ezgaitasun jauzia edo gertatua gehiena da, batez ere ezgaitasun fisikoa eta buruko gaixotasunetan; ondoren datoz entzumen-ezgaitasuna eta ikusmen-ezgaitasuna. Ezgaitasun jauzia agertzen deneko batez besteko adina 30 urte ingurukoa izaten da. Ikusmen- eta entzumen-ezgaitasunak, hala nola, ezgaitasun fisikoa, adin handiagoe-tan agertzen dira

10. taula. Ezgaitasuna agertzen den adina

	0-16	16-24	25-34	35-49	50 eta gehiago	Guztira
Adimen-ezgaitas.	78,4	3,3	12,2	5,3	0,7	100,0
Buruko gaixotas.	19,0	32,9	27,3	16,3	4,5	100,0
Ikusmen-ezgaitas.	21,7	15,9	20,2	27,4	14,8	100,0
Entzumen-ezgaitas.	34,2	10,7	11,1	26,4	17,6	100,0
Ezgaitasun fisikoa	18,3	12,0	16,6	34,0	19,2	100,0
Guztira	22,1	15,2	18,1	29,0	15,6	100,0

Iturria: EAEEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

Azterlan askotan, agian azterketak erraztearren, albo batera uzten da pertsona-kopuru handi batek ezgaitasun bat baino gehiago edukitzea. Ohiz azterketa eta analisiak egiterakoan ezgaitasun nagusia izaten da kontuan, baina horrez gain pertsona askok bestelako ezgaitasunak ere izaten dituzte ezgaitasun nagusiarekin batera, eta horrek zaildu egiten du pertsona horien premiak eta diagnostikoak egitea. Koaderno honetan ere, arrazoi operatiboak tarteko, ezgaitasun nagusizat definitzen dena izango da kontuan. Edozein modutara, koaderno honetan ezgaituak ezgaitasun nagusiaz gain izan ditzakeen bestelako ezgaitasunak ere jasoko ditugu, laburbilduta bada ere.

Ezgaitasun jauzia edo gertatua gehiena da, batez ere ezgaitasun fisikoa eta buruko gaixotasunetan; ondoren datoz entzumen-ezgaitasuna eta ikusmen-ezgaitasuna

11. taula. Urritasun atxikien kopurua ezgaitasun nagusiaren arabera

	Bat ere	Bat	Bi	Hiru eta gehiago	Guztira
Adimen-ezgaitas.	31,1	30,1	18,1	20,6	100,0
Buruko gaixotas.	46,6	25,6	11,6	16,2	100,0
Ikusmen-ezgaitas.	49,9	29,5	14,5	6,2	100,0
Entzumen-ezgaitas.	45,8	31,9	14,3	7,9	100,0
Ezgaitasun fisikoa	52,7	28,9	12,6	5,8	100,0
Guztira	47,9	28,9	13,5	9,7	100,0

Iturria: EAEEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

Hala, azpimarratu behar dugu jarduneko adinean dauden pertsona ezgaituen erdiak baduela bestelako ezgaitasunen bat ere nagusitzat definitzen denaz gain. Egoera hori batez ere adimen-ezgaitasuna ezgaitasun nagusi bezala identifikatu denean gertatzen da. Ezgaitasun nagusia fisikoa denean, ordea, bakartzat definitzen da.

Azpimarratu behar dugu jarduneko adinean dauden pertsona ezgaituen erdiak baduela bestelako ezgaitasunen bat ere nagusitzat definitzen denaz gain I

2. Gaitasuna

2. GAITASUNA

Kapitulu honetan ezgaitasunen bat duten pertsonen potentzialtasuna eta eginkizunak benetan gauzatzeko gaitasuna areagotzen duten adierazle eta jardueretara hurbiltzeko ahalegin bat egingo dugu. Gaitasuna edukitzearen eta jardutearen arteko aldea zertan den bereiztea ez da beti gauza erraza izaten kontzeptuaren ikuspuntutik, eta are gutxiago baten zein bestearen adierazleak argi eta garbi bereiztea. Adibidez, zeinuen hizkuntza ikasteak gaitasuna areagotzen du, eta hizkuntza horretako itzultzaileak jardutea areagotzen du.

	Gizarte-laguntz. Etxebizitza	Hezkuntza	Lana
Gaitasuna	Prestakuntzarako programak	Hezkuntza eta profesionalen dibertsifikatzea Ezgaituen titulazioak	Prestakuntza eta eskaera

2.1. GIZARTE-ZERBITZUAK

2.1.1. Prestakuntzarako programak

Ohiz pertsonen gaitasuna areagotzeko eskuduntza osasun-sistemari dagokio. Beraz, ezgaitasunaren jatorria osasuna denean, osasun-sistema arduratzen da, batez ere errehabilitazioaren bidez, ezgaituaren gaitasuna areagotzeaz. Hala ere, gizarte-zerbitzuek ere, edozein delarik bere eskuduntza administratiboaren maila —erkidegokoa, lurraldekoa, tokikoa—, ezgaituen gaitasuna areagotzeko jarduerak antola ditzakete.

Jarduera horien adibidetzat aipa daiteke ikusmen-ezgaitasuna duen pertsona bat zakur gidari batekin elkartu eta ulertzeko programa. Beste adibide bat litzateke, halaber, lehentxeago aipatu dugun jarduera ere: zeinuen hizkuntza ikastea.

Gizarte-zerbitzuek, edozein delarik bere eskuduntza administratiboaren maila —erkidegokoa, lurraldekoa, tokikoa—, ezgaituen gaitasuna areagotzeko jarduerak antola ditzakete

2.2. HEZKUNTZA-SISTEMA

2.2.1. Hezkuntza eta profesionalen dibertsifikatzea

EAE guztian 3 urtetik 17 urte bitarteko 2.279 gazte ezgaitu daude erregistraturik (Martínez, González, Pisonero, 2004). Adin-tarte horretan gehien ematen den ezgaitasuna adimenekoa da. Beste datu adierazgarri bat da buruko gaixotasuna 200etik gora gazteei diagnostikatu zaiela, %10ari alegia.

Ezgaituek ikasten duten ikastetxeen titulartasunari dagokionez, ezberdintasunak daude gainontzeko ikasleen eta ezgaitasuna dutenen

artean, azken horiek gehienbat hezkuntza publikoko eredueta delako, batez ere Araban. Hizkuntza erduei dagokienez ere badira aldeak, A erdua delako (ikasketak gaztelaniaz eta euskara irakasgai) ezgaitasuna duten ikasle gehien hartzen duena.

Datu horiek ikusita, badirudi uste dela ezgaitasuna duen gazteak hobe dela, printzipioz, hain zorrotza ez den hezkuntza erduan matrikulatu. Hori horrela gertatzearen beste arrazoi bat izan daiteke, eredu pribatuak ahalegin handiagoak egin behar izatea beren ikasgeletan ikasle ezgaituak hartu ahal izateko. Egia esan, joera bertsua ikusten da bazterketa-arriskuan dauden bestelako egoeretan ere, hala nola, immigranteen seme-alabei dagokienez.

Hezkuntza-sistema garrantzitsua da oso, pertsonen gaitasuna areagotzeko funtsezko faktorea delako. Garrantzi hori kontuan izanik, gaur egun ahalegin bereziak egiten dira profesional talde handi, berri eta askotarikoa handitzeko, eta orain arte inoiz ezagutu ez diren curriculum profesionalak erakartzeko. Irakasle horiek guztiak areagotu egiten dituzte ikasleen gaitasunak; heziketan laguntzeko espezialistek eta zeinuen hizkuntzako interpretariak jarduteko gaitasunaren ikuspuntua lantzen dute; eta, gizarte-laguntzaileak eta arlo honi lotutako profesionalak gehitzen diren heinean, hezkuntza-sistema ere ekosistema parte hartzen arituko da. Alabaina, irakasle horiek guztiak kapitulu honetan aipatu badira, hezkuntza-sistemaren eginkizun nagusia pertsonen gaitasuna areagotzea delako izan da. Eremu berezi bakoitzean espezialista jakin bat dago (Arartekoa eta Datlan, 2001):

- “Irakasleria aholkulariak tutorea aholkatzen du, ikasgelan laguntzen, ikaslearekin era berezian esku hartzen du eta premia berezi bakoitzarekin zerikusi duten programak eta kanpoko laguntzak koordinatzen ditu.
- Pedagogia terapeutikoko irakasleriak ikasleekin esku hartzen du ikasgela arruntean eta laguntza-ikasgelan, eta irakasleekin eta era askotako profesionalen taldean laguntzen du.
- Entzumen eta hizkerako irakasleriak bere arloko programak garatzen eta gauzatzen ditu eta irakasleriarekin eta era askotako profesionalen taldean laguntzen du”.

Pertsonal ibiltariari dagokionez, horiek terapeuta okupazionalak, entzumen- eta hizkera-irakasleak, logopedak, hezkuntza-laguntzarako teknikariak, fisioterapeutak eta ikusmen-eskasia duten pertsonentzako irakasleak izaten dira. Bestalde, profesio askotako taldeek beste agente batzuekin koordinatzea bideratzen dute eta aldi berean familiak orientatzeko ere laguntzen dute.

Gaur egun ahalegin bereziak egiten dira profesional talde handi, berri eta askotarikoa handitzeko, eta orain arte inoiz ezagutu ez diren curriculum profesionalak erakartzeko

Azken batean, programek hezkuntza berezia eskatzen duen premia bakoitzera egokitzeko ahalegina egiten dute. Programa horiek berriro formulatu ziren otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuan; dekretu horren bidez sortu ziren, hain zuzen, Berritzeguneak, hots, Hezkuntzaren Prestakuntza eta Berrikuntzarako Zentroak. Honakoa da zentro horietako pertsonala:

- Hezkuntza berezietako premien aholkularia. Garapeneko nahas-
mendu arruntak.
- Hezkuntza berezietako premien aholkularia. Ikaste-gaitasunen
garapena.
- Hezkuntza berezietako premien aholkularia. Gizarteratzea.
- Hezkuntza berezietako premien aholkularia. Komunikazioaren
irisgarritasuna eta garapena.

2.2.2. Pertsona ezgaituen titulazioa

Hezkuntza sistemaren esku-hartzea titulu batean amaitzen da. Horixe da hezkuntzaren xedea, balioak irakasteaz gain. Titulazioa pertsonen gaitasunaren neurria edo adierazlea da, izatez, lan merkatuarentzat titulazioa da langileen gaitasuna neurtzeko erreferentzia nagusia.

Biztanleria ezgaituaren titulazioaren analisiak —2006an egindako ikerlanetik (EAEn ezgaitasuna duten pertsonen egoera erreala empleguarekiko) ateratakoa, eta ondorioz laneko adinean dauden ezgaituetan zentratua— Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria osoaren titulazioarekin konparazioa egitea eskatzen du. Lehen mailako ikasketetan dago, hain zuzen, diferentziarik handiena. Ia-ia biztanleria ezgaituaren erdia ikasketa maila horretan dago; lehen mailako ikasketak egin dituen gainontzeko biztanleriaren proportzioa hamarretik hirura baino gehiagora jaisten da.

Bestalde, bigarren mailako ikasketek dagokienez, diferentziak ez dira lehen mailako hezkuntzan ematen diren diferentziak bezain nabarmenak. Ezgaitasuna duten pertsonen hezkuntza maila pixka bat beheraxeago dago lanbide hezkuntzari dagokionez, eta oso antzekoa lanbide hezkuntzako ez den bigarren mailako ikasketetan. Datu hori esanguratsua da oso, batez ere langabetuei dagokienez. Horiei buruz gehiago sakonduko dugu lanaren eremuko datuak aztertuko ditugun kapituluan.

Mailarik altuenean, goi mailako hezkuntzan, alegia, nabarmena da berriro bi biztanlerien arteko diferentzia. Pertsona ezgaituen %14k goi mailako ikasketak egin ditu; gainontzeko biztanleriaren %19,7k egin ditu, ordea, goi mailako ikasketak.

Ia-ia biztanleria ezgaituaren erdia lehen mailako ikasketetan dago; lehen mailako ikasketak egin dituen gainontzeko biztanleriaren proportzioa hamarretik hirura baino gehiagora jaisten da

12. taula. Biztanleria ezgaituak lortutako prestakuntza maila eta biztanleria orokorra- rena sexuaren eta adinaren arabera

			Analfabe- toak	Ikasketarik gabe	Lehen maila	Lanbide hez- kuntza	Lanbidekoa ez den biga- rren maila	Goi maila	Guztira
Biztanleria ezgaitua	Sexua	Gizonez.	7,4	2,2	48,5	18,2	13,2	10,6	100,0
		Emaku.	9,3	3,0	49,9	14,2	11,0	12,7	100,0
	Adina	16-24	15,4	5,6	26,8	14,8	28,5	8,9	100,0
		25-34	9,8	4,0	43,6	19,3	10,7	12,5	100,0
		35-49	11,2	1,1	42,9	19,9	13,5	11,5	100,0
		50-64	4,6	2,8	57,3	13,5	10,5	11,2	100,0
		Guztira	8,1	2,5	49,0	16,6	12,4	11,4	100,0
Biztanleria oro har	Sexua	Gizonez.	0,4	17,8	28,1	22,6	13,0	18,0	100,0
		Emaku.	0,6	20,1	28,9	15,9	13,0	21,5	100,0
	Adina	16-24	0,3	8,3	28,4	20,8	28,4	13,8	100,0
		25-34	0,4	7,0	21,2	28,2	11,7	31,5	100,0
		35-49	0,4	12,4	29,1	21,9	11,8	24,4	100,0
		50-64	0,8	36,2	33,1	10,9	7,5	11,5	100,0
		Guztira	0,5	19,0	28,5	19,3	13,0	19,7	100,0

Iturriak: EAEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006 eta Biztanleriaren eta Etxebizitzaren errolda, 2001 INE.

Ezgaitasun motari begiratu ez da alde handirik ikusten, salbu, jakina, adimen-ezgaitasuna duten pertsonen dagokienez. Era horretako ezgaituen analfabetismo-tasa %42,7koa da, eta ia-ia erdiek ez du lehen

13. taula. Lortutako hezkuntza ezgaitasun motaren arabera

	Analfabe-toak	Ikasketarik gabe	Lehen maila	Lanbide hez- kuntza	Lanbidekoa ez den biga- rren maila	Goi maila	Guztira
Adimen- ezgaitas	42,6	5,1	43,5	3,0	5,8	0,0	100,0
Buruko gaixotas.	2,3	2,0	50,4	19,1	16,0	10,1	100,0
Ikusmen- ezgaitas.	2,1	2,9	51,7	15,3	14,6	13,5	100,0
Entzumen- ezgaitas.	1,5	1,9	53,2	18,4	11,0	14,0	100,0
Ezgaitasun fisikoa	1,9	2,0	49,3	19,6	13,0	14,1	100,0
Guztira	8,1	2,5	49,0	16,6	12,4	11,4	100,0

Iturria: EAEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

mailatik gorako ikasketarik egin. %9 inguru dira lanbide-hezkuntza edo bigarren mailako ikasketak egin dituzten adimen ezgaituak.

Adimen-ezgaitasunari buruz esandakoa salbuetsirik, kontuan izan behar da asko direla ezgaitasuna heldutasunean hartu dutenak, hau da, hezkuntzaren etapa bukatu eta gero hartu dutenak. Ezgaitasuna duten pertsona askok, beraz, estatistikei dagokienez, ez dute diferentziarik prestakuntzaren arloan gainontzeko biztanleriarekin.

Ezgaitasuna duten pertsonak Lanbide Hezkuntzaren Sistemaren parte-hartzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako datuen arabera, Lanbide Hezkuntzaren azpisisteman ari diren gazte ezgaituak %3tik behera dabilta. Erdi eta goi mailako Lanbide Hezkuntzan ikasten ari direnetan, gehien ematen diren ezgaitasunak dira entzumenekoak, motorrekoak eta psikikoak.

Lehen eta bigarren mailako hezkuntzan, ordea, ikasle ezgaituen proportzioa EAEko guztien %3,8-4,4 bitartean dabil. Goiko etapetan, Batxilergoan zein Lanbide Heziketan, proportzio horrek behera egiten du argi eta garbi, eta askoz ere handiagoa da integratu gabeko ikasleriaren parte-hartzea Eginkizunak ikasteko ikasgelen edo Hezkuntza bereziaren bidez.

Sare publikoko lanbide hezkuntzako zentroetako irisgarritasunari dagokionez, uste da nahiko aurreratua dagoela. Nolanahi ere, garatuz joan beharreko eremua da hori ere.

2.3. ENPLEGUAREN ARLOA

2.3.1. Prestakuntza eta eskaria

Ezgaitasuna duten pertsona langabetuek, oro har, gainontzeko populazioarekiko erakusten duten hezkuntza edo prestakuntza “defizit”ak ñabardura batzuk egitea eskatzen du, enpleguari buruz hitz egiten hasi aurretik; kontuan izan behar da pertsona ezgaitu asko ere asko direla langabezian daudenak, beren hezkuntza edo prestakuntza maila erdikoa edo goikoa denean.

Izatez, lan-merkatu arruntean ezgaitasuna duten pertsonak gainontzeko biztanleek baino askoz ere aukera gutxiago dute beren ikasketetan lortutako kualifikazioaz lan egiteko. Alabaina, lan-merkatu babestuan, beheko mailako kualifikazioa dutenak dira aukera gehien dutenak, batez ere adimen-ezgaitasuna dutenen artean.

Adimen-ezgaitasuna duten pertsonak eta enplegu-zentro bereziek duten eragin “desitxuratzaille”a albo batera utziz, ezgaitasu-

Ezgaitasuna duten pertsona askok, beraz, estatistikei dagokienez, ez dute diferentziarik prestakuntzaren arloan gainontzeko biztanleriarekin

na duten pertsona asko dira lanbide-heziketa egin dutelarik lanik aurkitzen ez dutenak, paradoxikoa bada ere, kualifikazio hori duen eskulana bilatzen ari den merkatuan. Lanik aurkitzen ez duten pertsona ezgaituek, printzipioz, badute kualifikazio maila bat enpresen eskarietara doitu, batez ere industria-enpresen eskarietara. Baina gaitasuna badute ere, ez dute lanposturik lortzen. Zer dela eta?

Erantzuna, jakina, oso konplexua da. Kualifikazioaz hitz egitea ez da gaitasunaz eta trebetasunaz hitz egitea. Enpresek ohiz tituluak bermatzen duen gaitasunaz haraindi dauden beste gaitasun batzuk eskatzen dituzte. Koaderno hau egituratu duen eredu teorikoa jarraituz, kontu honetan eragina duen beste alderdi batek, seguru asko, badu zeri zuzen zeregina betetzeko gaitasunarekin edo benetako inguru batean eginkizunak garatzeko gaitasunarekin, eta guri dagokigunez benetako inguru hori lan-merkatua eta lanpostuak dira. Gaitasuna eduki daiteke baina ez da nahikoa gizartearen funtzionamendurako, beste alderdi batzuk huts egiten badute: gauzak egitea zaildu edo ezinezko bihurtzeko dezaketena oztopoak egon daitezke; gerta daiteke eginbeharrak betetzeko baliabiderik ez egotea, hala nola, laguntzak teknikorik ez egotea; edota gerta daiteke ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke aurreiritziak egotea.

Lan-merkatu babestuan, beheko mailako kualifikazioa dutenak dira aukera gehien dutenak, batez ere adimen-ezgaitasuna dutenen artean

14. taula. Ezgaitasuna duten pertsonak, ezgaitasunaren eta ikasketaren arabera

	Fisikoa			Adimena	Zentzumena	Guztira gizonak	Guztira emakum.	Guztira
	Motorra	Nerbioak	Gaixotasuna					
	3,6	2,2	2,2	1,1	2,8	2,1	3,2	2,5
Lehen mailakoaren antzekoa dena gutxiago dena	52,7	52,3	55,3	66,6	47,8	56,3	51,8	54,7
Batxilergoa	6,9	7,5	10,2	10,0	8,3	8,5	8,4	8,5
Lanbide-hezkuntza	32,5	25,9	26,4	18,4	29,2	26,8	28,0	27,2
Unibertsitatea	7,9	14,3	8,1	5,0	14,7	8,5	11,8	9,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: INEM, Egailan SSk egina. Lan Merkatuaren Behatokia, 2006.

Prestakuntza okupazionalari dagokionez, ez daukagu daturik prestakuntza hori egin dutenei buruz. Daukagun informazio bakarrak urte

bakoitzean arlo eta ikastaro desberdinetan ikasi duten pertsonen kopuruari buruzko aipamena egiten du. Beraz, datu orokorretan oinarrituz, ikusi behar da ezgaitasuna duten pertsonak zein mailatan ari diren prestakuntza mota honetara gehitzen. Hala, Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzaren Sailak finantzaturako (1.300.000 € 2004-2006 bitartekoan) prestakuntzari dagokionez esan daiteke, 650 pertsona ez gaituek hartu dutela parte prestakuntza-ekimenetan. Progresioa areagotzen ari da eta 2006. urtean hirukoiztu egin zen, 2004koari dagokionez, partaide-kopurua.

Emakumeak ikasleria osoaren %37 dira, ezgaitasunaren eremuan duten presentzia txikiagoko joerari jarraituz, eta baita ere enplegu mailan ikusten denari jarraituz. Pertsona ezgaitu gehienek aukeratzen duten ikasketa arloari dagokionez, fabrikazio mekanikoa da gehien aukeratua. Atzetik datoz, urruti bada ere, beste sail batzuk, hala nola: abelazkuntza, merkataritza, kontsumoa, garraioak eta zerbitzu sozio-pertsonalak eta komunitatekoak.

Foru aldundiek eta udalek arlo honetan izaten duten esku-hartzeak gizarte-ekimeneko entitateen partaidetza eta esperientzia izaten dute kudeatzeko. Esku-hartze horiek, hein handi batean, enplegu eta prestakuntza sustatzeko programen barruan sartzen dira, eta horiek zaugarritasun edota bazterketa arriskuan dauden pertsonentzat izaten dira.

Azkenik, adierazi behar dugu prestakuntza jarraituaren arloan egiten diren ohiko analisietan ez dela sartzen ezgaitasunaren aldagarria; bai, ordea, bestelako batzuk, hala nola, sexua, adin tartea, kualifikazio maila eta enpresaren tamaina, nahiz eta kolektibo honi lehentasuna zor zaion EGIFen (Europako Gizarte Funtsa) irizpideen arabera. Beraz, arlo honi buruzko diagnostikoa egitea ezinezkoa gertatzen da.

Gaitasuna eduki daiteke baina ez da nahikoa gizartearen funtzionamendurako, beste alderdi batzuk huts egiten badute: gauzak egitea zaildu edo ezinezko bihurtzeko oztopoak egon daitezke; gerta daiteke eginbeharrak betetzeko baliabiderik ez egotea, hala nola, laguntzak teknikorik ez egotea; edota gerta daiteke ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke aurreiritziak egotea

3. Eginkizunak betetzea

3. EGINKIZUNAK BETETZEA

Ezgaitasuna duen pertsonak bere inguru errealarekin duen harremana eta bere gaitasunak zein mailatan gara ditzakeen aztertzea dira atal honen xede nagusia, baita oztopoak zein mailatan gaindi ditzaketen jakitea ere.

	Gizarte-laguntzak / Etxebizitza	Hezkuntza	Lana
Eginkizunak betetzea	<p>Eginkizunak betetzea ezgaitasuna duen pertsonarekiko</p> <p>Eginkizunak betetzea zaintzaile nagusien gaitasunarekiko</p>	Laguntza teknikoak eta hezkuntza-laguntzako espezialistak	<p>Lanerako informazioa eta orientazioa</p> <p>Lanerako bitartekaritza espezializatua</p> <p>Laneko eta familiako erantzukizunaren kontziliazioa</p> <p>Lanposturako egokitzapenak eta laguntza teknikoak</p>

3.1. GIZARTE-ZERBITZUAK

Aurreko kapituluan ezgaitasuna duten pertsonen gaitasun mailak zehaztu ditugu erlatiboki, hainbat adierazleren bidez. Oraingo atal honetan gizarte-zerbitzuek pertsona horien funtzionamendua areagotzeko izango duten esku-hartzea zehaztuko dugu. Gizarte-zerbitzuen esku-hartze hori ezgaituek beren eginkizunak betetzeko gaitasuna areagotzera zentratuko da bi esku-hartze motaren bidez: bata, ezgaitasuna duten pertsoneri begira, eta bestea, horien zaintzaileei begira.

3.1.1. Eginkizuna betetzea pertsona ezgaituarekiko

Ezgaitasuna duten pertsonak bere inguru sozio-komunitarioan integratzeko aukera areagotzeko xedez, gizarte-zerbitzuen sistemak ematen dituen laguntzak, batez ere etxebizitzaren barruko irisgarritasuna hobetzeko, etxeko zereginetan laguntzeko, teleasistentzia zerbitzua jasotzeko edota mugikortasuna areagotzeko eta autonomia maila hobetzeko izaten dira.

Etxebizitzaren barruan, irisgarritasuna areagotzeko laguntzetan sartzen da bainu-gelak egokitzea eta, oro har, etxeko hainbat elementutara hobeto iristeko egin behar izaten diren obrak. Era horretako laguntzak emateko gaur egun erabiltzen diren irizpideek kontuan izaten dituzte laguntza eskatu duenaren minusbaliotasun maila onartua, mugikortasun baremo jakina eta baldintza ekonomikoak.

Gizarte-zerbitzuen esku-hartze hori ezgaituek beren eginkizunak betetzeko gaitasuna areagotzera zentratuko da bi esku-hartze motaren bidez: bata, ezgaitasuna duten pertsoneri begira, eta bestea, horien zaintzaileei begira

Ezgaitasuna duten pertsonak bere inguru sozio-komunitarioan integratzeko aukera areagotzeko xedez, gizarte-zerbitzuen sistemak ematen dituen laguntzak, batez ere etxebizitzaren barruko irisgarritasuna hobetzeko, etxeko zereginetan laguntzeko, teleasistentzia zerbitzua jasotzeko edota mugikortasuna areagotzeko eta autonomia maila hobetzeko izaten dira.

Etxebizitzaren barruan, irisgarritasuna areagotzeko laguntzetan sartzen da bainu-gelak egokitzea eta, oro har, etxeko hainbat elementutara hobeto iristeko egin behar izaten diren obrak. Era horretako laguntzak emateko gaur egun erabiltzen diren irizpideek kontuan izaten dituzte laguntza eskatu duenaren minusbaliotasun maila onartua, mugikortasun baremo jakina eta baldintza ekonomikoak.

Etxeko laguntzaren garrantzia ezinbestekoa da, pertsonak bere inguruan jarraitu ahal izatea bermatzen duelako, hau da, bakartu gabe eta, ondorioz, gizartean integratzen eta beren ohiko eginkizunak egiten lagunduz. Teleasistentzia, halaber, teknologia berriei esker sortu den zerbitzua da, eta horri esker laguntza premia handia duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko beste aukera bat sortu da.

Nolanahi ere, aurrean aipatu ditugun laguntza horiek ez daude adinduen eremuan bezain hedatuak ezgaitasuna duten pertsonen sektorean. Laguntza horiek adinduekin duten zerikusi estua, batez ere ezgaitasun fisiko gehienak eratorritakoak izatea da eta familia ere, laguntza naturaleko sare nagusia, ahulduz doala denbora igaro ahala.

Metodologiari tarte bat eginez, aipatu behar da ezgaitasuna duten pertsonen ematen zaien laguntza motor elektrikodun gurpil-aulkia erosteko (Martínez, González, Pisonero, 2004). Adibide horrekin ikusten denez, eginkizuna betetzeko gaitasuna areagotzeko, administrazioak tramankulu horren erabilera berariaz erabiltzeko gaitasunarekin baino ez du erlazionatzen, eta ezgaitasun egoera aztertzerakoan ez ditu kontuan hartzen lan honen ardatz nagusia gorpuzten duten beste aldagai batzuk, adibidez: ezgaituak bere inguruarekin duen harremana. Faktore horiek kontuan hartzen ez badira, gerta daiteke pertsona batek gaitasuna izatea gurpil-aulki elektriko bat gidatzeko, baina horrek aulkia ezin erabili izatea igogailuan sartzen ez delako edota igogailurik ez duelako. Aulki horiek ondo gidatzen ikasteko programarik ez egotea gaintitu beharra dago, baita horietan berrikuntza teknologikoak aplikatzeko modua ere; kontuan izan behar dira, berebat, aurreikuspen eta segurtasun-sistemak garatzeko programak.

Ondorio gisa, esan daiteke finantziario emateko erabiltzen diren irizpideak kontzepzio medikuan oinarritzen direla, eta hori gaur egun Munduko Osasun Erakundeak proposatzen duenaz gaintuta dagoela, horrek testuingurua ere ezgaitasunarekin zerikusi duen faktoretzat hartzen duelako. Eta horixe da, hain zuzen, dokumentu honetan jakitera eman nahi duguna

Beraz, eta ondorio gisa, esan daiteke finantziazioa emateko erabiltzen diren irizpideak kontzepzio medikuan oinarritzen direla, eta hori gaur egun Munduko Osasun Erakundeak proposatzen duenaz gaindituta dagoela, horrek testuingurua ere ezgaitasunarekin zerikusi duen faktoretzat hartzen duelako. Eta horixe da, hain zuzen, dokumentu honetan jakitera eman nahi duguna.

3.1.2. Eginkizunak betetzea zaintzaile nagusien gaitasunarekiko

Zaintzaileen gaitasuna izatez mugatua da, nahiz eta beraiengan oinarritu, batez ere sare informalekoak direnengan, ia oso-osorik eta berariaz mendekotasuna duten pertsonen arreta. Gertakizun hori utzi zuen agerian mendekotasunaren liburu zuriak (Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, 2004), eta horren ondoren etorri zen abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendetasun egoeran dauden pertsonen gaitasun pertsonala areagotzeari eta horiei zor zaien arretari buruzkoak —Mendetasunaren Legea—. Hala, horretan esaten denez, “mendetasun egoeran dauden pertsonen gaitasun pertsonala areagotzearen eta horiei zor zaien arretaren arloan herritarrek duten eskubide subjektiboa betetzeko eginkizunean, berdintasuna bermatuko duten oinarritzko baldintzak arautzea, betiere legeetan ezarritako terminoen arabera. Horretarako, herri-administrazio guztien lankidetzeta eta partaidetzarekin, eta Estatuko Administrazio Nagusiaren bermearekin, Mendekotasunaren Autonomia eta Arretarako Sistema bat sortuko da, gutxiengo eduki komun bat izango duena, herritar guztientzako eta Espainiako Estatuaren edozein lekutarako”.

Egia esan, beti egon da Ongizate Estatuaren krisia etorriko denaren beldurra; batez ere biztanleriaren piramidea inbertituko denaren susmoak eta erretiroa hartu duten belaunaldiak areagotuko direnaren iragarpenak eraginda. Alabaina, krisia benetan beste alde batetik etor daiteke: arreta faltagatik (Bazo, 2004), alegia, familia tradizionalaren presentzia txikiagotik, emakumea lan-merkatura masiboki gehitzearekin eta familia-eredu berrien hedapenarekin. Gaur egun familia-eredu asko daude gizartean: batzuentzat familiaren eginkizunak gizarte-laguntzako funtzio bat betetzen du; beste batzuentzat, familia produkzio eta kontsumoaren motorra da. Egoera horretan, instituzioei hezitzaile eta zaintzaile eginkizuna dagokie.

Mendetasun egoeran dauden pertsonen gaitasun pertsonala areagotzeari eta horiei zor zaien arretari buruzko Legeak ez luke legiti-matu behar prestazio-sistema bat, mendekotasunaren laguntza familiarengan uzten duena; baina Ezgaitasuna duten Pertsonentzako II.

Gaur egun familia-eredu asko daude gizartean: batzuentzat familiaren eginkizunak gizarte-laguntzako funtzio bat betetzen du; beste batzuentzat, familia produkzio eta kontsumoaren motorra da. Egoera horretan, instituzioei hezitzaile eta zaintzaile eginkizuna dagokie

15. taula. Mendetasunaren Legeko terminologia

Gaitasuna	Arauekin bat bizitzeko moduari buruz eta nork bere lehentasunen arabera bizitzeari buruz, edota eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak garatzeko moduari buruzko erabaki pertsonalak hartu, kontrolatu eta aurre egiteko gaitasuna.
Mendetasuna	Adinaren, gaixotasunaren edo ezgaitasunaren ondorioz pertsona batzuek betiko bizi duten egoera. Gaitasun fisiko, adimeneko edo zentzumeneko galerari loturiko egoera horretan bizi diren pertsonak beste pertsona baten edo batzuen arreta edo laguntza garrantzitsua behar izaten dute eguneroko oinarrizko gauzak egiteko, eta adimen-ezgaitasuna edo buruko gaixotasuna dutenen kasuan, bestelako laguntza mota batzuk ere bai, beren autonomia pertsonalerako.
Eguneroko Bizitzako Oinarrizko Jarduerak (EBOJ)	Pertsonaren oinarri-oinarrizko eginkizunak, horien bidez autonomia eta independentzia minimoa bat edukitzeko aukera ematen diotenak, hala nola: nork bere burua gobernatzea, etxeko funtsezko lanak egitea, pertsonak eta gauzak ezagutzea, orientatzea, agindu eta eginkizun errazak bete ahal izatea.
Autonomia pertsonalean laguntzeko premiak	Adimen-ezgaitasuna edo buruko gaixotasuna duten pertsonak behar dutena, maila asegarrian autonomia pertsonala betetzeko gizartearen barruan.
Profesionalak ez diren zainketak	Beren etxean mendetasun egoeran daudenek jasotzen duten arreta, eta hori familiakoek edota beren ingurukoek ematen dietenean, betiere laguntza hori ematen dutenak ez dutenean zerikusi arreta profesionaleko zerbitzuarekin.
Zainketa profesionalak	Instituzio publikoak edo irabazi asmoko edo gabeko erakunde batek edo profesional autonomo batek ematen duena, horien xedekoa baldin bada zerbitzua ematea mendetasun egoeran dagoenari, dela etxean bertan edo zentro batean.
Asistentzia pertsonala	Asistente pertsonal batek emandako zerbitzua, mendetasun egoeran dagoen pertsona baten eguneroko eginkizunak egiten edo horri laguntzen, horren bizitza independentea areagotzeko eta bere autonomia pertsonala sustatu eta indartzeko.
Hirugarren sektorea	Hirugarren sektorea Herritarren edo gizartearen ekimenez sortutako izaera pribatuko erakundeak. Horiek era askotakoak izan ohi dira, elkartasun-irizpideetan oinarritzen dira, eta herriaren intereseko xedea dutelarik, ez dute irabazi asmorik izaten eta eskubide sozialak onartu eta betearaztea dute helburu.

Jarduera Planetik horixe ondoriozta daiteke, horko 13. estrategian familiei laguntzeko neurriak deskribatzen baitira, betiere familia horiek mendekotasuna duten adinduak etxean dituztenean.

Administrazioen —Estatua, EAE, lurralde historikoak eta udalak— eskuduntzei buruzko eztabaidak edota horiei dagozkien finantzazioari buruz sortutakoak edota mendetasuna neurtzeko baremo —MNB— eta mailei dagokienean sortutakoak alde batera utziz, Mendetasunaren Legeak inflexio puntu bat piztu du, zaintzaile nagusiak izan behar direnak finkatzeko arloan, eta koaderno honetako eredu kontzeptualaren arabera, hori apustu bat da ezgaitasuna dutenen eginkizunak betetzeko gaitasuna indartzearen alde eta gizartearen barruan funtzionatu ahal izatearen alde.

Legeak bere egiten ditu FNSko kontzeptuak eta terminologia bat garatzen du jarraitutako eskemako ildo batzuekin erraz identifikatzeko modukoa: funtzioak, gaitasuna, eginkizunak betetzeko gaitasuna, ekosistemako funtzionamendua eta makrosistema.

3.2. DIRU-SARRERA PERTSONALAK

Ez dago zalantzarik kapitala, kontsumoa eta aisialdia nagusi diren gizartean norberaren autonomia hein handi batean independentzia ekonomikoari lotuta doala. Askotan inguru erreala, bertan mugitzeko daukagun diruak zehazten du; eta dirua da, ondorioz, eginkizunak betetzeko gaitasuna mugatzen duena ere. Diruak agintzen du, beraz, inguru uniforme batean gaitasunak betetzeko aukera daukagun edo ez, betiere testuinguruak jarduerak oztopatzen ez dituenean.

Azken datuen arabera, EAEn gutxi gorabehera ezgaitasuna duten pertsonen erdia independentea da ekonomikoki. Beste erdia, bitan banatzen da: partzialki beste norbaiten laguntza behar dutenak eta erabat besteen menpean daudenak.

Independentea izatearen profileen sartzen diren pertsonak ohiz erretiroko pentsioa, ezgaitasun-pentsioa eta, argi dagoenez, laneko saria jasotzen dutenak dira. Bestalde, diru-sarrerarik ez duten pertsonak kontuan izan gabe, mendetasun handiena, beren ezgaitasuna dela-eta instituzioen laguntza jasotzen duten pertsonena da, zentro okupazionaletan parte hartzeko laguntza dutenena, langabeziako diru-laguntza eta Gizarte Segurantzaren bidezko bestelako laguntzaren bat jasotzen dutenena.

Independentzia ekonomikoak argi eta garbi genero-osagai bat du. Gizonezkoen ia bi herenak erabat independenteak dira, baina proportzio hori bestelakoa da emakumeei dagokienez; horien independentzia ekonomikoa heren batengana baino ez baita iristen. Adinari

Sarritan, zaintzaile nagusien gaitasuna lepo-lepo eginda dago eta horregatik, hain zuzen, sortu ziren ordezkio laguntza puntualeko zerbitzuak edota "arnasaldi zerbitzuak"

16. taula. Independentzia ekonomikoaren maila, diru-sarreraren arabera

	Independen- tea	Partzialki mendekoa	Erabat mendekoa	Guztira
Diru-sarrera propiorik gabe	0,1	0,3	99,4	100,0
Lanaren bidezkoak	74,8	21,1	4,2	100,0
Langabeziako diru-laguntza	50,6	44,8	4,5	100,0
Ezintasun-pentsioa	73,1	21,3	5,7	100,0
Erretiro-pentsioa	94,3	3,7	2,0	100,0
Bestelako pentsioak Giz. Seg.	52,2	31,8	16,1	100,0
MGL/ KGP	25,3	39,8	34,9	100,0
Oinarrizko errenta	75,6	15,1	9,3	100,0
Elikagaietarako pentsioa	49,0	33,9	17,1	100,0
Bestelakoak	44,9	30,5	24,7	100,0
Guztira	53,2	22,6	24,1	100,0

Iturria: EAEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

dagokionez, gainontzeko biztanleekin gertatzen den bezala, gazteriak mendetasun ekonomiko handiagoa izan ohi du.

17. taula. Independentzia ekonomikoa sexuaren eta adinaren arabera

	Sexu		Adina				Guztira
	Gizon	Emak	16-25	26-35	36-45	46-65	
Independentea	63,8	36,8	11,0	28,3	49,5	67,4	53,2
Partzialki mendekoa	20,9	25,3	18,4	35,0	27,5	15,6	22,6
Erabateko mendekoa	15,3	37,9	70,6	36,7	23,0	17,0	24,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

3.3. HEZKUNTZA-SISTEMA

3.3.1. Laguntza teknikoak eta hezkuntzan laguntzeko espezialistak

Aurreko lerroetan ikusi dugunez, hezkuntza-sisteman esku hartzeko ildo nagusia ikasleen gaitasuna areagotzera bideratzen da.

Independentzia
ekonomikoak argi eta
garbi genero-osagai
bat du

Baina, inguru honetan laguntza teknikoak ezartzea ezgaitasuna duten pertsonen eginkizunak betetzeko gaitasuna areagotzea beste da. Era honetako laguntzen aukerak hasiz doaz garapen teknologikoarekin batera, eta ondorioz, esku hartzeko estrategiak teknologia-ren bilakaera horrek eskaintzen dituen abantailak aprobetxatzera bideratu beharko lirateke.

Bestalde, gizartearen “customizazio”ak badu isla norbanako arretaren arloan eta arreta pertsonalean. Hezkuntzaren mailan, horrek esan nahi du laguntza teknikoak areagotu egin behar direla, bereziki adingabe bakoitzak eginkizunak betetzeko gaitasuna areagotu dezan; eta laguntza tekniko horiek areagotu egin behar dira ikuspuntu materialetik eta giza baliabideen aldetik begiratuta, hala nola, laneko terapeutak gehituz.

Teknologia berriek egin dezaketen ekarpenaren adibide on bat komunikazio alternatiboaren arloan ematen da. Jakina da komunikazioa giza izaerari berezkoa zaion gaitasunik handienetakoa dela, ondorioz lehenetsuneko da komunikazioa betetzeko gaitasuna areagotzeari begiratzen dion teknologia garatzea, batez ere gaitasun hori murriztuta dutenei dagokienez, adibidez, ezgaitasunak zerikusi duenean ahozko komunikazioan parte hartzen duten organo edo funtzioekin. Holako kasuetan baliabide teknikoek berebiziko eginkizuna betetzen dute, ezgaituari aukera ematen diotelako hizkuntzara eta ahotsera iristeko.

3.4. ENPLEGUAREN ARLOA

3.4.1. Enplegurako informazioa eta orientazioa

Pertsona ezgaituak lan-merkatu arruntera gehitzeko euskal planak (2004-2006) ikuspegi integrala ematen dio ezgaitasunari eta egoera horretan dauden pertsona guztiei informazio, aholkularitza eta orientaziorako sarbideak eskaintzen dizkie. Plan horrek, halaber, lana bilatzearen arloan autonomia pertsonala sustatzeko printzipioa ere jasotzen du.

Bi ikuspegi horien garapen espezifikoaren ondorioz orientazio zerbitzua sortu zen, prestakuntza eta esperientzia espezifiko pertsonalarekin. Pertsona horien ardurak izan da Planak iraun duen aldiari Lanbideko orientazio-zerbitzua erabili dutenen %3 ezgaitasuna duten pertsonak izatea. Zehazki, Lanbideko orientazio-eredua autonomia pertsonala errespetatzeko printzipioan oinarritzean, Planaren berme-ikuspegia beteta gelditzen da emandako orientazio-zerbitzuaren ohiko garapenez.

EHezkuntzaren mailan, horrek esan nahi du laguntza teknikoak areagotu egin behar direla, bereziki adingabe bakoitzak eginkizunak betetzeko gaitasuna areagotu dezan; eta laguntza tekniko horiek areagotu egin behar dira ikuspuntu materialetik eta giza baliabideen aldetik begiratuta, hala nola, laneko terapeutak gehituz

Aldi berean, foru aldundiek ere orientazio-lana egiten dute, ohiz orientazio eta ebaluazio zerbitzuen bidez, minusbaliotasunaren ziurtagiria eskatzera doazenei informazioa emanaz eta INEMera bideratuz.

3.4.2. Lanaren arloko bitartekaritza espezializatua

Nahiz eta enplegu babestuak ezgaitasuna duten milaka pertsoneri bizitzeko eta gizartean integratzeko baliabide bat eskaini, kontuan izan behar da beti politiken berariazko helburua lan-merkatu arrunte-rako irispideak jartzea izan behar dela.

Lan-merkatu arrunt horretarako zubiarena egitea lan-bitartekaritza espezializatuari dagokion ardura da. Laguntza hori oso pertsonalizatua da eta lana eskatzen dutenei begira antolatua, horien aukerak aztertuz lan egin nahi dutenak eta horiei lana emateko prest dauden enpresak elkarrekin harremanetan jartzeko.

Gure erkidegoan erreferentziatzat jo daiteke Aukera proiektua. Horrek Europako Batasuneko Horizon ekimen komunitarioarekin batera lan egiten du, eta Ehlabek, Euskal Herriko Lan Babestuen Elkarteak, gauzatzen du lurralde historiko bakoitzean dauden erakunde laguntzaileekin elkarlanean. Gipuzkoan, Gureak Taldearekin batera ari da eta Zeharo izena hartzen du. Bizkaian, fundazioaren Enplegurako Igarobidea da programa eta Lantegi Batuek garatzen dute; Araban, ordea, Gizarte Ongizateko Foru Institutua arduratzen da Gokai enpresaren lankidetzaz.

Misioa, alde batetik, ezgaitasuna duten pertsonak lan-merkatura bideratzea ezgaitasuna duen pertsonarentzat eratutako laguntza-zerbitzuen bidez, eta bestetik, enplegua eskaini dezakeen enpresaburua konbentzitzea. Ondoren, proiektuak jarraipen etengabea egiten du.

Enplegu-zentro berezietan oso pisu erlatibo txikia duten ezgaitasunen kasuan, hala nola, buruko gaixotasuna, bestelako ekintza batzuk garatzen dira. Horietako bat da Eragintza Fundazioa; horrek lanerako klub bat dauka lanerako adimen emozionaletarako ikastaroe-kin eta informatika-aplikazio berezi batekin: ariketa praktikoak eta kudeaketa, psikologo baten ardurapean. Erakunde horrek gainera, enplegu-programa bat garatzen du, aldizkako jarraipena eginez, lanpostuan edota gainontzeko langileekiko harremanetan sor daitezkeen arazo guztiak konpontzen laguntzeko.

Zentzumenerako ezgaitasunei dagokienez, Euskal Gorrek badute programa bat Gormutuen lan-bitartekaritzarako zerbitzuan integratua. Horrek enplegurako irispidea egiteko ibilbide bat eskaintzen die entzumen-ezgaitasuna duten pertsoneri egokiturik. Bestalde, Bidaideak elkarteak batez ere ezgaitasun fisikoa duten pertsonak hartzen ditu bere babesean, eta garraio-zerbitzu egokitu bat eskaintzen du; elkar-

Misioa, alde batetik, ezgaitasuna duten pertsonak lan-merkatura bideratzea ezgaitasuna duen pertsonarentzat eratutako laguntza-zerbitzuen bidez, eta bestetik, enplegua eskaini dezakeen enpresaburua konbentzitzea

te horrek sortu du Laneko integrazio eta aholkularitzarako zentroa (LIAZ), bere kabuz lan egin nahi duten pertsona ezgaituei aholkularitza, informazioa eta laguntza emateko xedez, baita ezgaitasun egoera horretan dauden pertsonak bere enpresara gehitzeko prest dauden enpresei laguntzeko ere. Azkenik, adimen-ezgaitasunari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Down Sindromea Fundazioak garatutako Lan programarekin adimen-ezgaitasuna duten gazteak prestatu nahi dira lan-mundura bideratzeko Lana-Laguntza metodologiaren bidez. Prestakuntza okupazionala ematen zaie eta laneratzeko laguntza eskaini, baita lanpostuan jarraitzen lagundu ere.

3.4.3. Laneko eta familiako erantzukizunen kontziliazioa

Gurea bezalako gizarte batean, produkzio-premiak eta indibidualismoaren errebindikazioak eta bizitza pertsonalak tentsio bat sortzen dute, sarri modu onean konpontzen ez dena. Emakumea lan-merkatu-
ra gehitzeak desorekatu egin ditu eta hutsik utzi, lehen familiak betetzen zituen erantzukizun arlo batzuk. Laneko bizitzak eta familiakoak sortzen duten tentsioak gizartea rolen bestelako banaketa batera darma, sistemen arteko itun sozial berri batera, alegia. Administrazioak beregan hartu du bi bizi modu horiek kontziliatzeko erronka.

Familiei laguntzeko instituzioarteko II. planak (2006-2010) Europako herrialde aurreratuenetan indarrean dauden politikekin parekatzeko politika aurrerakoiak garatu nahi ditu. Plan integral hori kalitatekoa da eta I. Planean seme-alabak zituztenentzat jasotzen diren laguntza eta laguntzeko baliabideei jarraipena ematen die, indartu egiten ditu eta zabaldu. Laneko eta familiako bizitzak kontziliatzeari dagokionez, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailaren Familia Zuzendaritzak diru-laguntza ematen dio seme edo alabaren bat zaintzeko eszedentzia hartzen duen langileari, eta aldi berean diru-laguntza ematen dio lanaldia gutxienez ere heren bat eta gehienez ere erdi bat murrizten duen langileari, betiere sei urtetik beherako semea edo alaba bakoitza zaintzeko bada, eta zaindu beharrekoaren ezgaitasun onartuaren portzentajea %33tik gorakoa bada ere, diru-laguntza ematen du nahiz eta adin hori gainditu. Gainera, berrikuntza gisa mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko kontziliazio-programa bat jarri du abian.

3.4.4. Lanposturako egokitzapenak eta laguntza teknikoak

Ezgaitasuna duten pertsonak benetan lan-merkatu-
ra gehitzeko arazoaren atalik garrantzitsuena, seguru asko, lanposturako egokitzapenen eta laguntza teknikoen atala da, eta ondorioz, arazoaren konponbidea ere, hein handi batean, horretan datza. Laguntza eta

**Gurea bezalako gizarte batean, produkzio-premiak eta indibidualismoaren errebindikazioak eta bizitza pertsonalak tentsio bat sortzen dute, sarri modu onean konpontzen ez dena. Emakumea lan-merkatu-
ra gehitzeak desorekatu egin ditu eta hutsik utzi, lehen familiak betetzen zituen erantzukizun arlo batzuk**

egokitzapen horiek modu egokian eginez gero, pertsona ezgaituen laneko gaitasuna eta kualifikazioa gorpuztu ahal izango lirateke.

Alabaina, datuek adierazten dute ezgaitasuna duten euskal biztanleek lan egiten duten lanpostuen %16 egokitu gabe daudela, nahiz eta lanpostu horietan ari diren langileek, beharrezkoa dela adierazi. Guztiz edo partzialki egokitutako lanpostuetan gehien aritzen diren ia erdiak ikusmen- edo adimen-ezgaitasuna dutenak dira; azken horiek enplegu-zentro bereziek egiten duten lanari esker.

18. taula. Lan egokitua ezgaitasunaren arabera

	Guztiz egokitua	Partzialki egokitua	Ez dago egokitua	Ez du egokitzapenik behar	Guztira
Adimen-ezgaitas.	46,6	0,2	5,6	47,6	100,0
Buruko gaixotas.	40,6	3,9	20,0	35,5	100,0
Ikusmen-ezgaitas.	32,5	14,2	15,9	37,4	100,0
Entzumen-ezgaitas.	26,8	14,6	19,0	39,6	100,0
Ezgaitasun fisikoa	29,3	11,8	16,6	42,3	100,0
Guztira	32,4	10,3	15,9	41,4	100,0

Iturria: EAEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

Langabezian dauden hamar pertsonatik ia bik laguntza teknikoak behar du bere lanerako. Hala ere, ezgaituen hamarretik batek bakarrik erabiltzen ditu laguntza teknikoak bere lanean. Datu horrek adierazten duenez, holako laguntzarik ez egoteak eragina izango luke era honetako langabezian.

Bere lanean laguntza horiek gehien erabiltzen duten pertsonak ikusmen- eta entzumen-ezgaitasuna dutenak dira, hau da, erabiltzen duten guztien %42,5.

19. taula. Laguntza teknikoaren erabilera ezgaitasunaren arabera

	% bertikala	Eragina
Adimen-ezgaitas.	6,3	5,6
Buruko gaixotas.	2,3	2,4
Ikusmen-ezgaitas.	23,9	22,9
Entzumen-ezgaitas.	18,6	18,6
Discapacidad física	48,9	8,2
Guztira	100,0	9,9

Iturria: EAEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

Ezgaitasuna duten pertsonak benetan lan-merkatura gehitzeko arazoaren atalik garrantzitsuena, seguru asko, lanposturako egokitzapenen eta laguntza teknikoaren atala da, eta ondorioz, arazoaren konponbidea ere, hein handi batean, horretan datza

Erabilitako laguntza tekniko nagusienak, honako epigrafeetan sartzen dira: laneko promozioa, arreta pertsonalak, lan-zentroaren egokitzapen funtzionala eta audiofonia.

20. taula. Lanean erabilitako laguntza teknikoen motak

	Datu absolutuak	Ehuneko bertikalak
Ibilgailu motorduna, egokitzea edo erostea	53	3,0
Zentroaren egokitzapen funtzionala	240	13,8
Laneko promozioa	585	33,6
Arreta pertsonalak	392	22,5
Betaurrekoak/lentillak	109	6,3
Audiofonia	197	11,3
Ingurukoekin harremanak indartzea	27	1,6
Garabia	23	1,3
Gurpil-aulkia	4	0,2
Beste batzuk	108	6,2
Ej/Ee	8	3,0
Guztira	1.746	100,0

Iturria: EAEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

Langabezia dauden hamar pertsonatik ia bik laguntza teknikoa behar du bere lanerako. Hala ere, ezgaituen hamarretik batek bakarrik erabiltzen ditu laguntza teknikoak bere lanean

4. Ekosistemaren funtzionamendua

4. EKOSISTEMAREN FUNTZIONAMENDUA

Irisgarritasunaren promozioari buruzko 20/1997 Legeak elkarrekin lotzen ditu pertsonen funtzionamendua eta ingurunea. Honakoak ziren lege hori onartzearen arrazoiak: “inguru urbano, eremu publiko, eraikin, garraio-baliabide eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiei eta batez ere mugikortasun murriztua, komunikaziorako zailtasunak... dituztenei horiek era autonomoan erabili eta gozatzeko aukera emanetz”. Lege horren aginduak eremu guztietan izango beharko luke eragina, eta ez bakarrik ekosisteman. Alabaina, lan honetan ekosisteman duen eragin horretara mugatuko gara, daukan zerikusia hobeto aurkeztearren.

Lege hori botere publikoaren jarduera bideratu eta koordinatzeko behar den esparru bezala eratu da. Hala, botere publikoak bere jarduera-esparruan sartzen diren pertsonetikiko desberdintasun sozialeko egoeran dauden kolektiboentzat neurri positiboak ematen ditu, nazioarteko ordenamenduan aipatzen diren aukera-berdintasunaren oinarrizko printzipioak eta testu konstituzionaleko 14. artikuluan jasotzen den berdintasun-printzipioa bermatzeko, eta horixe jasotzen da, berebat, Autonomia Estatutuaren 9. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoari estatutu horrek hirigintza, etxebizitza eta garraioaren arloetan berariaz damaizkion eskuduntzen garapen eta betearazpenari dagokionea.

Lege-esparru hori zehazturik, kapitulu honetan ezgaitasuna duen pertsonak bere inguru komunitarioarekin duen harremana ikusi nahi da, politika eta adierazleen bidez.

Ezgaitasuna duen pertsonak bere inguru errealearekin duen harremana eta bere gaitasunak zein mailatan gara ditzakeen aztertzea dira atal honen xede nagusia, baita oztopoak zein mailatan gaindi ditzaketen jakitea ere

	Giz. Lag. / Etxebizitza	Hezkuntza	Lana
Ekosistemaren funtzionamendua	Kudeaketaren kalitatea eta bizi-kalitatea Bizilekua Jarduera okupazionala Komunitateko bizitza		Lan-jarduera Langabezia Okupazioa Enplegu-zentro bereziak Telelana Pertsona ezgaituekiko legeria berezia Politika publikoak eta enpleguaren promozioa

4.1. GIZARTE-ZERBITZUEN SISTEMA ETA ETXEBI-ZITZA

4.1.1. Kudeaketaren kalitatea eta bizi-kalitatea

Gure erkidegoan Gizarte-zerbitzuen euskal legearen aurreproiektua eztabaidatzen ari dira eta sutsuki gainera, batez ere Eusko Jaurlaritzaren, aldundien eta udalen eskuduntzen banaketagatik, hala nola, Mendekotasunaren Arretarako eta Autonomia Pertsonalerako Legearen banaketagatik. Eztabaidak alde batera utziz, garapen berriek hartu duten norabidea gizarte-zerbitzuen sistemako zenbait prestazio eskubide subjektibo bezala onartzerantz doa eta, besteak beste, EAEko gizarte-zerbitzuen mapa berri bat areagotzeko eskaerarantz.

Ezgaitasunari dagokionez, “Mendekotasunaren Legea” (ohiz hori da gehien erabiltzen den terminoa, nahiz eta aditu askok nahiago izan “autonomiaren promozioa” terminoa gehiago nabarmenaraztea) abiaraztea funtsezkoa izango da, eta ondorioz, bai lege horregatik bai aurrean aipatu den aurreproiektuagatik, geroz eta nabarmenagoa da kudeaketaren kalitatearen eta ezgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea sustatu beharraren aldeko interesa. Joera nagusia, horri dagokionez, helburuak finkatzean oinarriturako kudeaketarantz doa, baita zerbitzuak erabiltzen dituen pertsonaren balorazioan oinarritutako ebaluazioan oinarritzen denean.

Alderdi horretan sakonduz, badira diagnostiko sozialeko proposamenak, pertsona bera ukitzen duten esku-hartzeak koordinatzeko modu bezala, kasua kudeatzeko ereduak, edota pertsonarengan oinarritutako plangintzarako egin direnak, aurrean esan den bezala, betiere bizi-kalitatearen kontzeptuari atxikita (Fantova, 2007).

Koaderno honetan jarraitu dugun eredu teorikoak ere esku-hartze eredu bat adierazten du, eta horretan gizarte-zerbitzuek paper gidari bat joko dezakete. Alabaina, gaur egun gizarte-zerbitzuek eratzen duten sarearen konplexutasunak (zuzeneko kudeaketarako egitura publikoak, gizarte-ekimeneko erakundeen zerbitzuak eta enpresa pribatuak) gidaritza hori gizarte-zerbitzuen euskal Legearen aurreproiektua gauzatzea edo ez baldintzatzen du, eta zehazki, lege horretako prestazioen katalogoa eta gizarte-zerbitzuen mapa gauzatzea.

Zerbitzu edo programa jakin bati buruz pertsonen dagozkien eskubideak etorkizunean zehazten direnean, kudeaketaren eta kalitatearen estandarrak ere zehaztuko dira. Gaur egun apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betekizunen zerren-

Koaderno honetan jarraitu dugun eredu teorikoak ere esku-hartze eredu bat adierazten du, eta horretan gizarte-zerbitzuek paper gidari bat joko dezakete

da eta iradokizun eta kexen araudia onartu zituenak, gizarte-zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalei dagozkien eskubide eta betekizunen zerrenda, definizio eta erregulazio sistematizatua egiten du. “Azken batean, gizarte-zerbitzuetako profesionalei eta erabiltzaileei dagozkien bermeak sistematizatzea da, gizarte-zerbitzuen arloan dihardutenei beren jarduerak aipameneko eskubide horien betearazpena bideratzeko irizpideak eskainiz.

4.1.2. Bizitegia

Agian, gorpil-aulkian ibili behar duen mugikortasun mugatuko pertsona da ezgaitasunaren ikono nagusia. Ibiltzeko gaitasuna mugatzen duten oztopo arkitektonikoak dira, holako kasuetan, gizarteak hobeto ikusten dituenak. Etxebizitza askotan, komunitatean bizitzea eskatzen dutenetan, oztopo arkitektonikoak egoten dira, baina eremu horiek arautzen dituzten legeak, Jabetza Horizontalarena kasu, ez dira egokiak ezgaitasunen bat duten pertsonentzat. Horregatik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak beste lege bat, 20/1997 Legea, aplikatzeko joera du, horrek arautzen baitu irisgarritasuna sustatzeari buruzko marko orokorra. Gizarte eta komunitatearen ingurunean pertsonen garapen bete eta libre bermatuko duen eredu berriaren aldeko apustua egin nahi du, gure Komunitateko pertsona guztiei ingurune fisiko eta komunikazioko irisgarritasuna eskainiz eta, batez ere arrazoi bat edo bestea dela tarteko, mugaren bat dutenei.

Babes ofizialeko etxebizitzak emateko, indarrean dagoen araudiak kupo jakin bat gordetzen du: etxebizitza bat hogeita bost etxebizitzako, mugikortasun murriztu iraunkorra duten pertsonen artean zozketatzen da. Alabaina, kupo hori ez da betetzen. Gertakizun horren arrazoiak ez daude garbi zein diren, agian etxebizitza horietara iristeko baliabideak ez dira ondo ezagutzen; agian, zozketan sartzeko eskatzen den gutxiengo maila ekonomikoa ez da egokia; edota, izan daiteke etxebizitza horiek, elkarre batzuk adierazi duten bezala, herri gunetatik kanpo daude edo irisgarritasun zailekoa zonetan.

Etxebide Etxebizitzen Euskal Zerbitzuaren datuek erakusten dutenez, izena emandako mugikortasun murriztuko pertsonen heren batek etxebizitza bat jabetzan hartzeko eskatzen diren gutxiengo sarrierak baino gutxiago irabazten du, eta %10 ez da iristen babes ofizialeko etxebizitzetara iristeko gutxiengora. Eskatzaile guztiei dago kienez, ikusi da mugikortasun murriztua duten pertsonen jabetza-erregimeneko etxebizitza gutxiago eskatzen duela eta gehiago alokairuan.

Agian, gorpil-aulkian ibili behar duen mugikortasun mugatuko pertsona da ezgaitasunaren ikono nagusia. Ibiltzeko gaitasuna mugatzen duten oztopo arkitektonikoak dira, holako kasuetan, gizarteak hobeto ikusten dituenak

Egoera hori ikusita, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak arauak aldatu nahi ditu, ezgaitasuna duten pertsonak ere aukera izan dezaten baliabide horretara iristeko. Adibidez, unitate familiarra babes ofizialeko etxebizitzaren esleipendun izateko aukera ezartzea; etxebizitza baten jabe izanik ere, kide bat ezgaitasun murriztu iraunkorreak bada eta bizi den etxebizitzak irisgarritasun baldintzak ez baditu betetzen. Mugikortasun murriztu iraunkorra duten pertsonak alokairuan etxebizitza hartzeko eskatzen den gutxieneko sarrera eduki beharra ere kendu nahi du Sailak, baita beste neurri batzuk ere jarri, hala nola, jabetza erregimeneko etxebizitzetara iristeko eskatzen diren gutxieneko diru-sarrerak murriztea edo gutxitzea.

Gizarte eta kolektibitatearen imajinarioan, jabetzako etxebizitza egokituaren xedea, bizitza independentearen ereduaren ildoan, ezgaitasun fisikoa, entzumenekoa eta ikusmenekoa duten pertsonentzat izango litzateke. Adimen ezgaitasuna, edo adimen gaixotasuna dutenentzako eredu, ordea, egoera berean dauden pertsonak elkarrekin bizitzeko etxebizitza izango litzateke, denek partekatuko luketena. Hau da, eredu horrek ezgaituak familian bizi behar dutela eskatzen du, familia horrek ahal duen artean.

Zorionez, Mendetasun Legeak eta Euskal Gizarte Zerbitzuen Legearen aurreproiektuak gainditzen ari dira zainketa familiaren esku egon behar deneko uste hori.

Bizitegi komunitarioei buruzko oharra eginik, ezgaitasun fisiko handiko bizitegiei dagokienez Estatuan bost dira IMSERSOren mende dauden Minusbaliatu Fisikoen Arreta Zentroak, eta horietako bakar bat ere ez dago gure Erkidegoan. Gurean dagoena da Matia Fundazioaren Egoitzaren Arreta Espezializatuko Zentroa. Horrek baliabide espezializatuak eskaintzen ditu ezgaitasuna duten pertsona eta horien familiakoentzat, modu anitz eta multifuntzionalan. Zentro horren helburua da bertan hartuta dauden pertsonen eta horien familiakoei bizi-kalitate hobea ematea, hau da: mantenua eta gaitasunak hobetzea, gaitasun funtzionala, ongizatea, asetasuna, gizarteratzea eta gizarte eta familiako harremanak mantentzea.

Bestelako ezgaitasunei dagokienez, EAEn badira bizitegi zerbitzuak egoitzetan, baina alde handiak daude lurralde historiko batetik bestera zerbitzu horietarako irisgarritasunari dagokionez. Gizarte- eta etxebizitza-zerbitzuen prezio publikoak ere asko aldatzen dira lurralde batetik bestera.

Gizarte eta kolektibitatearen imajinarioan, jabetzako etxebizitza egokituaren xedea, bizitza independentearen ereduaren ildoan, ezgaitasun fisikoa, entzumenekoa eta ikusmenekoa duten pertsonentzat izango litzateke. Adimen ezgaitasuna, edo adimen gaixotasuna dutenentzako eredu, ordea, egoera berean dauden pertsonak elkarrekin bizitzeko etxebizitza izango litzateke, denek partekatuko luketena

4.1.3. Jarduera okupazionala

Gizarte-zerbitzuen eskumenetako bat da jarduera okupazionalarena. Laneko integrazioa nahi ez duten pertsonentzat, jarduera okupazionalak zubiarenak egiten ditu integrazio horretarako, ohiz dela enplegurako zentro berezien bitartez, dela jite finalistako jarduera batez baliatuz. Horrela, gizarteratze bidean aurrerapausoak eman ahala, ezgaitua zaindu beharra duten familiakoek lasaitasun bat izaten duten beren ohiko eginkizunetan.

Eguneko zentroetan daudenen plaza-ratioak antzekoak dira Araban eta Bizkaian; Gipuzkoan ordea askoz ere handiagoa da ratio hori. Eskura daukagun informazioarekin zaila da ondorioak ateratzea, baina badirudi eguneko zentroetan aukeran dauden plazak balizko eskaritik urruti daudela.

Bestalde, zentro okupazional batek terapia okupazionalerako edo doikuntza pertsonalerako zerbitzuak ziurtatzeko ahalegina egiten du, ezgaitasun nabarmena duten pertsonentzat horiek enpresa edo enplegurako zentro espezialetan integratu ezin dutenean. Gaur egun, kalkulatzen da EAEn zentro okupazionalak 2.200 erabiltzailetik gora hartzen dituztela ia gehienak Euskal Herriko Lan Babestuen Elkartearen, Ehlabe. Zifra horrek adierazten duenez, gure komunitatean arlo honetan dagoen estaldura maila handiagoa da Estatuan dagoena baino.

Zentro okupazionala iristeko irizpideei dagokienez, araudi orokorra betetzeaz gain, esan behar da Araban ez dagoela baremorik, hala ere beste bi lurraldeetan egoitza-baliabideetarako eskatzen diren baldintza orokorrez gain bestelako batzuk ere eskatzen dituzte. Hala, Bizkaian, bertako zentro okupazionala iristeko gutxieneko puntuazio eta egokitasun maila bat eskatzen da, eta horiek Beharriaren Gizarte Adierazle eta Gaitasunaren Adierazlearen arabera zehazten dira. Gipuzkoako zentro okupazionala iristeko, ordea, Foru Aldundiaren Ezgaitasunaren Sailaren orientazioa eskatzen da edota Hezkuntzarekin prestakuntza ikastaroa edo programa egin izana. Gainera, itxaron-zerrendako antzintasuna eta familiaren egoera ere kontuan izaten dira. Azkenik, Adimen Osasuneko Zerbitzuen txostena ere eskatzen da adimen-gaixotasuna dutenen kasuan.

4.1.4. Komunitateko bizitza

Pertsonak bere komunitatearen ingurunean bizitzen laguntzeko izaten diren irisgarritasun- eta mugikortasun-programei dagokienez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hainbat neurri hartu ditu, hala nola, diru-laguntzak ezgaitasun fisikoa dutenentzat. Neurri horietan,

Laneko integrazioa nahi ez duten pertsonentzat, jarduera okupazionalak zubiarenak egiten ditu integrazio horretarako, ohiz dela enplegurako zentro berezien bitartez, dela jite finalistako jarduera batez baliatuz. Horrela, gizarteratze bidean aurrerapausoak eman ahala, ezgaitua zaindu beharra duten familiakoek lasaitasun bat izaten duten beren ohiko eginkizunetan

adibidez, badira diru-laguntza batzuk, irisgarritasuna promozionatzeko programak egin eta idazteko. Sailak beste laguntza batzuk ere banatzen ditu, esate baterako, hobekuntza obrak egiteko eta ekipamendua erosteko, betiere irisgarritasuna, bai ingurune urbanoan oro har bai eraikinetan bereziki, bermatze aldera. Diru-laguntza horien zenbatekoa %80koa izaten da programa idazteko aurrekontuan eta %50ekoa, obrak egikaritzeko aurrekontuan edo ekipamenduak erosteko aurrekontuan.

Geroz eta irisgarritasun handiagoa dago eta diseinu bat sustatzen da denentzat. Filosofia hori, poliki-poliki azpiegitura berriak sortzeko planteamendu tekniko eta politikoen lehen agindu bihurtzen ari da. Haatik, etxebizitzak egokitzea, hizkera ekonomikoan, azpiegitura berriak baino garestiago izaten da, ondorioz egokitu gabeko garraio sistema zaharrak erabili behar izaten direnez, irisgarritasuna ez da hobetzen. Hori dela eta, garraio publikoa berritzea asko moteltzen da, hirietakoa zerbait hobetu arren; baina hiri barruko garraio publikoaren irisgarritasunak garapen mugatua izaten jarraitzen du. Garraioa, beraz, eremu garrantzitsua da, eta horretan begi-bistan dago zer den hobetu beharrekoa.

Gizarte-zerbitzuen sistema, hortaz, ahaleginak egiten ari da garraioaren arloarekin lankidetzan aritzeko, bien artean garraioetako irisgarritasuna bermatzen delako. Tokiko erakundeekin egindako hitzarmenen bidez, badira autobus flotak egokitzeko akordioak. Ukaezina da, berebat, azken urteetan egin den ahalegina tren bidezko garraioak hobetzeko: geltokiak, eta abar. Eman diren urratsek, baina, ez dute esanahi gehiago egin behar ez denik garraioaren bilbe osoa egokitzeko, batez ere garraio publikoari dagokionez. Oraindik badira linea batzuk ez dutenak inolako irisgarritasunik eta oztopo gaindiezinak direnak komunitateko bizitzarako, lan-mundura iristeko, hezkuntzara, eta abar.

Garraioa egokitzea herri-administrazioak derrigorrez betebeharreko neurria da, batez ere irisgarritasunik ez duten lineetan. Gaur egun diseinatzen den edozein garraio-baliabidek jadanik egokituta egon behar du, guztiontzako diseinuaren arabera sortuak izan behar du, hots, irisgarritasun unibertsalekoa. Hala egitea justizia sozialeko arazo bat izateaz gain, diru aldetik ere errentagarria da, askoz ere merkeago ateratzen delako guztiontzat diseinatzea, gero aldaketak partikularrak egin behar izatea baino.

Garraioa unibertsala izatea lortzeraino, baita hori osatzeko neurri gisa ere, bono-taxien programa arrazoizko erantzuna da; kostua nahiko arrazoibidezkoa da eta gainera pertsona askoren mugikortasuna

Geroz eta irisgarritasun handiagoa dago eta diseinu bat sustatzen da denentzat. Filosofia hori, poliki-poliki azpiegitura berriak sortzeko planteamendu tekniko eta politikoen lehen agindu bihurtzen ari da

bermatzen da. Alabaina, sistema hori ez dago oso zabaldua eta taxien flotek ere ez dute ibilgailu egokituen gutxiengo kupoa betetzen. Beste aukera bat da, nahiko interesgarria gainera egungo errealitatea ikusita, furgoneta egokituena; horiek etxez etxe joaten dira jendea hartzen. Sistema hori beste aukera bat da herri-garraio gurpildunaren aurrean, eta gainera elkarte, klub, eguneko zentro, eta abarretara ondo egokitzen dira, hau da, bestela aurrekontu garestia izango luketen sistemaren aukera dira.

Esandako guztiaren alde, era horretako programek duten eraginari buruzko datu batzuk ekarri nahi ditugu. Hala, bono-taxien programa Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak finantzatu zuten 2004. urtean; taxia erabiltzeko, ezgaitasuna duten pertsonen emantzipazioaren kostua 188.000€koa izan zen eta horrekin 347 erabiltzaileei eman zitzaizkien zerbitzua.

Bestalde, kirola eta aisialdiko jarduerak oso egokiak dira edozeinentzat gizarteratzeko, atsedenerako eta bizi-kalitaterako. Mundu guztiak baloratzen du geroz eta gehiago bere denbora libre; alde hori babestea eta kalitatea ematea gizaratean geroz eta gehiagok partekatzen duten helburua da.

Adierazitakoaren harian, Deustuko Unibertsitatearen Aisialdiaren Ikerketarako Institutuaren ONCE Aisialdia eta Ezgaitasuna Katedrak egin duen Aisialdi Inklusiboaren aldeko Manifestuaren helburua da “aisialdiaren arloan politikaren, kudeaketaren eta hezkuntzaren esku-hartzearen printzipio gisa inklusioaren filosofia bultzatzea, horren helburua oro har herritarrak direlako, eta bereziki ezgaitasuna dutenak eta, ukituak diren heinean, beren familiakoak”. Erronka pertsona guztientzat sentitzea, pentsatzea eta egitea da. Ondorio gisa, manifestuak zenbait lan-ildo eskaintzen ditu bai aisialdiaren arloan lan egiten dutenentzat bai ezgaitasuna dutenekin lan egiten dutenentzat. Lan-ildoak, lehenbizi, ezgaitasuna dutenei buruzko kontzeptuak, ikuspegiak eta irudiak eguneratzera bideratzen dira; ondoren, ezgaitasuna dutenen garapen beterako aisialdiak jokatzen duen papera sendotze-
ra dator; eta azkenik, ekipamendu, programa, zerbitzu, produktu eta jardueretan aisialdi inklusiboari zor zaion lehentasuna argitzera.

Ezgaitasuna duten pertsonen eta kirolaren arteko erlazioari dagokionez, kirola ohiz errehabilitazioari lotuta egon da edota gaitasuna esfortzuarekin areagotu eta gehitzeari. Baina, gaur egun, kirola da aukerarik garrantzitsuena nork bere burua baloratzeko eta gizarteratzeko. Kirola egiten denean edo kirol lehiaketan parte hartzen denean, diferentziarako eskubidea erakusten zaio ikusi nahi duenari. Kirola

Haatik, etxebizitzak egokitzea, hizkera ekonomikoan, azpiegitura berriak baino garestiago izaten da, ondorioz egokitu gabeko garraio sistema zaharrak erabili behar izaten direnez, irisgarritasuna ez da hobetzen

egita, berebat, ezgaitasun-egoera arintzeko beste erreminta bat da, gizarte, adimen eta kirolaren potentzia aurkitzen laguntzen duena, baita aurreiritzi eta mugak bereizten ere. Beraz, eta ondorioz, kirolak pertsonen gaitasuna indartzen laguntzen du.

EAEn potentzialtasun handia dago kirol egokiturako. Eginkizun horretan ari da Saiatu Fundazioa ere; horrek kirola egitera bultzatu nahi ditu ezgaitasuna duten pertsonak, kirol normalizatuko lehiaketetan parte hartzera, kirol egokituko klubak sortzen laguntzea, eliteko kirolarien prestakuntza bultzatzea eta euskal selekzio paralinpi-koa sustatzea.

Dagoen potentzialtasun hori argi ikusten da zenbait kirol jardueretan, hainbat arrakasta lortu direnetan, hala nola, igeriketan, eskian, atletismoan, areto-futbolean, 7 futbolean, mahai-tenisean... eta batez ere boccia-n, hor munduko txapelketa bat eta azpitxapelketa bat irabazi baitira, baita ziklismoan ere, non mundu mailako ziklismo egokituko azken txapelketetan urrezko bi domina irabazi diren.

Baina ez da ezkutatu behar arrakasta horien atzean dagoen egia: goren mailara iritsi diren kirolariak beren meritu hutsarekin iritsi dira. Klub gutxi daude pertsona ezgaituentzat eta, are gutxiago, integrazio-politikaren aldeko apustua egin dutenak. Gaur egun, ez eskola mailan ez elkarten mailan sustatzen da kirol egokitua, ez eta errehabilitazioaren ingurukoetan. Kirolaren bidez gizarteratze-politika baten sorkuntzak dauden kirol modalitate desberdinak ezagutzea eskatzen du, baita kirol egokitua ezaguna izatea eta komunitatearekin identifikatua izatea ere.

Hiru lurralde historikoek, bakoitzak bere aldundiaren bidez, aisia eta denbora libreko jarduerak ezgaitasuna duten pertsonen artean sustatzeko ahaleginak egiten dituzte. Araban, adibidez, holako programak, alde batetik, ezgaitasuna duten pertsonak egitura arruntetan txertatzera bideratzen dira, esaterako, “kirola guztiontzat” programarekin, eta bestetik, ezgaituen normalizatzeko eta autonomia areagotzera, elkarteekin egiten diren hitzarmenen bidez. Bizkaian aisialdi eta denbora libreko programa garatzen dute. Horren asmoa ezgaitasuna dutenak gizartean parte hartzera bultzatzea da; horretarako, denbora libreko barnetegi eta klubez baliatzen dira. Gipuzkoan, azkenik, era horretako programetan parte-hartzea Aldundiak eta hainbat elkarteek egindako hitzarmenen bidez sustatzen da, eta horiek ere aisia eta denbora libreko jarduerak bultzatzen dituzte, udako barnetegi eta oporraldietako jardueren bidez.

Gaur egun, ez eskola mailan ez elkarten mailan sustatzen da kirol egokitua, ez eta errehabilitazioaren ingurukoetan ere

Aldundiek antolatzen dituzten jarduerekin batera, funtsezkoak izaten dira ekimen pribatuko erakundeek eratutako jarduerak; horiek batez ere adimen-ezgaitasuna duten pertsonentzat denbora librerako jarduera atsegin eta asegarriak eskaintzeaz gain, autonomia garatzeko, beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko eta komunitatean integratzen laguntzeko jarduera arruntak ere antolatzen dituzte.

Ekimen pribatuko erakundeak —elkarteak, fundazioak, GKEak...— oso garrantzitsuak dira ezgaitasuna duten pertsonak komunitatearen ohiko bizitzan integratzeko. Boluntarioek batez ere aisialdiaren eta kirolaren arloan egiten duten lanari esker funtzionatzen dute erakunde horiek. Gizarte-politikan, horiek ematen duten laguntasuna geroz eta gehiago ikusten da gizarteratze-prozesuetarako metodologiarik onenetakotzat. Jarrera paternalistetan erori gabe, prozesu horietan pertsona bat jartzeak gizarteratze-prozesuan zutabe bat ipintzea adierazten du, batzuetan gainera boluntario horiek prozesuarekin izaten duten lotura profesionaltasunaz haraindi doa, holakoa baita boluntariotzaren garrantzia.

Boluntarioek egiten duten lana babestu eta sustatu egin behar da, ezgaitasuna duenak harreman bat izan dezan ezgaitasuna ez duten pertsonekin eta komunitatearekin.

Boluntariotza garatu eta egituratzeko, bilbe garrantzitsua eratu da, eta horretan lehen lekuan jarri dira plangintza- eta finantzaketa-jarduerak, eta kasu batzuetan, administrazio autonomiadunak zuzenean parte-hartzea edota elkarte pribatuen jarduerak.¹

- Ekainaren 25ko 17/1998 Legea, borondatezko lanari buruzkoa.
- Irailaren 1eko 169/2000 Dekretua, Borondatezko Langileen Erakundearen Errolda Orokorren funtzionamendurako Araudia onartzen duena eta Borondatezko lanari dagozkion hainbat alderdi arautzen dituena.
- Otsailaren 18ko 30/2003 Dekretua, Borondatezko Langileen Euskal Kontseiluaren funtzionamenduari buruzkoa.
- Apirilaren 3ko 1/1996 Legea, Euskadiko larrialdi-egoerak kudeatzeari buruzkoa.
- Borondatezko Langileen Euskal Kontseiluan borondatezko langileen erakundearen ordezkariak erabakitzeko hautatze-sistema erregulatzen duen Araudia (laster onartuko dena).

Boluntariotzaren 2007-2010 II. Euskal Planaren zirriborroko plan

Funtsezkoak dira ekimen pribatuko erakundeek eratutako jarduerak; horiek batez ere adimen-ezgaitasuna duten pertsonentzat denbora librerako jarduera atsegin eta asegarriak eskaintzeaz gain, autonomia garatzeko, beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko eta komunitatean integratzen laguntzeko jarduera arruntak ere antolatzen dituzte

operatiboak hiru ildo estrategiko erakusten ditu. Honakoak dira administrazioak arlo honetan daukan joera erakusten duten ildo horiek: lehenbizi, herritarrak sentiberatu nahi dira boluntarioen zereginaz; elkarrean bilbe dinamiko bat sustatu nahi da boluntariotzaren etorkizuneko erronkei erantzuteko; azkenik, dauden boluntariotzaren eremuak konfiguratzeko eta indartzeak, boluntariotza osatzen duten agente guzti-guztiak koordinatzeko.

4.2. LAN-EREMUA

Lana norbanakoaren sozializatzeari gehien atxikitzen zaion ekosistemako eremua da. Ezgaitasun-egoeran dauden pertsonen jarduerata-tasa txikiak oztopatzen du, hain zuzen, ezgaitasun-egoera, hori beti baitago gizartean gertatzen diren defizitei lotuta.

Produktzioak dena adierazten duen gizartean, lana bazterketaren kontrako politika askoren ardatz nagusi bihurtzen da. Lanarekin bi helburu lortuko lirateke: alde batetik, autonomia pertsonalean lagunduko luketen diru-sarrerak lortzea eta gizarte-laguntzen zirkuitutik irten ahal izatea; eta, bestetik, gizarteratze-prozesuan parte hartzea: harreman pertsonalak, gaitasunak eskuratzea, eskuduntzak, eta abar.

4.2.1. Lan-jarduera

Lanaren garrantziaz oharturik, eta lanaren inguruari buruzko ikuspegi bat ematearren, ezgaitasuna duten pertsonen laneko jardueraren azterketa eskaintzen da. Azterketa hori Eusko Jaurlaritzaren Enplegu, Justizia eta Gizarte Segurantzaren Sailak eskatuta egin den “Ezgaitasuna duten pertsonen egoera erreala enpleguarekiko” ikerlanaren bidez lortutako azken datuetan oinarriturik egin da.

Horretan oinarriturik, honakoa da egin behar dugun lehen oharra: ezgaitasuna duten biztanleen jarduerata-tasa oso txikia da, batez ere emakumeei dagokienez. Erdiek baino gutxiagok lan egiten dute edo lan egiteko moduan daude, hau da, biztanleria osoari buruz erregistratu dena baino 22 puntutik beherako tasa.

Biztanleria orokorrari buruzko aldeak areagotu egiten dira adinarekin batera. Ezgaitasuna 50 urtetik gorakoetan gertatzen denean, batez ere gizonetan, jarduerarik gabea da. Alabaina, alderaketa biztanleria osoarekiko egiten badugu, emakumezkoen tasen arteko aldeak arindu egiten dira emakumeen jarduerata-tasak, oro har, txikiagoak direlako, eta ezgaitasuna duten emakume gazteak lan-merkatuara modu erabakigarriagoan sartzen direlako.

Lanarekin bi helburu lortuko lirateke: alde batetik, autonomia pertsonalean lagunduko luketen diru-sarrerak lortzea eta gizarte-laguntzen zirkuitutik irten ahal izatea; eta, bestetik, gizarteratze-prozesuan parte hartzea: harreman pertsonalak, gaitasunak eskuratzea, eskuduntzak, eta abar

21. taula. Jarduera-tasak sexu eta adinaren arabera

Adina	Biztanleria ezgaitua			EAEko biztanleria		
	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira
16-24	39,7	35,7	38,5	49,8	40,5	45,2
25-34	63,0	66,6	64,6	92,6	86,1	89,4
35-49	65,1	51,3	59,5	93,4	71,5	82,4
50-64	35,8	28,8	33,2	70,5	32,0	51,0
Guztira	49,7	43,0	47,1	80,1	59,0	69,6

Iturria: EAEen ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

Entzumen- eta ikusmen-ezgaitasuna dutenak dira jarduera-tasa handiena erakusten dutenak. Horri kontrajarrita, ordea, tasarik baxuenak adimen-ezgaitasuna edo buruko gaixotasuna dutenek ematen dute. Gaitasunari eta lana betetzeari buruzko kapituluaren titulazioari buruz ikusi denez, adimen-ezgaitasuna duten pertsonak nahiko hezkuntza maila apalagoa erakusten dute gainontzekoek baino. Horrekin, beraz, hein batean azal daiteke horien jarduera-tasa altua. Alabaina, buruko gaixotasuna dutenek titulua eta gainontzekoen antzeko hezkuntza dute, beraz beste arrazoi batzuetara jo behar da, horien jarduera-tasa baxuaren arrazoiak bilatzeko, hala nola: pizgarri falta, laguntza-programarik ez edukitzea, informaziorik eza, beren egoera estigmatizatzea, eta abar.

Honakoa da egin behar dugun lehen oharra: ezgaitasuna duten biztanleen jarduera-tasa oso txikia da, batez ere emakumeei dagokienez

22. taula. Jarduera-tasak sexuaren eta minubaliatasun mailaren arabera

	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira
Adimen-ezgaitas.	37,5	25,3	32,2
Buruko gaixotas.	42,6	36,9	40,4
Ikusmen-ezgaitas.	66,2	51,8	59,6
Entzumen-ezgaitas.	68,0	63,6	66,2
Ezgaitasun fisikoa	50,3	45,9	48,7
Guztira	49,7	43,0	47,1

Iturria: EAEen ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

Ezgaitasun maila areagotzearekin batera jarduera-tasak ere behera egiten du, bai gizonezkoen artean bai emakumezkoen artean.

23. taula. Jarduera-tasak sexuaren eta minubaliatasun mailaren arabera

	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira
MM %33 - %64	64,5	55,2	60,9
MM %65 - %74	31,5	32,1	31,8
MM %75 eta goragokoa	28,7	20,4	25,3
Guztira	49,7	43,0	47,1

Iturria: EAEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

Lan-jarduerari buruz emandako azken datua funtsezkoa da: enpleguaren modalitatea. Eskuragarri dauden azken datuen arabera, ezgaitasuna duten pertsonen erdia baino gehiago lanpostu arruntetan ari da eta %40 enplegu-zentro berezietan ari da lanean.

Datu horrek adierazten duenez, pertsona asko dago lan-merkatu arruntetan lan egiten duena nahiz eta ezgaitasun maila onartu bat eduki ez dagoena deklaratu ez eta minusbaliotasun-kontratuari atxikia.

Eskuragarri dauden azken datuen arabera, ezgaitasuna duten pertsonen erdia baino gehiago lanpostu arruntetan ari da eta %40 enplegu-zentro berezietan ari da lanean

24. taula. Soldatapeko enplegu modalitatea sexu eta adinaren arabera

	Sexua		Adina				Guztira
	Gizon	Emaku.	16-24	25-34	35-49	50-64	
Enplegua laguntzarekin	2,0	1,7	0,0	1,3	3,2	0,4	1,9
Enplegua enklabean	2,6	2,4	0,2	2,6	2,8	2,3	2,6
EB	41,6	37,1	28,5	50,5	45,1	25,1	40,1
Arrunta	53,7	58,8	71,3	45,6	48,8	72,2	55,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

4.2.2. Langabezia

Las personas con discapacidad desempleada son una población con Langabezian dauden ezgaituak batez beste 43 urte ingurukoak dira, eta horietako lautik hiru 35 urtetik gorakoa da.

Langabezian dauden pertsonen buruz zera nabarmendu behar da: ia denek dute laneko eskarmentua, eta lehendik lan egin ez dutenen proportzioa hamarretik batekoa baino ez da.

25. taula. Langabezian daudenak laneko esperientzia, sexua eta adinaren arabera

		Langabea, lehendik lana egin du	Langabea, lehen lana bilatzen	Guztira
Sexua	Gizon.	59,5	54,1	58,9
	Emak.	40,5	45,9	41,1
Adina	16-24	2,4	19,4	4,4
	25-34	17,6	48,8	21,1
	35-49	45,6	31,3	44,0
	50-64	34,4	0,5	30,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

Ikusten denez, laneko esperientziarik eza gehiago ematen da gazteen artean. Laneko eskarmentua dutenetan, %80 35 urtetik gorakoa da.

Beste ondorio bat da oso nabarmena dela lehen enplegura iristeko zailtasuna. Izatez, bere lehen lanpostuaren bila ari direnen batez beste adina 33 urtekoa da.

Ezgaitasun-motari dagokionez, nabarmendu behar da adimen-ezgaitasuna dutenek langabezia-indize txikiagoa dutela; buruko gaixotasuna dutenek, ordea, langabezia-indize handiagoa erakusten dute. Gertaera horrek garbi adierazten du enplegu-zentro berezien garrantzia, batez ere adimen-ezgaitasuna duten pertsonentzat, zentro horiek erudugarri gertatzen direlako ezgaituen kontratazioan. Bestalde, pertsona horiek laneko eskarmenturik txikiena edukitzeak adierazten duenez, adimen-ezgaitasuna duten pertsonak dira lan-merkatu arruntera gehitzeko aukera gehien dutenak eta, aldi berean, horiek dira enplegu babestuan aukera gehien aurkitzen dutenak.

Aitzitik, estigmatizatzeak eta laguntzarik ez edukitzeak argi dezake buruko gaixotasuna dutenen langabezia-tasa handia, nahiz eta printzipioz lan-merkatura gehitzeko prestakuntza eta esperientzia maila egokiak eduki.

Laneko esperientzia dutenetan gehiago dira teknikariak eta zuzendariak, langile kualifikatuak (LK) eta makineriako langileak. Lehen enplegua bilatzen ari direnetan, ordea, profil apalago eta espezialitate gutxiago eskatzen dutenak daude, hala nola, administrariak eta zerbitzuetako langile kualifikatu gabeak (LKG).

Estigmatizatzeak eta laguntzarik ez edukitzeak argi dezake buruko gaixotasuna dutenen langabezia-tasa handia, nahiz eta printzipioz lan-merkatura gehitzeko prestakuntza eta esperientzia maila egokiak eduki

26. taula. Langabezian dauden lanbide eta laneko eskarmentuaren arabera

	Langabea, aurretik lan egin duena	Langabea, lehen lanpostuaren bila	Guztira
Zuzendariak	2,3	0,0	2,2
Teknikariak	12,2	1,2	11,3
Administrazioko enplegua	10,9	36,7	12,9
LK zerbitzuak	15,3	19,3	15,6
LK nek.-arrantza	4,4	10,1	4,8
LK eraik.-indus.	16,3	2,4	15,2
Makineriako lang.	8,9	1,1	8,3
LKG zerbitzuak	12,8	28,1	14,0
LKG nek.-arrantza	1,0	0,0	0,9
LKG eraik.-indus.	13,9	1,1	12,9
LKG garraioa-zamalanak	2,1	0,0	1,9
Guztira	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

Ezgaitasuna dutelarik langabezian dauden pertsonen hezkuntza mailari dagokionez, esan daiteke nahiko handia dela oro har ezgaitasun duten biztanleriarekin alderatuz. Hezkuntzaren bigarren mailan alde hori askoz ere nabarmenagoa da, populazioak oro har erakusten duena baino ere handiagoa. Hala da, zeren langabezian dauden ezgaituen %23,3k lanbide heziketako ikasketak egin ditu eta %16,3k lanbide heziketakoak ez diren bigarren mailako ikasketak egin ditu; EAEko biztanleriari dagokionez, hurrenez hurren, %19,3 eta %13ra iristen dira.

Ezgaitasuna dutelarik langabezian dauden pertsonen hezkuntza mailari dagokionez, esan daiteke nahiko handia dela oro har ezgaitasun duten biztanleriarekin alderatuz

27. taula. Langabezian dauden ezgaituen ikasketak

	Langabezian dauden ezgaituak	Ezgaitasuna duen biztanleria	EAEko biztanleria	Langabezian dagoen EAEko biztanleria
Analfabetoak	0,9	8,1	0,5	0,0
Ikasi gabeak	0,2	2,5	19	0,4
Lehen mailakoak	51,5	49	28,5	31,1
LH	23,3	16,6	19,3	27,4
LHkoa ez den bigarren mailako ikasketa	16,8	12,4	13	15,3
Erdi eta goi mailakoak	7,3	11,4	19,7	25,7
Guztira	100	100	100	100

Iturriak: EAEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006 eta Biztanleriaren eta Etxebizitzaren errolda, 2001 INE..

4.2.3. Lan-jarduna

EAEEn 17.613 ezgaitu ari da lanean; zifra horrek adierazten duenez, Euskadiko biztanleria ezgaituaren okupazio-koefizientea %29,2koa da. Zifra hori nahiko baxua da erkidegoko biztanleria osoarekin alderatuz, %52,7koarekin, alegia.

Tasa horri dagokionez, alde handiak antzematen dira gizonezkoen eta emakumezkoen artean: emakumeen okupazio-koefizientea %29,2 da eta gizonena, %37,1. Adinari dagokionez, biztanleria ezgaituan okupazio-proporziorik handiena 35 urtetik aurrerakoengan ikusten da; guztiz kontrakoa gertatzen da, ordea, biztanleria orokorrari dagokionean, hor lan-jardunaren kontzentrazio handiena 25 eta 49 urtekoen tartean ematen baita. Aurrerago adierazi dugunez, horrela gertatzearen arrazoia zera da, ezgaitasuna duten biztanleen adina batez bestekoaren adina baino handiagoa izatea.

Lurralde historikoaren arabera, okupazioa pixka bat handixeagoa da Araban. Datu hori gizonezkoetan zein emakumeetan ematen da, salbu 35 urtetik beherakoetan Bizkaian, adin horretan emakumeek okupazio-koefiziente altuagoak erakusten baitituzte.

EAEEn 17.613 ezgaitu ari da lanean; zifra horrek adierazten duenez, Euskadiko biztanleria ezgaituaren okupazio-koefizientea %29,2koa da. Zifra hori nahiko baxua da erkidegoko biztanleria osoarekin alderatuz, %52,7koarekin, alegia

28. taula. Okupazio-koefizienteak sexu, adin eta lurraldearen arabera

	Adina	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE
GUZTIRA	16-24	21,4	7,9	35,4	24,8
	25-34	43,7	39,2	47,8	45,0
	35-49	53,3	43,9	40,5	43,1
	50-64	26,8	27,1	22,4	24,6
	GUZTIRA	36,3	33,6	33,5	34,0
Gizon.	16-24	27,7	10,8	34,4	25,4
	25-34	45,0	34,0	46,6	43,2
	35-49	57,3	50,4	46,0	48,7
	50-64	32,3	30,9	25,3	28,1
	GUZTIRA	40,7	36,7	36,2	37,1
Emak.	16-24	11,2	0,0	37,6	23,5
	25-34	41,8	46,0	49,3	47,5
	35-49	47,3	35,0	31,9	34,9
	50-64	18,0	21,8	17,3	18,8
	GUZTIRA	29,4	29,2	29,1	29,2

Iturria: EAEEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006.

Ezgaitasun motari dagokionez, okupazio-tasarik handiena entzumen- eta ikusmen-ezgaitasuna dutenek erakusten dute; ondoren datoz ezgaitasun fisikoa dutenak eta adimen-ezgaitasuna dutenak. Sexuaren aldagaia kontuan hartzen badugu, diferentzia askoz ere nabarmenago da ikusmen-ezgaitasuna dutenekin, ezgaitasun horri dagokionez gizonetzkoen erdiak eta bik enplegua dutelako; emakumezkoetan, ordea, heren batek baino ez du lana.

29. taula. Okupazio-koefizienteak sexu eta ezgaitasun-motaren arabera

	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira
Adimen-ezgaitas.	28,4	20,3	24,9
Buruko gaixotas.	23,0	24,3	23,5
Ikusmen-ezgaitas.	53,3	32,3	43,7
Entzumen-ezgaitas.	56,1	43,4	50,9
Ezgaitasun fisikoa	38,4	30,9	35,7
Guztira	37,1	29,2	34,0

Iturriak: EAEEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006 eta Biztanleriaren eta Etxebizitzaren errolda, 2001 INE.

Okupazioari buruzko azken datuak zera argitzen digu: minusbaliotasun maila areagotzeak okupazio maila murriztea dakar era nabarmenean. Gertakizun horri dagokionez, esan behar minusbaliotasun maila handikoetan gizonetzkoen eta emakumezkoen okupazio maila antzekoa dela.

30. taula. Okupazio-koefizienteak sexuaren eta minusbaliotasun mailaren arabera

	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira
%33-64	50,6	40,9	46,9
%65-74	19,6	17,1	18,6
%74tik gora	18,8	10,7	15,6
Guztira	37,1	29,2	34,0

Iturriak: EAEEn ezgaitasuna dutenen lan-jarduketari buruzko inkesta, 2006 eta Biztanleriaren eta Etxebizitzaren errolda, 2001 INE.

4.2.4. Enplegu-zentro bereziak

Esan daiteke EAE erreferentea dela enplegu babestuaren politikei dagokienez. Enplegu-zentro bereziak (EZB) gure erkidegoan lortu duten maila benetan da handia; Estatu osoko kontratuen %20 biltzen

Enplegu-zentro bereziak (EZB) gure erkidegoan lortu duten maila benetan da handia; Estatu osoko kontratuen %20 biltzen dute gutxi gorabehera, eta ondorioz, EAE bereziki nabarmentzen da eredu honen garapenean

dute gutxi gorabehera, eta ondorioz, EAE bereziki nabarmentzen da eredu honen garapenean.

“Laneko jarduna” kapituluan ikusi dugunez, ezgaitasunen bat duten euskaldunen %40k EZB batean lan egiten du. Zentro horiek, hortaz, berez arrakastaren eredu dira. Zentro horien gidari-eginkizunak adieraz dezake langabezia dauden pertsona ezgaituek erakusten duten prestakuntza maila altua, zeren hezkuntza arautu gutxien dutenek, adimen-ezgaitasuna dutenek, alegia, lan-mundurako irtenbideren bat aurkitzen dute EZBn bidez.

Zentroek emandako datu-multzoan oinarriturik, EAEko EZBetan 6.483 lagunek lan egiten dute.

Mapa nahiko heterogeneoa da EZBk EAEn sortzen dituzten lanpostuei dagokienez. Lan egiteko adina duen biztanleria ezgaitua kontuan izanik, Bizkaia da era horretako zentroek lanpostu gutxien sortzen duten lurraldea: ezgaitasuna duten 100 pertsonatik 10 enplegu baino gutxiago. Gipuzkoa da, aldiz, EZBn eragin handiena duena: ehun ezgaituko 16 lanpostu.

31. taula. EZBak lurralde historikoen eta sortzen duten lanpostuen arabera

	EZBn kop.	Lanpostuak	Tasa*
Araba	19	859	%10,6
Bizkaia	36	2.312	%9,8
Gipuzkoa	33	3.312	%16,3
Guztira EAEn	88	6.483	%12,4

*Lanerako adinean dauden pertsona ezgaituen gainean kalkulaturako tasa.

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko EZBei egindako inkesta, 2006, eta Datlan: EAEn pertsona ezgaituen premiak eta irisgarritasuna, Eusko Jaurlaritz, 2004.

Azken urteetan asko ugalduta dira EAEn EZBak, eta horrek batzuetan errezeloak pizten ditu historikoak izan diren zentroetan. Zalantza hori erakunde berrien helburua irabazte hutsa delako usteak dakar, ezgaitasuna duten pertsonak bitartekari direnean eta ez helburu.

Baina, egia esan, sortutako lanpostu-kopuruan alde nabarmenak ikusten dira, zentroen antzinatasunari dagokionez. Lanpostuen ia bi heren 1990. urtea baino lehen sortutako erakundeetan biltzen da, eta horiek guztien %18 baino ez dira. Beste muturrean, ordea, zera aipatu behar da, mende honetan sortu diren erakundeen %30ek EZBetan lanpostua duten pertsona guztien %5i baino ez dietela lana ematen.

Lan egiteko adina duen biztanleria ezgaitua kontuan izanik, Bizkaia da era horretako zentroek lanpostu gutxien sortzen duten lurraldea: ezgaitasuna duten 100 pertsonatik 10 enplegu baino gutxiago. Gipuzkoa da, aldiz, EZBn eragin handiena duena: ehun ezgaituko 16 lanpostu

EZBn errealitatea batzuetan zalantzan jartzen da, lan-merkatu arruntera iristeko zubia izateko jaio zen eredia izatetik zentro finalista izatera arte iritsi dela esanez, hau da, EZBak enplegu babestua- ren egoera betikotzea baizik bestelako helbururik ez duen eredu dire- la, eta gainera ohiz enplegu hori prekarioa izaten dela.

Izan ere, eremu hau aztertzerakoan planteatzen diren oinarritzko arazoetako bat zera da, jakitea ea EZBek zein neurritan laguntzen duten bertako gizon eta emakume langileak ohiko enpleguetara iris- teko. Eginkizun hori ezagutzeko adierazle nagusienetako bat da zen- troek dauzkaten baliabideak ezagutzea: eskura dauden datuek adie- razten dutenez, %15ek laneko hezitzaileak dauzkate, eta %5 baino gutxiagok enplegu arruntera (ohikoena 50 langiletik gora duten EZ- Betan) iritsi diren pertsonen jarraipena egiten du.

Puntu honetara iritsi garelarik, esan daiteke zentro hauetako ardu- radunek onartua dutela ezgaitasun batzuk dituztenek ezingo dutela lanpostu arrunt batera iritsi, lan-merkatuak gaur egun eskatzen dituen gaitasunik ez dutelako. Gainera, langileen ikuspegitik begiratuta, errealitate bikoitza gertatzen da: alde batetik, EZBetan lan egiten duten langile batzuk badira, lan-merkatu arruntean sartu nahi ez du- tenak. Bestalde, zentro horietako langileek atzematen dute lan-mer- katura gehitzeko ahalegin hori EZBk ematen duela, baina ez dela le- hentasunezkoa.

EZBn eragingarritasunaren baloraziora hurbiltzerakoan, lehen- bizi kontuan izan behar dena da ezgaitasuna duten mila pertsona ari direla lanean, eta hori berez lorpen handia dela. Hori kontuan izanik, bigarren, eragingarritasun hori neurtzeko beste faktore bat da jakitea benetan zenbat pertsona ibili diren zentro hauetan eta horien bidez zenbatek lortu duten lan-merkatu arruntera sar- tzea. Azken datu horretara hurbiltzeko, Euskal Herriko Lan Ba- bestuen Elkarteak —Ehlabek— emandako datuak izango ditugu kontuan. Elkarte hori EAEn erreferentzia eztabaidea da, ez bakarrik zentro gehienak biltzen dituelako, baita lanaren prospek- zioaren arloan politika pribatuak garatzen dituelako. Bada, zentro horretako lan-ikuskatzaileen ekipo batek 720 enpresa bisitatu zi- tuen 2005. urtean eta 125 lanpostu aztertu zituen, eta honako emaitza jaso: 94 pertsona lan-munduan sartuta, gehienak gainera adimen-ezgaitasuna dutenak.

Ehlabek, berebat, administrazioak gure erkidegoan lan babestuko erakundeei ematen dizkien diru-laguntzak aztertu zituen, betiere az- terketa horretan kontuan izanik kostuak Administrazioan duen eragi-

Eskura dauden datuek adierazten dutenez, %15ek laneko hezitzaileak dauzkate, eta %5 baino gutxiagok enplegu arruntera (ohikoena 50 langiletik gora duten EZBetan) iritsi diren pertsonen jarraipena egiten du

na, eta kontuan izanik, halaber, diru-laguntza hori bai laneko zentro-
etara bai enplegu-zentro berezietara joaten dela, bi ereduak baitaude
diruz lagunduta horretarako eskuduntza duten erakunde desberdinen
bidez: foru aldundiak eta Inem, hurrenez hurren.

Elementu horiek guztiak kontuan izanik, beraz, Ehlaberen anali-
siak ondorioztatzen duenez, ehuneko itzulia, hau da, Administrazioak
berreskuratzen duen emandako laguntzaren zenbatekoa, handituz
joan da eta %82 ingurukoa da. Datu horretatik ondoriozta daiteke
kostuak gutxituz doazela eta laneko zentroen eta laneko zentro bere-
zien eragingarritasunak, enpresei dagokienak, gora egin duela.

32. taula. Administrazioaren eta zentroen arteko ordainketa eta sarrerak (euroak milakoetan)

	2000	2001	2002	2003	2004
Ordainketak	32.833	36.158	37.713	40.247	44.143
Sarrerak	25.028	28.942	31.148	32.892	36.032
Diferentzia	7.805	7.217	6.565	7.355	8.111
Administrazioari itzulitakoa	%76	%80	%82	%82	%82

Iturria: EHLABE: Euskal Autonomia Erkidegoan administrazioak lan babestuko erakundeei ematen
dien laguntzaren azterketa ekonomikoa. 2004.

4.2.5. Telelana

Gaurdaino, ezgaitasuna duten pertsonen telelanarekin zerikusi
duten esku-hartzeek ez dute garapen handia izan. Izatez, telelanak
oro har ez du hedapen handirik izan lan-merkatuan, duela urte batzuk
aurreikusi zena baino askoz ere gutxiago. Ezgaitasuna duten pertso-
netan modalitate honek izan duen garapen txikiaren arrazoia izan dai-
teke, halaber, “leize digital”a, hau da, teknologia berriekin lan egite-
ko ez gaituek oro har duten kualifikazio eskasa, informazioaren gi-
zartean dauden irisgarritasun-oztopoak, hala nola, interfaze ezin iri-
tsizkoak, irisgarritasun arauetara egokitu gabeko iturri-kodeak, ergo-
nomikoak ez diren periferikoak, eta abar.

Eredu honen garapen eskasa ulertzen laguntzen duen beste fakto-
re bat lanaren eta gizartearen antolamendu-kulturan ohitura berririk
ez egotea litzateke. Gizarteko ingurunea, enpresak eta langileak oro
har, motelegi doaz aurrerako bidean, eta hori oztopo bat da telelana
aukera bezala onartzeko.

Izatez, telelanaren garapena bultzatzeko abian jarri diren ekimen
batzuk, hala nola, telezentroak sortzea, aldatu egin behar izan dira

**Gaurdaino, ezgaitasuna
duten pertsonen
telelanarekin zerikusi
duten esku-hartzeek ez
dute garapen handia
izan. Izatez, telelanak
oro har ez du hedapen
handirik izan lan-
merkatuan, duela urte
batzuk aurreikusi zena
baino askoz ere
gutxiago**

orain arteko emaitzak ikusita. Hasiera batean telezentroak telelanerako gailuak jarri zituzten telelangileen eta enpresen balizko eskariak estaltzeko eratu baziren ere, izan duten garapen urriak eragin du, kasu gehienetan, telezentro horiek prestakuntzarako azpiegituratzat erabiltzea, hots, leize digitala estaltzeko eta herritarrei teknologia berrietara iristeko aukera bat eskaintzeko, baino oso gutxitan erabili dira bertatik lan egiteko moduko zentro bezala.

Baina modalitate honek eman dituen aurrerapausoak txikiak izan arren, enplegura iristeko benetako aukeratzat jotzen da. Edozein lekutatik eta edozein ordutan lan egiteko aukera ematean ezgaitasun duten pertsonak ohiz izaten dituzten hesi guztiak gainditzeko balio du. Modalitate honi atxikitako abantailak dira autonomia handiagoa, antolatze askatasun handiagoa, leku batetik besterako joan-etorriak gutxitzea, enplegurako aukera handiagoak, helburuka lan egiteko aukera, norbere erritmora egokitzeko abantaila, eta gainera, ohiz lan-harremanen hasieran batzuetan egoten diren susmo txarrak gainditzen lagun dezake.

Lan-modalitate honen alde baikorrak zerrendatzeak ez du esanahi lanak, berez, alde ezkorrik ez duenik, hala nola pertsona bat bakandua gelditzeko arriskua edo beste pertsona batzuekin harreman zuzen eta pertsonalik ez edukitzea. Arrisku horri aurre egiteko mentalizatzeko arazo bat egon daiteke. Talde batekoa ez izateak edota bakantasanak eraginda “klase kontzientzia”rik ez edukitzeak nortasun eta laguntza emozional falta eragin dezake.

Nolanahi ere, baliteke telelana beste tresna bat gehiago izatea, baina ez du ematen gakoa izango denik ezgaitasuna duten pertsonak bere osotasunean lan-merkatu arruntean sartzea ahalbidetzeko.

4.2.6. Ezgaitasuna duten pertsonen buruzko legedi espezifiko

Kudeaketaren kalitateari eta bizi-kalitateari emandako aurreko kapituluan, bi araudiren aipamena egiten zen, horiek baitira botere publikoetatik pixkanaka-pixkanaka ezgaitasun-, mendetasun- edo bazterketa-egoerara eramaten duten beste egoera batzuetan dauden pertsonen boterea ematen ari zaiela erakusten dutenak. Bi araudi horiek ziren, alde batetik Gizarte-Zerbitzuen Euskal Legearen aurreproiektua eta Mendekotasunaren Arretarako eta Autonomia Pertsonalerako Legea.

Hala eta guztiz ere, gaurko egunez eta ezgaitasuna duten pertsonen dagokienez zehatzago jardun nahirik, EAEn Gizarte Zerbitzuei buruzko 5/1996 Legeak sustatu eta bermatzen ditu biztanleria osoak gi-

Baliteke telelana beste tresna bat gehiago izatea, baina ez du ematen gakoa izango denik ezgaitasuna duten pertsonak bere osotasunean lan-merkatu arruntean sartzea ahalbidetzeko

zarte-zerbitzuak jasotzeko dituen eskubideak. Lege horren xedea da sustatzea eta bermatzea Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuko biztanleria osoak herri-erantzukizuneko gizarte-zerbitzuen sistema integratua izateko duen eskubidea, honako helburuekin:

- Gizarte-bazterketa eta desberdintasunak sortzen dituzten arrazoiei aurrea hartzea eta horiek deuseztatzea.
- Pertsona eta kolektiboen gizarteratzea sustatzea, eta
- Pertsona eta kolektiboen garapen osoa eta librea bultzatzea, horretarako egungo gizarte-eredura egokituta.

Estatuaren eskumen-eremuan ezgaitasunari eragiten dioten arauak ezartzen dituzten lege garrantzitsuenetako batzuk ondorengoak dira:

- Minusbaliatuak Gizarteratzeai buruzko Legea, MGL, 1982koa.
- 1978ko Espainiako Konstituzioaren I Tituluaren 41. eta 49. artikulak.
- Abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretua, minusbaliatasun maila onartu, izendatu eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoa.
- Abuztuaren 3ko 946/2001 Errege Dekretua, Ezgaitasunari buruzko Errege Patronatuaren Estatutua onartzen duena.
- Martxoaren 1eko 238/2002 Errege Dekretua, Migrazio eta Gizarte Zerbitzuetako Institutuaren egitura organikoari eta funtzioei buruzkoa.
- Uztailaren 26ko 775/2002 Errege Dekretua, ezgaitasuna duten pertsonen Europako Urtearen Koordinaziorako Espainiako Batzordea sortzea onartzen duena.
- 51/2003 Legea, pertsona ezgaituen aukeren berdintasunari, ez diskriminatzeari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa.

Estatuaren eskumenen barruan, duela gutxi Ezgaitasuna duten pertsonen enplegurako ekimen globalaren estrategia onartu da, 2008. urtetik aurrerako epealdi batez. Estrategia horretan arau, programa eta aurrekontuetarako ekimen eta neurrien egutegia zehazten da. Eta horiekin guztiekin ezgaitasuna duten pertsonak lan-merkatura iristeko neurriak bultzatu eta sistematizatu nahi dira.

51/2003 Legeak, berdintasun aukerei buruzkoak, arreta berezia merezi du sortzen dituen inplikazioengatik. Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko Legea, MGL, xedatu zenez geroztik mende laurdena pasa da, eta, pertsona ezgaituen aukeren berdintasunari, ez diskriminatzeari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko lege berriak ez du zalantzan jartzen aurrekoaren indarra, baina nahitaez-

EAEn Gizarte Zerbitzuei buruzko 5/1996 Legeak sustatu eta bermatzen ditu biztanleria osoak gizarte-zerbitzuak jasotzeko dituen eskubideak. Lege horren xedea da sustatzea eta bermatzea Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuko biztanleria osoak herri-erantzukizuneko gizarte-zerbitzuen sistema integratua izateko duen eskubidea

kotzat jotzen du beste lege arau bat ezartzea MGL Legearen osagarri izan dadin eta, “bultzada berria eman diezaien ezgaitasuna duten pertsonak parekatzeko politikei”.

Legearen atarian, bi arrazoi ematen dira lege berri baten beharra justifikatuko luketenak:

- Oraindik gizartean desberdintasun-egoerak ematen dira, nahiz eta Konstituzioak horren kontrako aldarrikapenak egin eta lege haren ondorioz egindako ahalegina handia izan.
- “Ezgaitasunaren” fenomenoak ulertzeko eran aldaketak izan dira eta, ondorioz, ikuspegi eta estrategia berriak sortu dira: ezgaitasuna duen pertsona batek dituen desabantailen hasieran zailtasun pertsonalak daude, baina baita, eta batez ere, gizartean bertan dauden eragozpenak eta baldintza mugatzaileak ere.

Ikuspegi hori dela eta, legeak berak dio nahitaezkoa dela esku-hartzeko estrategiak diseinatzea eta abian jartzea, baldintza pertsonaletan eta ingurunearen baldintzetan aldi berean eragiteko.

Gizarte babeserako lege marko horretan komenigarria da diskriminazio zuzenaren eta zeharkakoaren arteko bereizketa egitea.

Diskriminazio zuzentzat hartzen da pertsona bat antzeko egoeran dagoen beste pertsona bat bezain ongi tratatzen ez denean. Zeharkako diskriminazioa, berriz, erabaki, irizpide eta praktika batek, berez neutroa dirudienak, desabantaila partikular bat sortzea da.

Zuzeneko debekua, hau da, ezgaitasuna duten pertsonen jantze batera sartzeko debekua, gaur egun ere oraindik ematen da, baina esan beharra dago horiek kasu bakanak direla. Baina oraindik arau izaten jarraitzen duena da jantze batera sartu ezin izatea fisikoki irisgarritasun baldintzak betetzen ez direlako, eta hori diskriminaziotzat hartzea izugarritzko aurrerapena dela esan behar da.

Diskriminazioaren kontrako legediaren oinarrian estandarrak eta lege baliabideak ezartzeak egon behar du, ezgaitasuna duten pertsonen, eta horien erakundeek, legea bete dadin eskatzeko aukera izan dezaten. Bere burua irisgarritzat definitzen duten hotelak egotea, irisgarritasun baldintzak bete gabe, esate baterako, adibide ona da estandarrak zergatik diren beharrezkoak erakusteko. Azken finean, lege bat ona da betetzen bada, soilik, eta, beraz, diskriminazioaren kontrako legediak beteko dela bermatuko duten mekanismo egokiak sortu behar ditu.

Betetzearen inguruan, azpimarratu beharra dago legez haren zerbitzuek irisgarritasun baldintzak betetzera behartuta egon diren enpresek merkataritza-abantailak lortu dituztela, baina legearen agindu hori izan ez balitz, enpresa gehienek ez zituzten irisgarritasun bal-

Diskriminazio zuzentzat hartzen da pertsona bat antzeko egoeran dagoen beste pertsona bat bezain ongi tratatzen ez denean. Zeharkako diskriminazioa, berriz, erabaki, irizpide eta praktika batek, berez neutroa dirudienak, desabantaila partikular bat sortzea da

dintzak bereganatuko. Hau da, ezgaitasuna duten pertsonak ezin dira enpresen merkataritza ikuspegiaren gaitasunaren mende gelditu.

Ez dago zalantzarik, diskriminazioaren kontrako legediaren ondorioa da gizarte irisgarriago bat eskuratzea, baina kontuan hartu behar da hori ez dela nahikoa. Adibidez, ez badago kalitatezko laguntza-zerbitzurik, garun-perlesia larria eta horri lotutako adimen-ezgaitasuna duen pertsonak laguntza beharko du eskubide hori baliatzeko. Bermatu behar dena da eskubidea gauzatzeko eskubidea. Eredu grafiko bat jartzeagatik, ezgaitasuna duten pertsonak jatetxe edo garraiobide gehienak erabiltzeko eskubidea izatea lor liteke, baina, era berean, eskubidea gauzatzeko eskubiderik izan gabe gerta liteke “etxe gabea” bihurtzeko aukera handiak izatea.

4.2.7. Herri-politikak eta enpleguaren sustapena

Botere publikoek beren eskumenekoak diren testuinguru alderdian eta ezgaitasun-egoeran eragina duten alderdian esku hartu behar dute. Lan-eremuan, haien zereginetako bat izan behar du ezgaitasuna duten pertsonen jarduera-tasa handitzea.

Helburu hori lortzeko, eta laguntza batzuk enplegu normalizatua lortzeko disuasio-elementuak izan ez daitezten, hartzen den neurrietako bat da epe jakin batean soldata eta ezgaitasuna dela eta kotizatu gabekoen pentsioa aldi berean kobratzea. Baina neurri argi bat baldin badago, hori dagoeneko aipatu dugun enplegu-zentro bereziak dira. Izan ere, EZBak finantzatzeko iturrietako bat herri-administrazioak dira. Pertsona hauen jarduera-tasa handitzeko ahalegina egiten duten beste neurri batzuk kontratuei lotutako modalitateak dira.

Diskriminazioaren kontrako legediaren oinarrian estandarrak eta lege baliabideak ezartzeak egon behar du, ezgaitasuna duten pertsonak, eta horien erakundeek, legea bete dadin eskatzeko aukera izan dezaten

33. taula. Espainian ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke ematen diren pizgarriak (I)

	Pizgarriak
Minusbaliatuentzako behin betiko kontratua	<p>3.907 euroko diru-laguntza lanaldi osoz emandako kontratu bakoitzeko. Hoberiak Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa-kuotetan, laneko istripuei eta laneko gaixotasunei dagozkienak barne, eta batera bildu beharreko kuotetan kontratuak irauten duen bitartean, ondorengo kopuruetan: -%70 kontratatzen den berrogeita bost urtetik beherako langile bakoitzeko. Emakumezkoa baldin bada hobaria %90koa izango da. -%90 kontratatzen den berrogeita bost urtetik beherako langile bakoitzeko. Emakumezko ezgaitua baldin bada, %100ekoa izango da.</p> <p>Diru-laguntzak lanpostuak egokitzeko edo babes pertsonaleko baliabideak ezartzeko, 901,52 euro arte.</p> <p>Diru-laguntzak langile minusbaliatuen laneko prestakuntzarako.</p> <p>4.808,10 euroko kenkariak sozietateen gaineko zergan, kuota osoan, lanpostuen zerrendan urte bakoitzean behin betiko kontratuarekin sartzen diren langile minusbaliatuen batez bestekoa handitzeagatik, aurreko urteko datuekin erkatuta</p>

33. taula. Espainian ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke ematen diren pizgarriak (II)

	Pizgarriak
Behin-behineko kontratua minusbaliatuentzat	Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa-kuotetan %75eko murrizketa, kontingentzia arruntengatik, kontratua lanaldi osokoa baldin bada. Murrizketa hori %100ekoa izango da kontratatutako lehenengo langilearen kasuan, betiere 2002ko urtarrilaren 1etik ez badute langilerik izan haien zerbitzura. Emakumezko minusbaliatuak kontratatuko balira, %90eko hobaria enpresa kotizazioan, kontingentzia arruntengatik, kontratatutako emakumeak 45 urte edo gehiago baldin baditu, eta %80koa hori baino gazteagoa baldin bada.
Minusbaliatuen prestakuntzarako kontratuak	%50eko murrizketa Gizarte Segurantzaren enpresa-kuotan, kontratu mota honetarako aurreikusia.
Langile minusbaliatuentzako praktikaldiko lan-kontratuak	Kontratuak dirauen bitartean Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa-kuotaren %50eko murrizketa, kontingentzia arruntei dagokiena (betiere kontratua lanaldi osokoa baldin bada).
Bitarteko lan-kontratuak ezgaitasuna duten langile langabetuekin aldi baterako ezintasuna dela eta kontratua etena duten langile ezgaituak ordezkatzeko	Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa-kuotaren %100eko hobaria, laneko istripuei eta laneko gaixotasunei dagozkienak, eta batera bildu beharreko kuotetan egin beharreko enpresa-ekarpenetan.

Iturria: Alfonso Alba, Fernando Moreno: Discapacidad y Mercado de Trabajo, Gente Interactiva SL, Madrid, 2004.

Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legea (MGL) betetzen dela bermatzea egin beharreko ekintza da, baina ez da nahikoa ezgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean aktibatzeke. Euskal administrazioak Pertsona ezgaituak lan-merkatu arruntean txertatzeko planean helburu bat du ezarrita, hots, bermatzeko ezgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean txertatuko direla. Helburu generiko horren bidez burutzen diren hainbat esku-hartze kontratazioa sustatzera bideratzen dira, finantza-pizgarriak eta laguntza teknikoak eta giza baliabideak ezarrita, baita jarduerak gauzatzeko eremu honetan dauden mugak deuseztatzera ere: garraioa, irisgarritasuna, ikerketa, garapen eta berrikuntzaren alorreko politiken garapen urria eta abar.

EAEn ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke pizgarriak garrantzitsuak dira. 2005. eta 2006. urteetako datuek erakusten dute ezgaitasuna duten mila pertsonatik gora izan direla neurri horien onuradun. Ezgaitasuna duten pertsonen behin betiko kontratuak egiteari ematen zaizkion laguntzak izan daitezke, gutxi gorabehera, pizgarri horren bidez kontratatutako langile guztien erdia. Erabateko diru-laguntzen portzentajea, ordea, txikiagoa da.

Ezgaitasuna duten pertsonen behin betiko kontratuak egiteari ematen zaizkion laguntzak izan daitezke, gutxi gorabehera, pizgarri horren bidez kontratatutako langile guztien erdia. Erabateko diru-laguntzen portzentajea, ordea, txikiagoa da

34. taula. EAEn ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko ematen diren laguntzak

Enplegua sustatzeko kontratua	Kontratuaren iraupena 12 hilabete eta 3 urte bitartekoa denean, diru-laguntzen barruan hobariak izango dira Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotan eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak –gutxienez 18 hilabete-.
Lan-kontratu finkoa	Barruan daude Gizarte Segurantzaren kuotaren hobariak eta itzuli behar ez diren diru-laguntzak, EINek emandakoak. Lanbide hezkuntzarako eta lanpostua egokitzeko diru-laguntzak ere jasotzen ditu, baita kontratazioa burutzen den urteko Sozietateen gaineko Zergan kenkaria ere.
Prestakuntza-kontratua	Gutxienez 18 hilabeteko kontratueta bideratua. Laguntza da Gizarte Segurantzaren enpresa-kuotaren murrizketa eta diru-laguntza bat.
Praktikaldiko lan-kontratua	6 hilabete eta 2 urte bitarteko praktikaldiko kontratazioak Gizarte Segurantzaren enpresa-kuoten hobaria eta diru-laguntza ditu (Eusko Jaurlaritza). Ezarritako soldataren nolabaiteko murrizketa onartzen du (inolaz ere ez lanbide arteko soldataren azpitik).
Laneko enklabe bateko langileen kontratazio mugagabeal	Laneko enklabe bako langile ezgaituen kontratazioak (enplegu-zentro berezietatik azpikontratutako jardueraren garapenerako enpresetara lekualdatuak) ere laguntzak jasotzen ditu. Horien kopurua ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzean oro har ematen direnak baino altuagoak izan daitezke, langileak duen ezgaitasun motaren arabera
Laguntza espezializatuak ezgaitasuna duten pertsonak txertatzeko	Prestakuntzarako laguntzak, kontratatzeko konpromisoarekin. Prestakuntza gastu zuzenen %100 finantzatzen dute, baldin eta prestakuntza prozesua bukatzen duten pertsonen %60 kontratatzeko konpromisoa badago.
Hobariak Gizarte Segurantzako kuoten gainean	%50 (prestakuntza kontratua) eta %100 artean (mugagabea, emakumezkoak >45 urte)
Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak	Lanbide arteko gutxieneko soldataren %55, urteko soldata gordinaren %60 gehienez
EINen diru-laguntza orokorrak	3.907€ (kontratazio mugagabea) eta 9.015€ artean (kooperatiba eta sozietate laboraletan sartzea)
Lanpostua egokitzeko diru-laguntzak	902€ arte
Sozietateen gaineko Zergan murrizketak	6.611€ arte

Iturria: Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza 2006.

Enpresei pizgarriak emateko esku-hartzea burutzeak ez du esan nahi bestelako esku-hartze globalagorik burutu behar ez denik; esaterako, enpresetan azterketak egitea eta harremanetan jartzea kontratazio horien alde onak eta eskaintzen diren laguntzen berri emateko, eta jarraipena egin ahal izateko.

Laguntzan oinarritutako gizarteratze-prozesuen metodologiak ezgaitasuna duten pertsonak laneratzeko prozesuetan ere ia ahobatezko atxikimenduak eragiten ditu. Ildo horretan, positibotzat jotzen da “enplegu lagundua” eta “enklabe laboralak” bezalako metodologiak garatzea.

Kapitulu honetako “komunitatean bizitzea”ri buruzko atalean ikus zitekeen, eta koadernoaren hainbat puntutan zeharka ere bai, garraioa izan daitekeela ezgaitasuna duten pertsonen ekosisteman funtzionatzeko duten eragozpen nagusienetako bat, eta horien irisgarritasuna, beraz, oztupoak kentzea helburu duen politika baten muina dela. Lan-eremuan, administrazioak garraioaren alorreko laguntza batzuk garatu ditu, oro har laguntza espezifikoak ematera bideratuak. Garraioaren erabilera unibertsalagoa eginez gero, nabarmenago eragingo litzateke jarduera-tasaren hazkundera.

Jarduera sustatzeko era zuzenago bat enplegu autonomia sustatzea da. Politika horren garapena mugatua izan da: 2005. urtean Eusko Jaurlaritzak egindako sustapenean ezgaitasuna zuten bi pertsonak soilik sartu ziren Autoenplegua Sustatzeko programan. Beste administrazio batzuek lortu dituzten emaitzak ere ez dira batere garrantzizkoak izan (azken urtean Gipuzkoako Foru Aldundian lau pertsonentzako autoenplegurako diru-laguntza eskaerak jaso dira). Ezgaitasuna duten pertsonak autoenplegura iristea beharrezkoa bada ere, badirudi gaurkoz alor horrek ez duela garapen handirik izango.

Laguntzan oinarritutako gizarteratze-prozesuen metodologiak ezgaitasuna duten pertsonak laneratzeko prozesuetan ere ia ahobatezko atxikimenduak eragiten ditu. Ildo horretan, positibotzat jotzen da “enplegu lagundua” eta “enklabe laboralak” bezalako metodologiak garatzea

5. Makrosistema

5. MAKROSISTEMA

Gure gizartean esplizitu edo inplizituki arautzen duen makrosistema, edo jarrerak, balioak, eta sinesmen-sistema, lane-ko koaderno honetan jarraitzen den kontzeptuzko ereduaren azken maila da.

	Gizarte-laguntzak / Etxebizitza	Hezkuntza	Lana
Makrosistema	Sinesmen-sistema Aurrea hartzea Ikertzea Sentiberatzea Irisgarritasun unibertsala: denontzako diseinua		

5.1. SINESMEN-SISTEMA

Europar Batasunak 2003. urtea “Ezgaitasuna duten Pertsonen Europako Urtea” izendatu zuen. Era berean, onartu egin zen biztanleria osoa kontzientziatu beharra dagoela, herri-administrazioa barne, alegia, nahitaezkoa dela ezgaitasun-egoera duten pertsonen erabateko gizarte-integrazioa lortzea.

Horrelako ekimen eta adierazpenen balioa ez da txikia; izan ere, nahiz eta espero genuena baino motelago izan, gaur egun nagusi den sinesmen-sisteman ari dira beren eragina uzten, eta, era horretan, gizartea ingurune solidario eta integratzaileago bihurtzen ari da.

Erakunde konprometituenetako batzuek ezgaitasuna duten pertsonen haien bizitzaren jabe izateko duten erabateko zentraltasunaren aldeko defentsa egiten dute. Elkarri laguntzea, autodefentsa eta bizitza independentea bezalako kontzeptuak ere paradigma horren zati dira. Ildo horretan, autodefentsatzat ulertzen da pertsonen— adimen-egaitasunak duten pertsonak— hitz egitea, beren burua ordezkatu ahal izatea eta autogobernatzea. Horren ondorioa da haien bizitza propio-rako erabakiak hartzea, jendearekin harremanak izatea, familia barruan nahiz familiarik kanpo, akatsak egin eta desengainuak izateko esperientzia ezagutzea, haiengandik sortzen diren sentimenduak menderatzeko laguntza izatea, haien gustu eta ikuspuntu propioak garatzea, helduak izateko aukera ematea eta haien adinerako egokia den tratamendua jasotzea. Gure Erkidegoan elkarte pribatuek aspalditik autodefentsarako programak burutzen dituzte.

Ezgaitasun fisikoa duten pertsonentzat bizitza independentearen printzipioa da garatuena. Printzipio horrek errebindikatzen du gizarte osoarentzat begien bistakoa den exijentzia: gure bizitza kontrola-

Biztanleria osoa kontzientziatu behar da, herri-administrazioa barne, alegia, nahitaezkoa dela ezgaitasun-egoera duten pertsonen erabateko gizarte-integrazioa lortzea

tzeko dugun eskubidea. Hala eta guztiz ere, ezgaitasun fisikoa duten pertsonak, gaitasun kognitiboa murriztua ez duten arren, askotan ikusten dute ez dutela kontrol hori bere esku. Bizitza independentearen oinarritzko printzipioak giza eskubideak eta eskubide zibilak dira, autodeterminazioa, autolaguntza, boterea gauzatzeko aukera, bizitza propioaren eta jardueren gaineko erantzukizuna, eta arriskuak hartzeko eskubidea. “Bizitza independentearen aldeko filosofiaren helburua da gizarteak ezgaitasuna duten pertsonen gainean, eta, bereziki, eguneroko bizimodua aurrera eramateko beste batzuen laguntza behar duten pertsonen gainean duen ikuspuntua aldatzea”.

Bizitza independenteak talka egiten du norberak eta gainerakoek sentitzen duten lastimaren kontra, gutxiespenaren kontra, ezgaitasuna izateagatik pertsonari balio handiegia ematearen kontra.

Behin orientazioa markatzen duten printzipio batzuk aipatuta, herri-administrazioak modu zehatz batean jardun behar du. Eta, ildo horretan, jadanik badaude adierazpen politikoak, hiru lurralde historikoetako gizarte-zerbitzuetako ordezkari gorenak sinatutakoa, esate baterako. Bertan adierazten da osasun- eta gizarte-zerbitzuen eremuetan nahitaezkoa dela ahaleginak egitea ezgaitasuna duten pertsonak beren arreta eta bizimoduan eragina duten erabakietan parte hartze aktiboa izan dezaten sustatzeko. Jasota dago, era berean, pertsona horiek artatzen dituzten zerbitzuen eta zentroen jardunaren arau nagusia oinarritzko eskubideen errespetua izan behar dela: duintasuna, intimitatea, autonomia, aukeratzeko askatasuna, nahi pertsonalak asetzeko aukera eta eskubideak gauzatzea.

Hezkuntzari dagokionez, erakundeek arazo kognitiboak dituzten pertsonen ikasteko erritmoak eta edukiak gogoan hartu beharko lituzkete, eta, gainera, garrantzi handiagoa eman beharko liekete eguneroko bizimoduaren jardueretan ezgaitasuna duten pertsonen autonomia hobetzen laguntzen duten irakasgaiei. Azkenik, curriculum eta material pedagogikoak berrazter litezke, ezgaitasuna duten pertsonenganako diskriminazio negatiboa deuseztatzeko.

Beste alde batetik, diseinu unibertsalaren filosofia instantzia publikoen beste eremu batzuen konpromisoan ere gauzatu behar da, hala nola hirigintza, etxebizitza eta industria.

Lan-eremuan, hain zuzen ere koaderno honen ardatza den gaian, komenigarria litzateke jardueren antolaketa malguago bat burutzea, laneko eta ikasteko erritmo desberdinak aldi berean izateko aukera egon dadin. Enplegu publikoan lan egiteko probetan parte-hartzea ere erraztu beharko litzateke eta, oro har, hautaketa prozesuetatik pertso-

Bizitza independentearen oinarritzko printzipioak giza eskubideak eta eskubide zibilak dira, autodeterminazioa, autolaguntza, boterea gauzatzeko aukera, bizitza propioaren eta jardueren gaineko erantzukizuna, eta arriskuak hartzeko eskubidea

nen diskriminazioa deuseztatu, laneko baldintzak hobetu eta laneko sustapena burutzea.

Beste alde batetik, informazioaren gizartean ezin ukatuzkoa da hedabideek iritzia eta oinarri ideologiko partekatua sortzerakoan duten garrantzia. Horien aurreiritziak, interesak, estigmak eta, zenbaitetan, horien desinformazioa, neurri batean gizartearen desinformazioa dira. Helburua da hedabideek duten potentziala baliatzea; izan ere, oso aktore garrantzitsuak dira balioak, iritzia eta, azken finean, sinesmen-sistema sortzeko eta mantentzeko garaian. Hiru aldundietako gizarte-ekintzako arduradunek sinatutako “Berdintasunean” adierazpenak ere bere barne hartzen ditu hedabideei egin beharreko gomendioak:

- Informazio osoa eskaintzea ezgaitasunaren errealitatearen inguruan, eta okerreko interpretazioak egitera daramaten aurkezpen partzialak ez egitea, esate baterako pertsona horiek gizartearen-tzako zama balira bezala aurkeztea.
- Estereotipoak ekiditea. Ezgaitasuna duten pertsonen gaineko irudi orekatua eman behar da, dituzten koalitate eta akatsen berri emanez.
- Pertsonak egoera anitzetan erakutsi behar dira: etxean, ikastetxean, lanean, lagunekin eta abar.
- Ezgaitasuna duten pertsonen irudi positiboa eskaini behar da, eta saihestu egin behar da duten ahultasun eta mendetasunarengatik sistematikoki bereiztea.
- Saihestu egin behar da pertsona baten ezgaitasunaren berri ematea informazioaren gai nagusiarekin zerikusirik ez duenean.
- Azpimarratu beharra dago ezintasuna duten pertsonak gainerako pertsonak dituzten eskubideen titularrak direla, eta gaur egun eskubide horiek gauzatzeko dauden eragozpenen eta leudekeen gehiegikeria-egoeren berri eman behar da.
- Sentsazionalismoa saihestu behar da, hala nola ezgaitasun mota zehatz batzuen erabilera morbosoa.
- Ezgaituen interesen informazio-estaldura hobetu behar da, pertsona horien interesak egoki tratatzen dituzten artikulua eta erreportajeak prestatuta.
- Programazioaren edukian ezgaitasuna duten pertsonen ordezkaritza handitu egin behar da.
- Hedabideetako profesionalek erabiltzen dituzten estilo-liburuak egokitu behar dira. Bereziki, garrantzitsua da beti ezgaitasuna duten pertsonari buruz aritzean aurretik pertsona izena erabiltzea.

Bizitza independenteak talka egiten du norberak eta gainerakoek sentitzen duten lastimaren kontra, gutxiespenaren kontra, ezgaitasuna izateagatik pertsonari balio handiegia ematearen kontra

Erakundeen adierazpenek eta joerek zeharkako politikak, proiektuak edo estrategiak erabiltzea eskatzen dute, baina horrekin batera eraginkortasun arazoak sortzen dira.

Orain arte sinesmen-sistemaren alor honetan adierazi ditugun alderdiak kolektiboek baino gehiago beharrei dagozkie. Funtzionamendu, Urritasun eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapenarekin (FNS) koherentea den estrategia horrek ulertzen du ezgaitasuna heterogeneoa dela, eta egoera horretan ezaugarri komunik ez duten pertsona asko daudela sartuta. Ezgaitasun-egoera bat zehazten edo baldintzatzen duten inguruko faktoreak ez daude administrazioaren arlo bakar baten ardurapean. Gizarte-zerbitzuek, lanak, etxebizitzak, garraioak, hirigintzak, osasunak edo hezkuntzak, beraz, ezin dute departamentu isolatu gisa jardun ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak bete eta betearazteko garaian.

5.2. AURREA HARTZEA

Aurrea hartzea da ezgaitasuna sortzen duen prozesua ekiditeko hartu beharreko lehenengo neurria. Jakina, badira osasunean edo adinean jatorria duten urritasunak, eta horiek, gaur egun, ezin dira saihestu eta ezgaitasun-egoera dute ondorio. Baina, ezgaitasunaren arrazoa gero eta gehiagotan istripuak izateak agerian uzten du ezgaitasun-egoerak saihesteko hartu beharreko neurrien artean aurrea hartzea dagoela.

Laneko istripuek eta zirkulazio-istripuek pisu garrantzitsua dute. Estatu osoan eskura dauden datuen arabera, lehenengo istripu mota hori 150.000 urritasun kasuen atzean dagoen bitartean, errepideak 95.000 kasu inguru sortu ditu.

Lan-eremuan, laneko arrisku eta laneko istripuei aurrea hartzea aztertu beharreko ardatz nagusia da.

EAEko ezintasun-pentsioen kopurua adierazle ona da ezgaitasunaren jatorria gero eta maizago laneko istripuetan dagoela erakusteko. Gurea bezalako gizarte industrializatu batean langileentzat arrisku ugari izatea, istripuak edo produktu fisiko eta kimikoek organismoan sortzen duten eragina dela eta, ez da eragozpena izan behar arriskuaren kontrako borrokaren oinarria izan ez dadin. EAEk, beraz, enpresa eta langileen erakundeekin batera bere gain hartu behar du garatzen dituen politiketan arriskuei aurrea hartzeak lehentasuna izan behar duela.

Administrazio gehienek kontsideratzen dute arriskuei aurrea hartzeko eremua nahikoa garatua dagoela. Funtzio Publikoaren barruko

Gizarte-zerbitzuek, lanak, etxebizitzak, garraioak, hirigintzak, osasunak edo hezkuntzak, beraz, ezin dute departamentu isolatu gisa jardun ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak bete eta betearazteko garaian

kudeaketa prozesuak oso zorrotzak dira, eta Estatuko lanerako ildoek baldintzatzen dituzte.

Biztanleria osoarentzat ezartzen diren prebentziorako politika horiez gain, Eusko Jaurlaritzak adierazten duenez badago prozedura orokor bat, mugikortasun murriztua dutenen kasuetarako. Horren helburua da ezgaitasuna duen pertsonaren kokapen fisikoaren berri izatea, laneko zentroen larrialdietarako planak egokitu ahal izateko. Larrialdi-egoera batean pertsona hauek ezin badute zentroa beren kasa utzi, segurtasunerako langileek non dauden jakin behar dute. Egoera horiei aurrea hartzeko, lanpostua ere egokitu egiten da eta Irisgarritasunari buruzko Legea hartzen da kontuan, baita lantokirako sarbidea egokitua egotea ere.

Orain arte ikusitako maila ekologiko desberdin guztietan, batez ere egituran, gaitasunean, baita jardueran ere, ukaezina da osasun-sistemak duen paper garrantzitsua. Makrosisteman, osasun-sistemaren barruan aurrea hartzeari buruzko diagnostikoa egiteko, hiru ezgaitasun mota bereizten dira, jatorriari kasu eginez: jatorria gaixotasun kutsakorretan dutenak, gaixotasun ez kutsakorretan dutenak eta sortzetiko eritasunetan dutenak.

EAEen gaixotasun kutsakorrak gutxiengoa dira, argi eta garbi, baina osasun-zerbitzuek ezin dute alderdi hori albo batean utzi edo eragotzi egin behar dute polioa edo meningitisa bezalako gaixotasunek ezgaitasuna sortzea. Txertatzeko kanpainak edo kontrol sakonak eginda, batez ere ikastetxeetan, ezgaitasun mota horren arrazoia murriztu egin behar da.

Dagoeneko aipatu den bezala, ezgaitasun gehienen jatorria gaixotasun ez kutsakorretan dago, maiz bizi-aztura ez-osasungarriekin zeharrikuzuzena dutenak. Hortaz, herri-erakundeek bizimodu osasungarri-rirako eredu baten aldeko apostua egin beharko dute, ohiturei zein elikadurari dagokienez.

Sortzetiko gaixotasunak, berriz, ezgaitasun-egoeren ehuneko hamarretik gorako kopuruaren atzean daude. Kontuan hartzen badugu aurrea hartzeko erabiltzen diren baliabide zientifikoak gero eta gehiago direla, jarduteko aukera berriak antzematen dira.

Beste sistema batzuei dagokienez, gizarte-zerbitzuek prebentziorako duten zeregina ere funtsezkoa da, batez ere maiz ezgaitasuna duten pertsonengan aldi berean ematen diren egoerak konpontzeko. Esate baterako, Nazioarteko Errehabilitazioa erakundearen arabera, gaixotasun edo lesio baten ondorioz ezgaitasuna duten pertsonak berriz ere bizi-tza autonomora itzultzeko gauza izaten dira eta lanaren bidez

Jakina, badira osasunean edo adinean jatorria duten urritasunak, eta horiek, gaur egun, ezin dira saihestu eta ezgaitasun-egoera dute ondorio. Baina, ezgaitasunaren arrazoia gero eta gehiagotan istripuak izateak agerian uzten du ezgaitasun-egoerak saihesteko hartu beharreko neurrien artean aurrea hartzea dagoela

beren buruaren jabe egiten dira, koaderno honetan egin den azterketan ikusi den bezalaxe. Nolanahi ere, hainbat egoeratan aldeztirik ezgaitasuna duten pertsona hauek, informazio egokia eta errehabilitaziorako baliabide egokiak eskainiz gero, bigarren mailako ezgaitasunak garatzen dituzte. Horrelakoetan, baliabide eta zerbitzu ezak ordura arte lortutako independentzia galaraz dezake.

Hori dela eta, osasun-sistemari dagokion garrantziarekin lotuta, aldeztirik aipatua, sistema horrek eta EAEko gizarte-zerbitzuek batera jardun beharko lukete dagoeneko koordinazio sozio-sanitarioaren arloan egiten duten bezalaxe, gizartean ahalik eta era normalizatuenean funtzionatzeko beharrezkoak diren tratamenduak eta suspertze fisikoa lortzea ahalbidetzeko.

5.3. IKERKETA

Aurrea hartzearekin zerikusi zuzena duen arlo, aldeztirik egin beharreko arloa da ikerketa. Hori makrosistemaren kontzeptuan sartuta dago, eta zeharka bada ere ezgaitasuna sortzen duten egoeren sorreran du eragina.

Koadernoaren aurkezpenean ikusten zen ezgaitasunari buruzko definizioa zeharo aldatzen dela erakunde batetik bestera, eta, hori dela eta, zaila da kuantifikatzea zenbat pertsona dauden egoera horretan eta zein diren pertsona horien beharrak. Eraginkortasun arrazoiak direla eta, ulertzen da ezgaitasuna duten pertsonak direla aldundiek onartutako minusbaliotasun maila dutenak, baina, hala eta guztiz ere, zaila da oso ezgaitasuna duten pertsonen egoera erreala ezagutzeko aukera emango digun informazioa lortzea. Hori dela eta, pertsona horien egoera erreala eta ezgaitasuna sortzen duten prozesuetan parte hartzen duten oinarrizko aldagaiak zein diren ezagutzea nahitaez lortu beharreko helburua da.

Logika horren barruan kokatu zen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila ezgaitasuna duten pertsonen kontratazioaren egoera erreala ezagutzeko aukera emango zuen azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa egitea eskatu zuenean. Lanbideek eskaintzen dituen zerbitzu guztietan ere ezgaitasuna duten pertsonen gaineko jarraipen-sistema bat ezarri denez, enplegurako euskal sisteman eskura dugun informazioak aldagai hori jasotzen du, eta aurrerantzean horren bilakaera ezagutu ahal izango da.

Dena den, ezgaitasunaren inguruko aldagaia EAEn izaera iraunkorarekin egindako beste azterketa eta inkestetan ez da maila berean sartu. Adibidez, garraioaren alorrean, Euskadiko Garraio Behato-

Dagoeneko aipatu den bezala, ezgaitasun gehien jatorria gaixotasun ez kutsakorretan dago, maiz bizi-aztura ez osasungarriekin zerikusi zuzena dutenak. Hortaz, herri-erakundeek bizimodu osasungarriko eredu baten aldeko apustua egin beharko dute, ohiturei zein elikadurari dagokienez

kia hasia dago ezgaitasunaren aldagaia mugikortasunari buruzko inkestan sartzen. Hori horrela, euskal herritarrek egiten dituzten bidaiei eta erabiltzen dituzten garraiobideei buruz aldiaren behin egiten diren azterketek ahalbidetu egingo dute ezgaitasuna duten pertsonen egoera mugikortasunaren arabera aztertzea.

Beste alde batetik, Hezkuntza Departamenduak bai du barneratua ezgaitasunaren aldagaia ikasleen analisisan. Aldagai hori funtsezkoa da eta baldintzatu egiten dute sistema horretan dauden baliabideek, hala nola hezkuntza behar bereziak, lanerako gelak eta abar.

Kultura Sailak ezgaitasunaren aldagaia sartu du EAEko Kultur Azpiegituren Planari dagokion azterketan, eta proposatuko du Gazteria, Kultura eta Kirolaren Euskal Behatokiak egin beharreko azterketan ere sartzea.

Aldundien zereginetan Foru Aldundien Gizarte-Ekintza arloek ezgaitasuna duten pertsonen gaineko informazioa jaso eta aztertzen dute, batez ere EINen datuekin zerikusia duena batez ere, baina baita eskatzen dituzten jarduketan ingurukoa ere, lan-kontratu finkoetarako diru-laguntzak esaterako.

Ezgaitasuna duten pertsonen baliabide guztien egoera eta erabilerrari eta horien beharrei buruzko informazioa lortzera bideratzeaz gain, baliabide horiek eskuratzea ahalbidetzen duten alderdi teknologikoak aztertzeraz bideratu behar da ikerketa.

Norabide horretan ikerketa aplikatuak eta baliabideen irisgarritasuna sustatzen duten teknologia eta produktuen garapenarekin zerikusia duen jarduera sorta bat bada, zehazki enplegua eta lanpostuak eta prestakuntza egokitzeko. Esate baterako, Hazilan, Equal-en ekimenaren barruko programa, planteatua dago EAEko lan-merkatuan bazterketari aurrea hartzeko, administrazioen eta bazterketa-egoeran dauden edo jasateko arriskuan dauden pertsonekin lan egiten duten erakundearen parte-hartzearen bidez (Eusko Jaurlaritzako departamentuak, foru aldundiak, Emakunde, Osakidetza, Ehlabe, Eudel, Giza Teknologiarenekin Aurrerakuntzarako Elkartea eta abar). Nahiz eta ezgaitasuna duten pertsonen soilik bideratua ez egon, egoera hori eskuhartze ugariaren helburu da, horien artean teknologien garapenarekin zerikusia duten batzuk: “Informazio eta Komunikazioko Teknologia Berriak (IKTB) erabiltzea ikasteko zailtasunak dituzten pertsonen okupazioa eta enplegagarritasunerako ikuspegi eta eduki berriak sustatzeko”, “I+G alorraren metodologiak garatzea eta horiek bazterketa-egoera jasateko arriskua duten kolektiboaren eskura jartzea”, “teknologia berriak erabiltzea lanpostuak egokitzeko bazterketa-arriskua

Hortaz, pertsona horien egoera erreal eta ezgaitasuna sortzen duten prozesuetan parte hartzen duten oinarrizko aldagaiak zein diren ezagutzea nahitaez lortu beharreko helburua da

jasateko arriskua duten pertsonen beharretara”, eta “komunikazioko teknologia berrietan kualifikazio profesionala lortzeko prozesua, Bizkaian gaitasun kognitiboak berreskuratzea edo lortzea eta gorria edo buruko gaixotasunak dituzten pertsonak lan-munduan txertatzera bideratua”. Horregatik, desabantaila-egoerak murrizteko asmoz, hori inplementatzea ikerketa teknikoan aurrera egiteko helburuaren barruan dago bete-betean.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, INNOTEK garapen teknologikorako eta berrikuntzarako proiektuak laguntzeko programaren bitartez, “sustapen-ekimenak diren ekintzak burutzen ditu, eta genero aldagaia eta gizarte-berdintasun eraginkorra lortzea bideratutako beste aldagai batzuk sartzea sustatzen ditu”.

Nekazaritza Sailak burututako Landa Eremuaren Garapenerako ekintzan, onarpena lortzeko garaian faktore garrantzitsua da proiektu berritzaileek bere gain ezgaitasuna duten pertsonak hartzea.

Ezgaitasunaren alorreko ikerketan identifikatu den beste ekintza bat Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutakoa da, Gizarte Teknologiko Masterra, hain zuzen ere. Master horren helburu nagusia da elkar-gune bat sortzea jakintzak garatzeko, eta hiru gaitasun-mota integrazten ditu: gizarte eta osasunaren alorrekoak, teknika eta enpresaren alorrekoak eta politika publikoak. Asmoa da behin-behineko politikak eta asistentzia-politikak diseinatzea osasunaren, irisgarritasunaren eta parte-hartzearen alorretan, gailuak, etxebizitzak eta gune publikoen diseinu teknikoaren ikuspegia denontzako sarbidearen ikuspegiarekin osatzea eta abar.

Bere aldetik, Bizkaiko Foru Aldundia, proiektu berritzaileak sustatzeko markoaren barruan (Berritu programa) prest dago ezgaitasunari laguntzeko moduko garapen teknologikoa erabiltzaileen eskura jartzeko.

5.4. SENTIBERATZEA

Sentiberatzea hitza nolabaiteko nekea sortu duen hitza da, batez ere elkarteen munduan, urte asko pasa baitira erabiltzen hasi zenetik, eta, elkarteen iritziz, eskubideak berez lortu beharko lirateke, eta ez hirugarren batzuk sentiberatzearen ondorioz.

Hala eta guztiz ere, informazioaren arloko gabezia batzuek definitutako panoramaren aurrean gauzatu diren hainbat jarduera espezifiko sentiberatzearen kontzeptuaren barruan sar litezke, administrazio eta erakunde pribatuei ezgaitasuna duten pertsonak lan-munduan txertatzeko dauden baliabide, eskubide-programa eta neurrien berri emateko.

Ikerketa, baliabideak eskuratzea ahalbidetzen duten alderdi teknologikoak aztertzea bideratu behar da

Sentsibilizazio ekintzei dagokienez oso zaila da ekintza horien eraginkortasunaren balorazioa egitea. Sentsibilizazioaren emaitzek epe luzeak behar dituzte eta horien estaldura neurtzea zaila da oso.

Ekosistemaren funtzionamenduaren barruko lan-eremua kapitulu- luan aipatu den jarduera-tasa sentsibilizazioaren bitartez handitzea konplikatu da, baina esan liteke nolabaiteko eragina izan duen alda- gaia dela. Ezgaitasuna duten pertsonak enplegu-eskatzailer gisa izena ematea sustatzeko informazio-kanpainak egin dira, eta ekintza horrek garapen maila egokia lortu du.

Alor honetan Planak sustatu duen esku-hartzearen beste alderdi bat laneko ingurunean burutu den sentsibilizazioa izan da. Bide des- berdinetatik burutu da: Arabako Foru Aldundiak, esate baterako, MGL Legeari buruzko jardunaldi bat burutu du, Arabako enpresabu- ruen (SEA) laguntzarekin, Arabako enpresaburuek ezgaitasuna duten pertsonak kontrata ditzaten sentsibilizatzer bideratuta. Enpresaburu batzuen esperientzia positiboak kontatzeaz gain, laguntza ekonomi- koen eta lankidetzarako dauden formula ezberdinen berri eman zen jardunaldi horietan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere aldetik, ezgaitasuna duten per- tsonen gaitasunari buruzko sentsibilizazio-kanpaina antolatu zuen. Kanpainak oihartzun handia izan zuen, zenbait komunikabidetan izan zen, baita kalean ere, herrien erdialdeko guneeetan kokatutako kartelen bidez. Era berean, jardunaldi bat ere burutu zen, eremu des- berdinetako praktika on batzuk azpimarratzeko.

Eusko Jaurlaritzak, berriz, Justizia, Enplegua eta Gizarte Segu- rantza Sailaren bitartez sentsibilizazio-jardunaldi bat antolatu zuen enpresaburuei eta gizarteari zuzendua, honakoa lematzat hartuta “Ez- gaitasuna duten pertsonak euskal enpresetan sartzen dira. Estrategia eta laguntza berriak”, Jardunaldi horretan, ezgaitasuna duten perso- nak enpresan sartzeko dauden diru-laguntzak eta bestelako laguntza motak azaldu ziren, eta gaur egun langileen artean pertsona ezgaituak dituzten euskal enpresen ereduak erakutsi ziren.

5.5. IRISGARRITASUN UNIBERTSALA: DENONTZA- KO DISEINUA

Irisingarritasuna diseinua erabiliz lor daiteke. Denontzako diseinu- tik, Europako Kontseiluaren ebazpen batean, diseinu unibertsalera pasatzen da. Horrek berekin dakar diseinua eta inguruak eta produk- tuen osaerak irisingarritasun baldintzak betetzea, ulergarriak eta erabil- garriak izatea denontzat, ahalik eta neurri handienez, era indepen-

Sentiberatzea hitza nolabaiteko nekea sortu duen hitza da, batez ere elkarteen munduan, urte asko pasa baitira erabiltzen hasi zenetik, eta, elkarteen iritziz, eskubideak berez lortu beharko lirateke, eta ez hirugarren batzuk sentiberatzearen ondorioz

dente eta naturalenean, eta egokitzapenik eta diseinu bidezko irtenbide espezializaturik egin beharrik izan gabe.

Europako Kontseiluarentzat DENOK esan nahi du inguruneak ezin diela pertsoneri inolako ezberdintasunik ezarri. Kontzeptu hori bat dator lan hau egituratzen duen ezgaitasun-ereduarekin. Ez da oztoporik egon behar pertsona baten gaitasunak bere osotasunean ager daitezen, ingurunearekin eta gainerako pertsonekin elkarrekintzan, pertsona autonomoa izan dadin. Beste modu batean esateko, esan nahi du jarduteko ez dela kanpoko laguntzaren mende egon behar. Diseinuak naturala izan behar du, eta horregatik irisgarritasuna lortzeko behar diren neurriak gauza arrunta bezala hartu behar dira.

Diseinuak, jakina, berarekin zerikusia duten lanbide batzuei eragiten die batez ere, arkitektura, ingeniari, diseinua eta hirigintzari, esate baterako. Eta lanbide horiek diseinu unibertsalaren alorrean beste lanbide batzuk baino neurri handiagoan inplikatu behar direnez, kolektibo horien prestakuntzan diseinu unibertsala barneratzen duten politikak sustatu beharko lirateke.

Diseinu unibertsalaren printzipio orokorrak honakoak dira:

- “Gizabanako guztiek, ezgaitasuna duten pertsonak barne, bizitza komunitarioan erabat parte hartzeko duten eskubideak berekin dakar eraikitako inguruneak irisgarritasun baldintzak betetzea eta erabiltzeko eta ulertzeko aukera izatea”.
- Gizartearen erantzukizuna eta betebeharra da, eta ingurunea eraikitzen lanean aritzen diren profesionalena batez ere, ingurunea denontzat unibertsalki iriste erraza izatea, ezgaitasuna duten pertsonak barne.
- Ezgaitasuna duten pertsonen aldeko politika koherente eta global batek herritar guztien aukera-berdintasuna, bizitza independentea eta komunitatearen bizitzaren arlo guztietan parte-hartze aktiboa izatea bermatzera jo behar du.
- Politika hori abian jartzeko, estatuek neurriak hartu behar dituzte, ahal den neurrian, eraikitako ingurunearen eragozpen guztiak saihesteko eta deuseztatzeko, eta erabakitzeko eta bermatzeko ardura duten pertsona guztien informazioa hobetzeko neurri politikoak; izan ere, pertsona horiek gizakiak eraikitako ingurunearen gainean hartzen dituzten erabakiek eragina dute ezgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatean.
- Politika mota horrek bere gain hartu behar du prozesu horretan funtsezko zeregina betetzen duten pertsonen heziketa eta prestakuntza.

Horrek berekin dakar diseinua eta inguruak eta produktuen osaerak irisgarritasun baldintzak betetzea, ulergarriak eta erabilgarriak izatea denontzat, ahalik eta neurri handienez, era independente eta naturalenean, eta egokitzapenik eta diseinu bidezko irtenbide espezializaturik egin beharrik izan gabe

- Eraikitako ingurunearekin zerikusia duten jarduera guztien curriculumetan diseinu unibertsalaren kontzeptua sartzeko behar diren neurri sorta koordinatu baten bitartez, pertsona guztiek, duten adina, neurria edo gaitasuna edozein direla ere, ahalik eta mugikortasun handiena eta eraikinetara iritsi eta garraiobideak erabiltzeko ahalik eta aukera handienak izan behar dituzte, era horretan gizartean, jarduera ekonomikoetan, eta gizarte, kultur eta aisiaren alorreko jardueretan erabat parte hartzeko.

Beste modu batean
esateko, esan nahi du
jarduteko ez dela
kanpoko laguntzaren
mende egon behar.
Diseinuak naturala izan
behar du, eta horregatik
irisgarritasuna lortzeko
behar diren neurriak
gauza arrunta bezala
hartu behar dira

*6. Lan-merkatu arruntera
txertatzeko planaren erronkak
eta lorpenak*

6. LAN-MERKATU ARRUNTERA TXERTATZEKO PLANAREN ERRONKAK ETA LORPENAK

Koadernoaren azken kapitulu honetan era laburrean aurkeztuko dira Pertsona Ezgaituak EAEko lan-merkatu arruntean txertatzeko euskal planaren ondorioak. Plan horren alderdi nagusi batzuk ezgaitasunarekin eta enpleguarekin zerikusia duten atalak aurkeztu direnean aurreratu dira nolabait. Puntu honetan, Planaren diseinua eta eratu diren helburu eta ekintza guztiak aurkeztuko dira, eta oraindik bete ez diren erronkak eta inplementatzekoan erdietsi diren lorpenak azpimarratuko dira.

Lehenengo eta behin adierazi beharra dago Plana sortu zela Planaren beraren diseinuan eta abiaraztean kokatzen diren gertakari batzuen ondorioz, honela defini daitezkeenak:

- Lan-merkatu arruntean lan egiteko eskubidea, ezgaitasuna duten pertsonen helburu legitimoa delako gogoeta.
- Egiaztatu egin zen ezgaitasuna duten pertsonen lan-merkatu arruntean okupazio maila txikia dutela.
- Ezgaitasuna duten pertsonen kolektiboentzako enplegu arrunta eskuratzeko eta mantentzeko aukera berdintasuna bermatu beharra dago.
- Gizartearen aldetik egindako eskakizuna, ezgaitasuna duten pertsonen administrazio publikoan enplegua lortzea arautu eta sustatzeko.
- Tokiko mailan izandako esperientzien bidez lortutako emaitza onak biltzeko eta Europako programetan sortutako planekin jarraitu beharra. Horien azken helburua da herritarrengandik gertuen dauden administrazioak izatea, beren gaitasun arautzailea erabiliz enplegua eskuratu eta mantentzeko praktika onenak sustatuko dituztenak. Era berean, xedea da ezgaitasuna duten pertsonen kalitatezko baldintzetan lan egin ahal izatea eta beren karrera profesionalak garatzeko gainerako langileek dituzten aukera berdinak izatea.

Plana zein testuingurutan sortu zen aztertuz gero, bistan da egokia zela Plana garatzea. Era berean, kontsultatutako eragileen arabera, Planaren diseinua ere egokia da, eta eman zaion ikuspegi anitza era positiboan baloratu da. Horiek horrela, aurreikusitako esku-hartzeak eta ezarritako helburuak Planaren helburu oro-

Planaren beraren diseinuan eta abiaraztean kokatzen diren gertakari batzuen ondorioz sortu zen Plana

korra era integralean betetzera bideratutako ekintzak direla kontsideratzen da.

Pertsona Ezgaituak EAeko lan-merkatu arruntean txertatzeko euskal planaren egitura (2004-2006)

	Esku-hartzeko arloak	Helburuak	Jarduerak	Gauzatzearen ardura duten erakundeak
HELBURUAK ETA JARDUERAK ARLOKA	Ikerketa			
	Sentiberatzea			
	Lanerako informazioa eta orientazioa			
	Lanbide-hezkuntza			
	Enpleguaren sustapena			
	Herri-administrazioak			
	Lan-harremanak			

6.1. GAUZATZE-BURUTZE MAILA

Planean aurreikusitako esku-hartzeak Planean ezarritako irizpideen arabera sailkatu dira. Orain egingo dugun berraztertze honetan kontuan hartuko dira bai lortutako garapen mailaren deskribapena bai izan duten garrantziari eta lortutako emaitzei buruzko balorazioa, bai azterketa aldian inplementatu ez diren neurrien identifikazioa.

6.1.1. Ikerketa

"Ikerketa" arloak bi helburu desberdini heltzen die. Lehenengoak informazioa lortzearekin du zerikusia, xedea baita enpleguarekin zerikusia duten eremuetan pertsona ezgaituen egoera errealaren zein den ezagutzea. Bigarren helburuak, berriz, proposatzen du enpleguaren baliabideetara iristeko eta lanpostuak egokitzeko ikerketa teknologikoa erabiltzea.

"Ikerketa" arloak bi helburu desberdini heltzen die. Lehenengoak informazioa lortzearekin du zerikusia, xedea baita enpleguarekin zerikusia duten eremuetan pertsona ezgaituen egoera errealaren zein den ezagutzea. Bigarren helburuak, berriz, proposatzen du enpleguaren baliabideetara iristeko eta lanpostuak egokitzeko ikerketa teknologikoa erabiltzea

1.1. helburua. Eskura izatea sexuen arabeko informazio estatistiko desagregatua, fidagarria eta kalitatezkoa. Informazio horrek ezgaitasuna duten pertsonen lan-merkatuan duten egoerari buruz eta denboran zehar izandako bilakaerari buruz behar du izan.

1.2. helburua. Ahalbidetzea teknologia berrien diseinuak laguntza teknikoak garatzea, ezgaitasuna duten pertsonak enplegurako baliabideetara iristea sustatzeko eta lanpostuak horien ezaugarrietara egokitzeko, ikuspegi teknikoaren zen ergonomiko orokorretik, denontzako diseinua kontuan izanda.

Esku-hartzeko lehenengo ildoan, informazioa lortzera bideratutakoan alegia, epe motzera garatu beharreko bi ekintza nagusi aipatu behar dira, eta hirugarren bat, generikoagoa, geroko garapenean eta lan ildo osagarri gisa garrantzi handikoa. Agiri honetan zehar dagoneko azpimarratu da aurreikusitako lehenengo ekintza oso garrantzitsua dela, hain zuzen ere azterketa kuantitatibo eta kualitatibo bat egitea ezgaitasuna duten pertsonen kontratazioaren egoera errealak zein den ezagutzeko, hori baita neurri handi batean koaderno honetan bildutako informazioen oinarria. Era berean, adierazi da Lanbidek ematen dituen zerbitzu guztietan ezgaitasuna duten pertsonen buruzko jarraipen-sistema ezarri dela, eta EAEn egindako beste azterketa eta inkestetan ere ezgaitasunari buruzko aldagaia ezarri dela.

Bigarren helburuaren implementazioak, ikerketa aplikatuekin eta enplegurako baliabideetara iristea sustatzera eta lanpostuak eta prestakuntza egokitzera bideratutako teknologia eta produktuak garatzearekin du zerikusia, eta garapen anitzak ditu, bere osotasunean definitzen zailak direnak, baina, era berean, etorkizunera begira potentzial handia du.

6.1.2. Sentiberatzea

Sentiberatzeari dagokionez, planteatutako helburuak asmo handikoak dira, nahiz eta bere estaldura neurtzea oso zaila den. Izan ere, aurreikusitako ekintzen ondorioz izatea espero zen jarduera-tasaren hazkundera kuantifikatua ez egoteaz gain, helburu honen garapenean beste hainbat faktorek ere izango dute eragina.

Sentiberatzeari dagokionez, planteatutako helburuak asmo handikoak dira, nahiz eta bere estaldura neurtzea oso zaila dene

2.1. helburua. Ezgaitasuna duten pertsonen artean jarduera-tasa nabarmen handitzea.

2.2. helburua. Laneko inguruneak ezgaitasuna duten pertsonen lanerako gaitasuna transmititzea.

2.3. helburua. Ezgaitasunari buruzko aldagaia enpleguaren sustapenarekin eta lan eremuarekin orokorrean zerikusia duten programa guztietan sartzea..

Jarduera-tasaren hazkundera hiru ekintza motaren bitartez planteatzen da: alde batetik, ezgaitasuna duten pertsonen enplegu-eskatzailen gisa izena ematea sustatzea (informazio-kanpainen bitartez), beste alde batetik sentiberatze-ekintzak ikastetxeetan, eta, azkenik, sustatu egin behar da ezgaitasuna duten pertsonen ikus-entzunezko hedabideetan lan egitea, bai audientziari begirako lanpostuetan bai telebista produkzio propioetan..

Garapen handiena izan duen ekintza ezgaitasuna duten pertsonen enplegu-eskatzailen gisa izen ematea izan da, Orientatzeko Zentro Bereziak egindako esku-hartzetik bideratua (1.010 pertsona 2005. urtean, eta 1.350 pertsona 2006an, urtebetean %37,7ko hazkundera izan da, beraz).

Laneko ingurunean ezgaitasuna duten pertsonak lanerako gaitasuna dutela transmititzea, Planean aurreikusita zegoen bezala, hainbat modutan egin da, dagoeneko 5. atalean azaldu den bezalaxe.

6.1.3. Lanerako informazioa eta orientazioa

Planaren eremu honetan planteatutako helburuek ikuspegi integral eta bermatzailea dute. Lehenengoan planteatzen da ezgaitasuna duten pertsona guztiak aukera izatea informazioa, aholkularitza eta orientazioa jasotzeko. Bigarrena, berriz, orientazio zerbitzu honen oinarrian dagoen printzipio bati dagokio: autonomia pertsonala sustatzea enpleguaren bila aritzeko.

Eremu honetan eman den garapen espezifiko garrantzitsuena izan da ezgaitasuna duten pertsonen zuzendutako orientazio zerbitzua sortzea

3.1. helburua. Bermatzea informazioa, aholkularitza eta lanerako orientazioa ezgaitasuna duten pertsona guztiengana iristen dela.

3.2. helburua. Autonomia pertsonala sustatzea enplegua eraginkortasunez bilatzeko.

Eremu honetan eman den garapen espezifiko garrantzitsuena izan da **ezgaitasuna duten pertsonen zuzendutako orientazio zerbitzua sortzea**. Lurralde historiko bakoitzean Orientazio Zentro horietako bat ireki da, eta zentro horietan prestakuntza eta esperientzia espezifikoak duten langileak jarri dira. Hori dela eta, Plana indarrean egon den epean informazio- eta orientazio-zerbitzuetan artatu eta erregistratu diren pertsonen datuen arabera, Lanbideren orientazio-zerbitzuak erabili dituzten pertsonen %3 inguru ezgaitasuna duten pertsonak dira.

35. taula. Orientazio-zerbitzuaren erabiltzaile diren pertsona ezgaituak, adinaren arabera

	2005						2006					
	Emak.		Gizon.		Guztira		Emak.		Gizon.		Guztira	
	k.a.	%b.	k.a.	%b.	k.a.	%b.	k.a.	%b.	k.a.	%b.	k.a.	%b.
25 urtetik beherakoak	72	20,2	109	16,7	181	17,9	99	18,0	120	15,0	219	16,2
25-34 urte	106	29,8	197	30,1	303	30,0	162	29,5	225	28,1	387	28,7
35-44 urte	118	33,1	202	30,9	320	31,7	153	27,9	266	33,2	419	31,0
45-54 urte	49	13,8	117	17,9	166	16,4	119	21,7	165	20,6	284	21,0
55 urte eta gehiago	11	3,1	29	4,4	40	4,0	16	2,9	25	3,1	41	3,0
Guztira	356	100,0	654	100,0	1.010	100,0	549	100,0	801	100,0	1.350	100,0

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. 2007.

36. taula. Orientazio-zerbitzuak 2004-2006

	2004	2005	2006
Artatutako pertsonak	620	1.010	1.350
Orduak guztira	3327	5.286	6.779
Erabilitako baliabide ekonomikoak guztira	85.627,67	134.046,17	229.099,84

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. 2007.

Ezgaitasuna duten pertsonak artatzeko bitartekotzaren eta orientazioaren eremuan lan egiten duten langileen prestakuntza eta trebakuntzarekin zerikusia duten ekintzak era normalizatuan gauzatzen dira, Lanbideren sarearen orientatzaileen kolektiboa etengabe prestatzeko programaren bitartez. Horretaz gain, jarduera espezifikoak ere gauzatu dira administrazioei eta erakunde pribatuei jakinarazteko gaur egun zein baliabide, eskubide, programa, neurri eta abar dauden ezgaitasuna duten pertsonak lan-munduan txertatzeko. Esate baterako, laguntza eta baliabideen berri emateko liburuxkak (sentsibilizazioarako jardunaldiak) eta abar presta daitezke.

6.1.4. Lanbide-hezkuntza

Lanbide Hezkuntzarekin zerikusia duten hiru helburuek heziketa horrek dituen azpisistemak hartzen dituzte kontuan (Prestakuntza Arautua, Prestakuntza Okupazionala eta Etengabeko Prestakuntza), eta arreta berezi eta espezifikoa jartzen dute enpresetan praktikak egiteko aukeran. Izan ere, era horretan langileek prestakuntza praktikoa bereganatzen dute, eta langileek eta enpresek elkarrenganako ez ezagutzea eta izan litezkeen mesfidantzak gainditu egiten dituzte, eta erraztu egiten da ezgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean txertatzea.

4.1. helburua. Bermatzea ezgaitasuna duten pertsonen komunitateko erakunde publikoek edo pribatuek garatutako honako plan eta ikastaroetan parte hartzea: lanbide has-tapena, lanbide hezkuntza arautua eta prestakuntza okupazionala

4.2. helburua. Aukera ematea enpresetan prestakuntza praktikoa egiteko.

4.3. helburua. Eskaintzea ezgaitasuna duten langileentzat beharrezkoa den etengabe-ko lanbide hezkuntza.

Lanbide Prestakuntza Okupazionalaren eremuan aurreikusitako esku-hartze kopuru handi bat aldatu egin da Lanbideren esku-hartzeak ekarri duen ikuspegi aldaketarengatik. Hori horrela, pertsona bakoitzak behar dituen prestakuntza-baliabideak neurrira programatzen dira, orientazio-

Lanbide Prestakuntza Okupazionalaren eremuan aurreikusitako esku-hartze kopuru handi bat aldatu egin da Lanbideren esku-hartzeak ekarri duen ikuspegi aldaketarengatik. Hori horrela, pertsona bakoitzak behar dituen prestakuntza-baliabideak neurrira programatzen dira, orientazio-zerbitzuek bideratuta bezala, eta aukera dago lau prestakuntza-baliabide desberdinetan parte hartzeko

zerbitzuek bideratuta bezala, eta aukera dago lau prestakuntza-baliabide desberdinetan esku hartuz (banakako egokitzapena —materialak, tutoretza...— ekintza arruntetan parte hartzeko; taldeko prestakuntza Enplegu-zentro berezietan sartzeko —laneko enklabeak barne—; eta banakako prestakuntza lanpostuan —“enplegu lagundua...”).

Ikuspegi aldaketa horren ondorioz, enpresetan prestakuntza praktikoa egiteak ere izan ditu bere onurak, batez ere lanpostuan bertan banakako prestakuntza jasotzeko prestakuntza baliabidearen bitartez.

Horrek guztiak ahalbidetu egin du Plana indarrean zegoen bitartean —2004/2006— Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak finantzaturako prestakuntza ekintzetan ezgaitasuna duten 650 pertsonen parte hartzea (horietako batzuek prestakuntza ekintza baten baino gehiagotan parte hartu dutenez, parte-hartzaile kopurua guztira 706 izan da).

Enpresetan prestakuntza praktikoa egiteak ere izan ditu bere onurak, batez ere lanpostuan bertan banakako prestakuntza jasotzeko prestakuntza baliabidearen bitartez

37. taula. Pertsona ezgaituak prestakuntza-zerbitzuetan

	2004 eta 2005	2006	Guztira
Parte-hartzaileak guztira	491	395	886
Prestakuntza jaso dutenak edo jasotzen ari direnak guztira	403	303	706
Pertsona desberdinak	368	282	650

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. 2007.

38. taula. Ezgaitu parte-hartzaileen banaketa prestakuntza ekintzen ezaugarrien eta ikastaroaren hasiera urtearen arabera

	2004		2005		2006		Guztira	
	Parte-hartzaileak	kolektiboaren %.	Parte-hartzaileak	kolektiboaren %.	Parte-hartzaileak	kolektiboaren %.	Parte-hartzaileak	kolektiboaren %.
Kontratu-konpromisoerik atxikitako jarduerak	28	20,6	1	0,4	1	0,3	30	4,2
Enplegu-prestakuntza proiektuei atxikitako jarduerak	3	2,2	3	1,1	5	1,7	11	1,6
Tokiko edo sektoreko proiektuei atxikitako jarduerak	51	37,5	67	25,1	88	29,0	206	29,2
Bestelako prestakuntza-jarduerak	54	39,7	196	73,4	209	69,0	459	65,0
Guztira	136	100,0	267	100,0	303	100,0	706	100,0

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. 2007.

39. taula. Ezgaitu parte-hartzaileen banaketa irteera profilaren (areak) eta sexua-ren arabera

	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira	
	Parte-hartzaileak-	%Ierroan	Parte-hartzaileak-	%Ierroan	Parte-hartzaileak-	%Ierroan
Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak	31	6,9	9	3,5	40	5,7
Administrazioa	4	0,9	9	3,5	13	1,8
Arte grafikoa	2	0,4	0	0	2	0,3
Merkataritza, kontsumoa eta garraioa	21	4,7	19	7,4	40	5,7
Elektrizitatea, elektronika eta telekomunikazioak	16	3,6	4	1,5	20	2,8
Eraikuntza eta obra zibila	4	0,9	0	0	4	0,6
Zeharkako espezialitateak	3	0,7	3	1,2	6	0,8
Fabrikazio mekanikoa	100	22,3	53	20,5	153	21,7
Prestakuntza eta hezkuntza	1	0,2	0	0	1	0,1
Ostalaritza eta turismoa	5	1,1	10	3,9	15	2,1
Elikagaien industriak	1	0,2	0	0	1	0,1
Informatika	14	3,1	7	2,7	21	3,0
Egurra eta altzariak	17	3,8	4	1,5	21	3,0
Mantentze-lanak eta zerbitzuak produkzioari	9	2	3	1,2	12	1,7
Enpresa sustapena	25	5,6	5	1,9	30	4,2
Osasun-arloa	1	0,2	1	0,4	2	0,3
Gizarte-zerbitzuak komunitateari	17	3,8	20	7,7	37	5,2
Zerbitzuak eta irudi pertsonala	0	0	1	0,4	1	0,1
Hainbat zerbitzu	172	38,4	110	42,6	282	39,9
Autobideetako ibilgailuen mantentze-lanak	5	1,1	0	0	5	0,7
Guztira	448	100	258	100	706	100,0

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila. 2007.

Foru aldundiek prestakuntzara eta laneratzera bideratutako programen artean azpimarratzekoa da **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Txekinbide programa**. Programa hori bideratua dago bazterketa-egoeran dauden edo jasateko arriskua duten pertsonak oro har prestatzea, ez bakarrik ezgaitasuna duten pertsonak, nahiz eta programan ezgaituek ere parte hartu duten (garrantzi handia ematen zaio teknologia berrien munduan sartzeari).

Hezkuntza eta Gureak elkartarekin hezkuntza-sistematik ateratzen diren eta adimen-ezgaitasuna duten pertsonak prestatzeko sinatutako akordio-protokoloa. Zereginen Ikaskuntzarako Geletatik pasa ondoren, programan sartzen dira, hila-bete batzuetarako, lan inguruneetara egokitzen joan daitezten. **2006. urtean 41 pertsonak parte hartu dute, batez ere lantegi okupazionaletan.**

Arabako Foru Aldundiak lankidetzarako hitzarmen bat du gaixotasun mentalak dituzten pertsonak gizarteratzeko. Era berean, **Bizkaiko Aldundiak** Enplegu-zentro berezien bitartez kontratatzen du (Lantegi Batuak zerbitzu hornitzaile handienetako bat da). Bi programa garatzen ditu –HOBELAN: diru-laguntzak, gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboen laneratzea laguntzeko, behin betiko eta behin-behineko kontratazioa sustatzeko; eta GUZTILAN langabezia-egoeran dauden pertsonak edo EZB zentroetatik datozen eta ezgaitasuna duten edo gizarte bazterketa-egoeran dauden pertsonak lan-merkatu arruntean txertatzeko. HEZILAN programak ere, Prestakuntza zerbitzuaren barruan, diru-laguntzak ematen ditu prestakuntza jasotzen den bitartean praktika errealak ere egiteko.

Donostiako Sustapen Elkartean 99 pertsona artatu dira enplegu-zerbitzuan, eta %18ko lan gizarteratzea lortu da. Horretaz gain, Lankidetzarako hitzarmena sinatu da Katea&Legaiarekin, ezgaitasuna duten pertsonak enplegu babestura hurbiltzeko asmoz, lan-merkatu arruntera sartu bitarteko neurri bezala, eta elkarlana burutzen da Kutxa Zeharorekin ezgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeko ibilbideak prestatzen. Ezgaitasuna duten pertsonak prestakuntza jardueretan txertatzearen ondorioz ezgaitasuna duten bost pertsonen Eralan-en parte hartu dute (parte hartu duten 11 pertsonetatik) eta ezgaitasuna duten 3k Margoran aritu dira (guztira 9 parte-hartzaile izan dira).

Getxoko Udalak, Enplegua Indartzen Plus programaren markoan, bi jarduketa jarri ditu abian ezgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko asmoz: enpresetan sentsibilizazio-kanpainak, MGL Legea betetzeko, eta prospekzio lanak; eta laguntza ezgaitasuna duten pertsona talde bati enplegu arruntean txerta daitezten, tutoretzapean egindako prestakuntza aldi baten bitartez (Enplegu lagundua), Lantegi Batuak-ekin batera. Programa horren emaitzak honakoak dira:

- Bisitak 80 erakundetara
- Informazioa 24 laguni (+ familiari)
- 23 diagnostiko
- 6 pertsonen lanpostuan prestakuntza jaso dute eta praktikak egin dituzte
- 3 pertsonari kontratua egin zaie

Beste udal batzuek, **Vitoria-Gasteizkoak** esate baterako, enplegu babestuko enpresak kontratatzea jotzen dute. Hori horrela, erabiltzen dituzten bi enpresek ezgaitasuna duten langileek dituzte gizarte-etxeetan, egoitzetan eta abarretan garbiketara egiteko. **Guztira, enpresa horietako 158 langile kontratatzen dira**, eta horren kostua bi milioi euro baino pixka bat gutxiago da.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren informazioak jasotzen duenaren arabera, **Lanbide Hezkuntzaren azpisisteman ezgaitasuna duten gazteen presentzia mugatua da, %3tik behera**. Erdi mailako eta goi mailako LH hezkuntzan gehien ematen diren ezgaitasunak entzumenekoak, motorrak eta psikikoak dira.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren informazioak jasotzen duenaren arabera, Lanbide Hezkuntzaren azpisisteman ezgaitasuna duten gazteen presentzia mugatua da, %3tik behera

40. taula. Ezgaitasuna duten ikasle integratuak, mailaka. 2005-2006 ikasturtea

	Guztira	Emakumezkoa	Emakumezkoen %
INC1	43	21	48,84
INC2	994	316	31,79
LEHEN HEZKUNTZA	4.412	1.488	33,73
DBH	2.663	939	35,26
BATX	47	20	42,55
EMLH	31	12	38,71
GMLH	7	5	71,43
Guztira	8.197	2.801	34,17

Iturria: Hezkuntza Saila 2007.

41. taula. Ezgaitasuna duten ikasle integratuak, tipologiaren arabera. 2005-2006 ikasturtea

	Guztira	Emakumezkoa	Emakumezkoen %
Autismoa	444	82	18,47
Entzumen-ezgaitasuna	226	113	50,00
Mugimen-ezgaitasuna	399	157	39,35
Ezgaitasun psikikoa	1.133	509	44,92
Ikusmen-ezgaitasuna	125	44	35,20
Hezkuntza Premia Berezi (HPB) ez iraunkorrak	4.176	1.456	34,87
Urritasun anitzak	348	118	33,91
Arazo emozional larriak	1.282	302	23,56
Gaindohatuak	64	20	31,25
Guztira	8.197	2.801	34,17

Iturria: Hezkuntza Saila 2007.

42. taula. Ezgaitasuna duten ikasle integratu gabeak-. 2005-2006 ikasturtea

	Guztira	Emakumezkoa	Emakumezkoen %
Hezkuntza Berezia 1	397	155	39,04
Hezkuntza Berezia 2S	201	81	40,30
Eginkizunak ikastea	375	155	41,33
Guztira	973	391	40,18

Iturria: Hezkuntza Saila 2007.

6.1.5. ENPLEGURAKO SUSTAPENA

Helburu generiko bakar baten formularen atzean —ezgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean txertatzea bermatzea— maki-na bat jarduera daude bideratuak, lehenengo eta behin, finantza pizgarrien eta laguntza tekniko eta giza laguntzaren bidez pertsona horiek kontratatzea sustatzera, baina beste hainbat eragozpen saihestu edo murriztera ere bai —garraioa, I+G+b aplikatzea enplegua sustatzeko politikak diseinatu eta garatzerakoan eta abar—.

5.1. helburua. Bermatzea ezgaitasuna duten pertsonak lan-sistema arruntetan txertatu direla.

Dagoeneko aipatu den bezala, ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke ematen diren pizgarrien ibilbideak garapen nabarmena izan du, eta, ondorioz, ezgaitasuna duten mila pertsonatik gora 2005-2006 epean zehar neurri horien onuradun izan dira, hain zuzen ere pizgarri honen bitartez kontratatutako langile guztien erdia gutxi gorabehera.

Hala eta guztiz ere, adituen arabera, ez da nahitaez esku-hartze mota eraginkorrena ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzea sustatzeko. Lehenengo eta behin, bestelako jarduketa globalagoen bidez gizarteratu behar direla kontsideratzen da, eta, bereziki, enpresei egiten zaizkien prospekzioetan oinarritu behar da. Horretarako, enpresein harremanetan jarri behar da kontratazio horien abantailak eta la-

Ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke ematen diren pizgarrien ibilbideak garapen nabarmena izan du, eta, ondorioz, ezgaitasuna duten mila pertsonatik gora 2005-2006 epean zehar neurri horien onuradun izan dira

43. taula. Behin betiko kontratazioarako diru-laguntzak 2005. Atalka diruz lagundutako langileak (euroak milakoetan)

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE guztira	
	Diru-l. kop.	Kopurua	Diru-l. kop.	Kopurua	Diru-l. kop.	Kopurua	Diru-l. kop.	Kopurua
Ezgaitasuna duten pertsonak	17	64,67	270	826,11	263	783,45	550	1.674,23
TOTAL	74	393,53	653	3.008,4	381	1.440,95	1.108	4.842,89

Iturria: Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza Saila 2007.

44. taula. Behin betiko kontrataziorako diru-laguntza programak 2006 (euroak milakoetan)

	Gizonezkoak		Emakumezkoak		EAE guztira	
	Diru-l. kop.	Kopurua	Diru-l. kop.	Kopurua	Diru-l. kop.	Kopurua
Ezgaitasuna duten pertsonak	357	68,5	164	31,5	521	1.560,17

Iturria: Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza Saila 2007.

guntzak azaltzeko, jarraipena eskaini... Ildo horretan, “enplegu lagundua” eta “enplegua enklabean” bezalako metodologiak garatzea oso positibotzat jotzen da.

2006. urteaz geroztik Egailan, SA enpresan laneko enklabe bat jarri da abian, ezgaitasuna duten hiru pertsonak osatua (pertsona batek ezgaitasun fisikoa du, beste batek psikikoa eta hirugarrenak gaixotasun mentala).

Horretaz gain, antzeman da ezgaitasunarekin batera gertatzen diren beste hainbat egoeren ondorioz pertsona hauek kontratatzeke ematen diren pizgarriak handitzeaz gain, interesgarria izan litekeela laguntzak ezgaitasun motaren arabera handitzea. Izan ere, ezgaitasun psikikoak eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonak kontratatzea askoz zailagoa da.

Garraiorako ematen diren diru-laguntzei dagokienez, foru aldundiek eta udal batzuek batez ere haien zerbitzuen erabiltzaileekin jarduten dute, eta garraio pribatuari emateko laguntzak programatzen dira flotak egokitzeko. Ildo horretan, aipatu behar da garraio publiko guztietan irisgarritasunaren hobekuntza oso motela dela. Autonomia Erkidegoan datu global eguneratutik ez badago ere, arduradunen balorazioek, baita estatu mailan egindako azterketek ere, erakusten dute hiriarteko garraio publikoaren irisgarritasunaren garapena (hiri barruko garraioan ez bezala) mugatua dela (kasuren batean atzera egin du, gainera) eta trenen egokitzapena urria dela. Beraz, alor honetan oraindik asko dago hobetzeko, baina hobekuntza horiek burutzeak ekarriko dituen kostu handiak direla eta ez du ematen epe motzean garapen handirik emango denik.

6.1.6. Herri-administrazioak

Planaren ardatz nagusienetako bat dira, eta ez bakarrik enplegu publikoak lan-merkatuan duen garrantziarengatik; izan ere, herri-administrazioak eredu izan daitezke ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzerakoan, eta potentzial handia dute administrazioekin kontratuak sinatzen dituzten enpresetan ezgaitasuna duten pertsonak laneratzeko.

Antzeman da ezgaitasunarekin batera gertatzen diren beste hainbat egoeren ondorioz pertsona hauek kontratatzeke ematen diren pizgarriak handitzeaz gain, interesgarria izan litekeela laguntzak ezgaitasun motaren arabera handitzea

6.1. helburua. Bermatzea ezgaitasuna duten pertsonak herri-administrazioetan lanean hasiko direla.

6.2. helburua. Sustatzea ezgaitasuna duten pertsonak enpresa arruntetan laneratzen direla sektore publikoaren kontratazioaren bitartez: herri-administrazioak, enpresa publikoak eta partaide diren enpresak.

Administrazioetan eta enpresa publikoetan ezgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kuota (%10) handitzea, 25 langile baino gehiago duten enpresa guztietan %4 lortu arte, Planean aurreikusia, gaur egun euskal administrazioetan ez da betetzen ari.

Aztertu diren lan-eskaintza publikoen arabera (foru aldundien eta zenbait udalen Enplegurako Eskaintza Publikoak) portzentaje hori %5etik gorako kopuruan dago, baina, hala eta guztiz ere, erreserba horiek ez dira gauzatzen ari. Hori horrela, esate baterako, Eusko Jaurlaritzaren kontratazioei buruzko datuen arabera antzematen da Plana indarrean egon den epean plaza erreserba handitu egin dela (2004ko %1,6tik 2006ko %4,2ra). Nolanahi ere, 2006ko deialdietan eta bukatu ez direnetan gertatzen denaren lepotik, antzematen da aurkeztu eta kontratatatu diren ezgaituen kopurua oso txikia dela.

Administrazioetan eta enpresa publikoetan ezgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kuota (%10) handitzea, 25 langile baino gehiago duten enpresa guztietan %4 lortu arte, Planean aurreikusia, gaur egun euskal administrazioetan ez da betetzen ari

45. taula. Lan-eskaintza publikoak– Eusko Jaurlaritza

	Harremana	Plaza libreak	Ezgait. Plazak	Oharrak
Autismoa	Laborala	63	1	6 onartuak, 3 aurkezt., 0 gaindi.
Entzumen-ezgaitasuna	Laborala	1		
Mugimen-ezgaitasuna	Funtzionarioa	32	1	0 present
Ezgaitasun psikikoa	Funtzionarioa	36	1	0 present.
Ikusmen-ezgaitasuna	Laborala	41	4	Hasi gabe. 7 eskatuak
Hezkuntza Premia Be-rezi ez iraunkorrak	Estatutarioa	5.111	212	Bukatu gabe (Osakidetza)

Iturria: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea 2007.

2006an egoera hori aldatu egin zen, batez ere Osakidetza-plazei dagokienez. Ikerketa hau bukatzean prozesua oraindik irekita dago eta, hortaz, ez dago behin betiko daturik, baina hautematen da eskaera kopuru handia aurkeztu dela (plaza bakoitzeko hamar eskatzaile baino gehiago). Eskatzaileen %76,6 aurkeztu zen eta aurkeztu ziren pertsona ezgaituen %81,4k gainditu zuen eskaera.

46. taula. Osakidetzaren lan-eskaintza publikoa 2006

	Plazak	Eskatzaileak	Aurkeztuak	Gaindituak	Ez gaindituak	Egokitu beharrak
Ezgaitasuna duten pertsonentzako txanda	212	2.166	1.659	1.350	652	276

Iturria: Osakidetza 2007.

Aurkeztu ziren pertsonen %17k egokitzapenak behar zituen, eta kasu batzuetan egokitzapen bat baino gehiago eskatzen zuten. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da ez direla behin betiko datuak, profesional batzuek oraindik ez dutelako haien mailari dagokion euskara edo hizkuntzaren arloko azterketa egin.

Jarduketa horren garapenean atzerapena ematea hainbat arrazoiengatik izan da, nagusiena sarrera frogak aldatu beharra, ezgaitasuna duten pertsonen frogak egiteko aukera emateko. Lan-Eskaintza Publikoan froga teorikoek duten garrantziak zailtasun gehigarria eragiten die ezgaitasun psikikoa duten pertsonen. Hori dela eta, azken urteotan HAEE lanean aritu da, ezgaitasunaren arloan inplikaturik dauden erakunde eta elkarte batzuekin lankidetzan, eta progresiboki heldu beharreko prozesu bat ezarri du. Prozesuaren barruan lanpostuen identifikazioa eta analisia daude, lanpostuak aukeratu eta betetzaren inguruko araudiaren egokitzapena, deialdien diseinua eta abar. Bereziki planteatzen da deitutako lanpostu bakoitzarentzat behar diren gaitasunak identifikatzea eta, horietatik abiatuta, frogak egiteko euskarri desberdinak prestatzea. Hori horrela, ezagutza teorikoak neurtzeko ohiko azterketek gain, gaitasun neurri desberdinak erabil litezke (gaitasun kognitiboak, nortasuna, merezimenduen balorazioa, lanpostuak eskatzen dituen trebetasunak frogatzeko ariketa eta simulazioak, gauzate-frogak...), gaitasuna frogatzea erraztuta, batez ere adimen-egaitasuna duten pertsonen.

Hori horrela, antzematen da herri-administrazioen arloan Planak ezarritako helburu berriak ez lortzeaz gain, eta nahiz eta datu zehatzik ez izan, baieztatu daitekeela alde zuzeneko helburuak ere ez direla bete, ez baita lortu administrazioerako ezarritako zegoen langileen %2ko portzentajea ere.

Eskura ditugun datuek azaltzen dute Administrazio Orokorrean eta bere Erakunde Autonomoetan, eta Prebentzioerako Zerbitzuak jasotako informazioari kasu eginez, lan-eskaintza publikoan esleitutako lanpostuak egokitzeko beharra ezagutzeko asmoz 2000. urtean egindako Lan-Eskaintza Publikoaren ebazpenaren ondorioz plantillan langileak sartu zirenean jakin zela ezgaitasuna zuten pertsonak

Jarduketa horren garapenean atzerapena ematea hainbat arrazoiengatik izan da, nagusiena sarrera frogak aldatu beharra, ezgaitasuna duten pertsonen frogak egiteko aukera emateko

(6.300 langileen kopuru osoaren gainean) 93 zirela (kopuru osoaren %1,5). Horietatik %60k ezgaitasun fisikoren bat zuten eta %24ko zentzumen-ezgaitasunen bat, eta ezgaitasun psikikoak ez ziren ohikoak (%5 baino gutxiago). Mailari dagokionez, eta kasu guztien gaineko daturik ez badago ere, estimatzen da %70 inguru %33 eta %50 artean leudekeela, eta %15, berriz, %65etik gorako kopuruetan.

47. taula. Ezgaitasuna duten langileak eta laneko arriskuei aurrea hartzea

	Ezgaitasuna duten pertsonak	Ezgaitasun fisikoa	Ezgaitasun psikikoa	Zentzumen-ezgaitasuna	Ezgaitasun mistoa	Ezgaitasun mota
Bizkaia	38	25	2	6	5	Fisikoa eta zentzumenekoa:3. Fisikoa eta psikikoa:1. Hirukoitza:3
Araba	33	21	0	10	2	Fisikoa eta zentzumenekoa:1. Fisikoa eta psikikoa:1
Gipuzkoa	22	13	2	6	1	Fisikoa eta psikikoa:1
Guztira	93	59	4	22	8	Fisikoa eta zentzumenekoa:4 Fisikoa eta psikikoa:3 Hirukoitza:3
6.300 langileri buruzko %	1,47	0,93	0,06	0,34	0,12	Fisikoa eta zentzumenekoa:0,06

Nolanahi ere, aipatu beharra dago litekeena dela ezgaitasunen bat izan bai baina horren onarpen ofiziala eskatu ez duten langileak izatea, eta, hori dela eta datu horiek kontabilizatu ez izana. Bereziki, Prebentzio Zerbitzuan ematen den arreta zerbitzuan oinarrituta, jasotzen da 20-25 pertsona inguru gaixotasun psikiko ez onartua dutenak leudekeela, eta horrek kopurua guztira %1,8an jarriko luke.

Ezgaitasuna duten pertsonak enpresetan txertatzea sustatzeko helburuari dagokionez, administrazioek burutzen dituzten kontratazioak baldintzatzearen bidez, aipatu behar da soilik aurreikusitako jarduketaren batean antzeman direla garapenak: kontratatutako enpresetan ezgaitasunak duten pertsonak kontratatu dira elementu diskriminatzailer positibo gisa. Enpresa mota guztietan eman da egoera hori, eta ez da inolako desberdintasunik antzeman erreserba-kuota betetzeko derrigortasunaren arabera.

Hori horrela, jarduketara hori, lehenetsuneko neurrien eremuan ulertuta, baldintza administratiboen agiri eredu-motak gauzatzean sartu da, eta Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak onartu du. Administrazio batzuek burutu dituzten azken kontratazioetan formula hori erabili badute ere, parte hartu duten administrazioek diote neurri horiek ez direla nahikoa ezgaitasuna duten pertsonak lan-mer-

Nolanahi ere, aipatu beharra dago litekeena dela ezgaitasunen bat izan bai baina horren onarpen ofiziala eskatu ez duten langileak izatea, eta, hori dela eta datu horiek kontabilizatu ez izana

katuan era nabarmenean sartzeko; izan ere, “baldintza berdintasun” egoera oso gutxitan ematen da kontratazio publikoetan, irizpide hori erabakigarria izan daitekeen moduan ez behintzat.

Administrazio guztien arduradunek adierazten dutenez, aurreikusitako esku-hartzeak indarrean dagoen legediaren arabera inplementatzea zaila da oso, eta horren adibidetzat jar daiteke Madrilgo Erkidegoaren Kontsulta-Batzordea adjudikazio-hartzaile gisa proposatutako lizitatzailerei egiaztagiri bat eskatzeko aukerari buruz igorritako txostena: “...ez du bazterketarako biderik eman behar...; izan ere, nahiz eta kontratatzea debekatzeko espedientearen izapideak egin, kontratatzea debekua, zeren arabera eta zein epetan adierazten duen behin betiko ebazpena eman arte ezin izango da debekua aplikatu”, eta horrek zeharo mugatzen ditu aurreikusitako neurriak aplikatzeko aukerak.

Equal Ekimenen barruan, Lamegi proiektuaren helburua da gizarte-izaerako egitura bat sortzea enpleguko gizarte-merkatuak eta klausulak inplementatzeko, gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko tresna gisa erabilita. Proiektuaren oinarri den Garapenerako Taldea (2005-2007) honakoek osatzen dute: Autonomia Erkidegoaren administrazioek (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak —garapenerako agentzien bitartez—), gizarte-eragileek (sindikatuak) eta gizarte-ekimeneko erakundeek, Unibertsitateek, eta abar. Proiektu horretan burutu diren hainbat esku-hartze bideratuta daude EAEn gizarte-klausulak¹ hedatu eta inplementatzera. Gaur egun, diseinatutako tresnak esperimentazio fasean daude.

6.1.7. Laneko harremanak

Laneko harremanen arloan, administrazioak garatzeko aurreikusitako jarduketak asko eta askok izaera subsidiarioa dute, hau da, beste erakunde batzuek inplementa dezaten laguntzeko edo sustatzeko izaera dute.

7.1 helburua. Bermatzea ezgaitasuna duten pertsonen inguruko lan-arloko legedia betetzen dela, eta ekintza positiboa sustatzea

Planaren lehenengo ekintzak bere gain hartzen du “Administrazio eskudunari araudia aldatzeko eskatzea...” plantilla murriztuz, kuota nahitaez aplikatzeko (50 pertsonetatik 25era) eta portzentajea handit-

1. Gizarte-klausulak ezartzea kontratazio publikoan irizpide batzuk ezartzea da. Irizpide horien arabera, kontratuari gizarte-politikako alderdiak eransten zaizkio, aldeztu aurreko betekizun gisa (onartzeko irizpidea), baloratzeko elementu gisa (puntuazioa) edo betebeharrak gisa (gauzatzeko beharra). Laburbilduta, neurri horren bidez lortu nahi da kontratu bat adjudikatzeko garaian administrazioek gizarteratzeko enpresei eta gizarte izaera duten enpresei lehentasuna ematea, edo positiboki diskriminatzea; are gehiago, horretara behartzea, ezgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatuta dauden derrigorrezko portzentajeekin gertatzen den bezala..

Laneko arriskuei aurrea hartzeko arloari dagokionez, administrazio gehienek kontsideratzen dute arlo hori nahikoa garatua dagoela

zeko (%2tik %4ra). Autonomia Erkidegoko Administrazioak ez du eskumenik arlo honetan, eta kontuan hartuta aurreko xedapenak inplementatzeko zailtasunak daudela, pentsa liteke neurri hau epe ertain-luzera begirako politika baten adierazpena dela, hain zuzen ere gerora garatzeko oinarriak prestatzen ari direla.

Kuoten kontrolaren zaintza eta betetzen direla bermatzea bai dagokio euskal administrazioari. Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, epe honetan espedienteak hasi dira eta 1.146 enpresen egoera aztertu da, 131 akta sortu eta 110 enpresari zigorra ezarri zaie. Horrek esan nahi du Plana indarrean egon den bitartean EAEn 50 langile baino gehiago dituzten enpresen %70 inguruan ikuskatze-jarduketak burutu direla, eta Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legea enpresa horietan betetzea enpresa horien %10 ingururi dagokiola (oraindik aztertzen ari da beste %10eko gehigarri bat).

Laneko harremanen arloan, administrazioak garatzeko aurreikusitako jarduketa asko eta askok izaera subsidiarioa dute, hau da, beste erakunde batzuek implementa dezaten laguntzeko edo sustatzeko izaera dute

48. taula. Zigor-espedienteak MGL Legea aplikatzearen ondorioz 2004-2006

	Enpresak	Aktak	Berretsiak	Atzera botatakoak	Errekerimenduak
Araba	62	7	3	4	4
Gipuzkoa	332	0			78
Bizkaia	752	124	107	17	42
Guztira	1.146	131	110	21	124

Iturria: Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza Saila 2007.

Gainerako proposamenei dagokienez, gizarte-eragileen jardunarekin zerikusia duten neurriak aztertze-fasean daude: hitzarmen kolektiboetan sistematikoki arautzea lanpostuen erreserba eta subrogazioak, negoziazio kolektiboa erabiltzea ekintza positiborako neurriak ezartzeko tresna gisa, edo hitzarmen kolektiboetan ezgaitasuna duen senitartekoren bat duten pertsonen lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarriak egiteko neurriak jasotzea. Nolanahi ere, sinatutako hitzarmen kolektiboen analisiak erakusten du arlo honek laneko harremanetan oso eragin txikia duela.

EAEko hitzarmen kolektiboetan ezgaitasuna duten pertsonen gaineko aipamen bakarra “**Pastak, Papera eta Kartoien Fabrikazioaren**” Hitzarmen Kolektiboan jasota dagoena da (hitzarmen kodearen zenbakia: 2000965). 18. artikuluan (gaitasun murriztua duten langileak) adierazten da: laneko istripu, gaixota-

sun arrunta edo laneko gaixotasun baten ondorioz sortutako ezintasun iraunkor osoa onartua duten langileek, Gizarte Segurantzaren pentsioa kobratzen badute, enpresa berean lanpostua izango dute gordeta enpresaren langile kopuru osoaren %10eko kopuru osora arte. Era berean, langileak lanpostu berriari dagokion soldata jasoko du eta enpresan duen antzinatea onartuko zaio, eta inongo kasutan ez zaio deskontatuko jasoko dituen kalte-ordainen kopurua

6.2. EMAITZA NAGUSIAK ETA BETETZEKO DAUDEN ERRONKAK

Pertsona ezgaituak EAEko lan-merkatu arruntean txertatzeko plana sortu zen ezgaitasuna duten pertsonen desabantaila-egoera errealari erantzuna emateko. Beharrezkoa da, hortaz, plana gauzatu eta gero egin den ebaluazioan parte hartu duten eragile guztiek adierazi duten bezalaxe.

Identifikatutako eragozpenak saihestu edo murrizteko helburuari heltzen dio, horretarako alor desberdinetan eta eragile desberdinekin jarduketak sustatuta. Ematen duen ikuspegi integrala oso egokia da zailtasun horien ezaugarri anitzetara egokitzeko, eta helburua du “ibilbide” osoan zehar ezgaitasuna duten pertsonen aukerak hobetzea —heziketa/prestakuntza eta laneko bitartekaritza—. Horretarako, produkzio-egituran (enpresa publiko eta pribatuak), beste alderdi garrantzitsu batzuetan (garrarioa, berrikuntza teknologikoak) eta gizartean oro har dihardu.

Ildo horretan, Planaren diseinua oso positiboa dela balora daiteke. Hala eta guztiz ere, hobetu beharreko alderdi batzuk daudela identifikatu da; esate baterako, foru aldundietan eta udaletan nolabaiteko ez jakite maila dago planak eskatzen duen inplikazioaren inguruan, eta horrek eskatzen du proposatzea Planaren edukiei buruzko zabal-kunde handiagoa egitea eta erakunde horiek Plana osatzen duten neurrietan duten zereginaren zehaztasun handiagoa ematea.

Planean aurreikusitako neurri guztien bilakaerari dagokionez, garapenari buruzko balorazioa bestelakoa da. Alor batzuetan, orientazioa, prestakuntza, bitartekaritza, enpleguari laguntzeko neurriak eta abarrekin zerikusia dutenak batez ere, hobetzen jarraitu beharra badago ere, bilakaera positiboa eman dela antzematen da, eta horrela egiaztatzen dute eskura ditugun datuek; izan ere, ibilbide horietan ezgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea gero eta handiagoa da eta kontratazioari ematen zaion laguntzetan ere neurri horien eragina nabarmena da.

Identifikatutako eragozpenak saihestu edo murrizteko helburuari heltzen dio, horretarako alor desberdinetan eta eragile desberdinekin jarduketak sustatuta. Ematen duen ikuspegi integrala oso egokia da zailtasun horien ezaugarri anitzetara egokitzeko

Eusko Jaur-laritzak bilakaera horren gidaritza hartu du, baina beste erakunde batzuk ere interes handiko ekimenak burutzen ari dira, eta formula berritzaileen bila ari dira ezgaitasuna duten pertsonen lane-ratzea sustatzeko (maiz, oro har bazterketa-egoera edo bazterketa ja-sateko arriskuan dauden pertsonen bideratutako ekimenetan sartuak), euskal administrazioen jarduna (foru aldundiak, udalak, Eusko Jaur-laritzak) gizarte-ekimenaren sustapenarekin konbinatuta.

Planaren garapenean inplikaturik dauden erakundeek ere ahalegin positiboak egin dituzte sentiberatzearen arloan, eta praktika onen za-balkundearekin eta abarrekin zerikusia duten beste alor batzuetan. Ho-rien emaitzak kuantifikatzea askoz zailagoa bada ere, lagundu egiten du ezgaitasuna duten pertsonak lan-merkatuan sartzeko testuinguru egokiagoa sortzen. Beste lan ildo osagarri bat da 50 enplegu baino ge-hiago duten enpresetan ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzearekin zerikusia duen araudiaren betetze-mailari jarraipena egitea. Dagoene-ko ikusi den bezala, neurri horrek araudia aplikatzen zaien enpresa asko eta askori eragin die Plana indarrean egon den epean.

Segur aski, aurreikusitako betetze-maila baino askoz baxuagoa izan duen area bat identifikatu behar baldin bada, hori kuoten erreser-ba igotzeari buruzkoa da, bai administrazioan bai ekimen pribatuan. Ez du ematen, hala ere, erreserba hori ez betetzea ezgaitasuna duten pertsonen enplegua %2tik gora handitzeko eragozpen funtsezkoena izango denik. Funtzio Publikoaren gaineko araudiaren zorrotasuna-ren ondorioz sortutako zailtasunei buruzko aipamenek eta sarrera-fro-gek aldaketa prozesu bat ematea eragin dute, eragile nagusienak bere barne hartzen dituenak, baina oraindik garapen fasean dagoena.

Lan-merkatu arruntari dagokionez, araudiak %2ko portzentajea mantentzen du 50 enplegu baino gehiago dituzten enpresentzat. Eus-kal Autonomia erkideagoan MGL Legearen betetze-maila %10 ingu-rukoa da (zigorra berresteko akta jaso duten enpresak azken 3 urteotan Legea ez betetzeagatik), baina ez dugu daturik 50 enplegutik go-rako enpresetan dauden langile ezgaituen inguruan (posible da arau-dia betetzea neurri alternatiboak ezarrita).

Bilakaera horren ondorioz, aipatzekoak dira Planaren ondorengo efektu nagusienak

- Aurrerapena eman da Administrazio Publikoan erreserba-kuotaren hazkunderan (betiere alde aurretik ezarritako helburuen azpitik) eta Lan-eskaintza Publikoan eta aukeraketa frogetan aldaketa pro-zesu bati eman zaio hasiera, alderdi hori funtsezkoa baita ezgaita-suna duten pertsonak administrazioan arrakastaz sartzeko.

Segur aski, aurreikusitako betetze-maila baino askoz baxuagoa izan duen area bat identifikatu behar baldin bada, hori kuoten erreserba igotzeari buruzkoa da, bai administrazioan bai ekimen pribatuan

- Bultzada nabarmena eman zaie Enplegu lagundua eta Enplegua Enklabean programei, eta, nahiz eta maila kuantitatiboan horren eragina oso handia ez izan (2006. urtean egindako inkestako datuen arabera enplegu osoaren %4,5 da), lan-merkatu arruntean sartzeko prozesuan urrats garrantzitsuak da, neurri handi batean gizarte-ekimenak garatutako jarduerak sustatua (elkarteak, erakundeak...).
- Sartze nabarmena Enplegurako Euskal Zerbitzuaren orientazio-, prestakuntza- eta bitartekaritza-zerbitzuetan (urtero ezgaitasuna duen biztanleria aktiboaren %5 gutxi gorabehera), eta Planaren indarraldian goranzko joera izan du.
- Implikatutako eragile guztien sentsibilizazio eta kontzientziazio handiagoa, eta ezgaitasuna duten pertsonak gizartearen maila guztietan enpleguan sartzeak planteatzen dituen erronkak eta aukerak eman dira jakitera. Laburbilduta, gizarte osoari eragiten dion arazoa dela ageriago jarri da eta efektu katalizatzailea eman da “prozesuei hasiera emateko”. Datozen urteetan gauzatuz joango dira horien eraginak.

Planak ezgaitasuna duten pertsonen lan-merkatu arruntean enpleguaren gainean izan duen eragina kuantifikatzea zaila da oso. Azken urteotan programa edo diru-laguntza espezifikoei esker² lan-merkatuan sartu den langile kopurua alde batera utzita, 2000. urteko datuen inguruan egindako azken azterketak erakusten duen enpleguaren bilakaerak jasotzen du ezgaitasuna duten pertsonen enpleguan hazkunde handia eman dela (%40tik gora). Hazkunde horretan faktore batzuk oso ezagunak dira, hala nola enpleguaren hazkundera Enplegu-zentro berezietan (%50etik gora) edo jardunean ari diren pertsonen bilakaera positiboa (%12tik gora). Bilakaera positibo horren beste arrazoi bat izan daiteke ezgaitasuna duten pertsonak laneratzearen aldeko neurrien ondorioak antzematen hasiak direla.

Aldeko joera hori gorabehera, datuek erakusten dute ezgaitasuna duten pertsonak oraindik desabantaila-egoeran daudela: laneko adinean dauden pertsona guztien %3,6 dira, baina enpleguaren %2,3 baino ez dira. Horrek erakusten digu beharrezkoa dela Planaren eraginkortasuna hobetzea eta hasitako prozesuak azkartzea, ezgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu sartzeko garaian aukera berdintasuna lortzeko ahalegin handiagoa egin.

2. Enplegurako eta Prestakuntzarako Zuzendaritzak emandako datuen arabera, 2005. eta 2006. urtean enpleguari emandako diru-laguntzak aurreko urteko azterketan identifikatutako enpleguen ia %6 sustatzeko erabili bide ziren.

Euskal Autonomia erkideagoan MGL Legearen betetze-maila %10 ingurukoa da (zigorra berresteko akta jaso duten enpresak azken 3 urteotan Legea ez betetzeagatik), baina ez dugu daturik 50 enplegutik gorako enpresetan dauden langile ezgaituen inguruan

BIBLIOGRAFIA

- Bazo, Teresa (2004): "Políticas realistas para las sociedades envejecidas" in www.ucm.es.
- Bronfenbrenner, U. (1987): *La ecología del desarrollo humano*. Paidós argitaletxea, Bartzelona.
- Cidec (2004). "Enplegu hobi berriak XXI. mendean", in Lanerako Koadernoak, 40. alea.
- Cidec (2007). "2003-2006 Erakunde arteko enplegu-plana".
- Colectivo ioé (2003): *La inserción laboral de las personas con discapacidades*. La Caixa Fundazioa. Madril.
- Europako Komunitateen Batzordea (2001). "Europako markoa sustatuz, enpresen erantzukizun sozialerako. Brusela".
- Datlan eta Ararteko (2003): *Pertsona ezgaituak lanean txertatzea EAEn*. Ararteko argitaletxea. Gasteiz.
- Emaiker eta Datlan (2006): "Pertsona ezgaituen egoera erreala enpleguaren gain".
- Fantova, F.; Casado, D.; López Arostegi, R.; Sotelo, H. y Díaz, J. (2005): "EAEko gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren egoera eta perspektibak". Eusko Jaurlaritzak.
- Martínez, J.; González, M., Pisonero, S. (2004): "EAEn pertsona ezgaituen premiak eta irisgarritasuna". Eusko Jaurlaritzak. Gasteiz.
- Lan eta Gizarte Gaiak Ministerioa: Pertsona ezgaituentzako II. jarduerak-plana 2003-2007.
- Osasun Mundu Erakunde (1980): "CIDDM. Urritasun, Ezgaitasun eta Minusbalioen Nazioarteko Sailkapena".
- Osasun Mundu Erakunde: Organización Mundial de la Salud (2001): "FSN. Funtzionamendua-ren, ezgaitasunaren eta osasunaren nazioarteko sailkapena".
- Raya Díez, E. (2006): Bazterketa sozialaren adierazleak. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Schallock, R.L. & Verdugo, M.A. (2003): *Calidad de vida, Manual para profesionales de la educación, salud y servicios sociales*. Psicología, Alianza Editorial.
- Lan eta Gizarte Gaiak Ministerioa (2004). *Espanian mendekotasun egoeran dauden pertsonen arretari buruzko liburu zuria*.
- Fantova, F. (2007): "Zerbitzuak kudeatzeko eredu berriak", www.fantova.net.